

EUSKERAZAINZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA
Academia Popular de la Lengua Vasca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

LII Zenbakia

2004n. urtea

EUSKERAZAINZA.....

ERRIZ ERRI.....

ERRI-EUSKERA LANTZEN.....

EUSKARAZAINZA. Euskeraren Erri Akademia.

Z.N.A./C.I.F. G 20/127.759

Eusko Jaurlaritza-ren Elkarte Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena (BOE 45/1981 eta EE.AA. 96/1984)

Zuzenbideak: 1192 Posta Kutxatilla 20080 DONOSTIA

Colón de Larreategi, 14-2ª 48001 BILBAO

AURKIBIDEA

	Orr.
Atarikoa (Olazar´tar Martin´ek).....	5 orrialdea
Lortuak eta lortzekoak (Olazar´tar Martin´ek)	6 orrialdea
Baskoiak eta frankoak (Olazar´tar Martin´ek)	8 orrialdea
Done Riktrudis (Olazar´tar Martin´ek)	9 orrialdea
Done Amand (Olazar´tar Martin´ek.).....	10 orrialdea
Bertsolaritza (Olazar´tar Martin´ek).....	11 orrialdea
Aragoi´ko izen euskaldunak erdi-aroan (B. Latiegi).....	12 orrialdea
Arturo Kanpion eta P. Broussain´en txostena (Olazar´tar Martin´ek).	27 orrialdea
Serorak kentzen (Olazar´tar Martin´ek)	29 orrialdea
Askatasuna ta menpea gure edestian (Atutxa´tar Paul).....	31 orrialdea
Eleiz-barrutiak (Olazar´tar Martin´ek)	69 orrialdea
Euskerea ta euskalkiak (Olazar´tar Martin´ek)	69 orrialdea
Iztegirik zarrena (Olazar´tar Martin´ek)	69 orrialdea
Lege Zarra (Olazar´tar Martin´ek)	69 orrialdea
Erbesteko izkuntzalariak (Olazar´tar Martin´ek).	70 orrialdea
Zesar Borjia Euskalerria´n (Olazar´tar Martin´ek).....	72 orrialdea
Erdi-Aroko ekonomia Euskalerria´n. (Olazar´tar Martin´ek).....	74 orrialdea
Zazpi lurraldeak (Olazar´tar Martin´ek)	74 orrialdea
Erromatarrak Euskalerria´n (Olazar´tar Martin´ek).....	74 orrialdea
Frankoak eta Euskalerria (Olazar´tar Martin´ek)	74 orrialdea
Milia Lasturko´ren il-olerkia (Endetxa). (Olazar´tar Martin´ek).....	75 orrialdea
Euskera orain 2000 urteko arlosetan (Anes Arrinda)	76 orrialdea
Euskal lurra (Olazar´tar Martin´ek)	Azala
Egurastia (Olazar´tar Martin´ek).....	Azala
Triku-arriak (Olazar´tar Martin´ek)	Azala

Laguntzalleak

Gipuzkoako Aldundia

Eusko Jaurlaritza



EUSKERAZAINTZA

I. S. B. N. : 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S. L. - Bilbao

ATARIKOA

Irakurle ta adiskideok, agur. Ona emen gu zuekin barriro alkar-izketan.

Berrogeita amabigarren zenbaki onek idaz-lan bat dau ardatz: Paul Atutxa'ren itzal-dia. Egun bitan eman zuan Bilbao'ko EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean igazko azillaren 25 eta 28n. egunetan.

Gaia auxe izan zan: Noiztik asi giñan euskaldunak buru-jebetza galtzen eta nora eldu giñan. Eta bigarren egunean, zelan aurkitu eban Arana'tar Sabin'ek buru-jabetzaren arazo larri au, zein bide artu eban eta nora jo dogu euskaldunok Ibarretxe'ren esondapenera eldu arte.

Argi agertu zan or Euskalerrria, gitxienez Bizkaia, eta España jaunaren edo Erregearen ardurapean alkartu zirala, baiña euskaldunak baietza eman ezkeru.

Oixe da Ibarretxe'k gaur egiten dauan esondapena. Orixe da España'ko laterri-legean eskatzen dana eta ori Araudian bertan argi esaten dana, Araudia onartzean ez dirala alde batera izten edestitik jatorkuzan eskubideak esaten danean. Ez gaitue ezagutzen! Ez dabe ikasi gure edestia!!

Beste lan naikoa luze bat be agertzen da zenbaki onetan: Latiegi'tar Bixente'k San Juan de la Peña'ko liburu zarrak aztertzen egiten dauan lana, batez be euskal izenai begira. Irakurgarria da.

Anes Arrinda'k lan luze ta eder baten antxinak euskal itzak agertzen dauskuz.

Eta lan orreikin, beste bagerik gure aldizkaria astun geldituko zan eta orregaitik bitar-teetan gozagarri lez, beste lantxu labur batzuk agertzen dira, Bizkaia zein eleiz-barrutitakoa izan zan edestian, lenengo euskal iztegia non agertu zan, Lastur'ko Milia olerkiaren azterpena, triku-arriak non aurkitzen diran eta abar.

Lortuko al degu gure aldizkari au irakurleentzat pozgarria ta ikasbidea izatea eta gure abertzaletasuna sendotzea. Orrantza doaz gure alegiñak.

Olazar'tar Martin'ek

LORTUAK ETA LORTZEKOAK (2003)

ALBISTE TXARRA ETA ONA

“Euskerazaintza”ren arduradunak aukeratzeko ekintza au asterakoan albiste txar bat eta on bat gogoratu-bearrean aurkitzen gara.

Albiste txarra gure Zubiri'tar Iñaki'ren eriotzea da: Uste barik eta etxeke ezbear baten ondoren lez joan jaku aurtengo azillaren 8n. egunean: Euskerazaleak Alkartearen zuzendaria eta Eurkerazaintza'ren sorleatarikoa izan dogu, idazle ugaria batez be elebarrigintzan. Goian bego. Nola beteko ete degu berak gure artean izten dauan uts-une aundia?

Albiste ona: Gure lankide dan Arostegi'tar Luis aita mundu guztiko karmeldarren buru aukeratu dabe. Zoriona! Urte batzuk dirala beste lankide bat, Orbe-gozo'tar Jose Agustin, aukeratu eben munduko pasiotarren buru. Asko poztuten gaitu gure artekoak ainbestean onartuak izateak.

. . .

LORTUAK

Madril dar batzuk gure euskerearen eta euskalerrriaren barriak eskatu daus- kuez eta eurakaz artu-emonetan gagoz. Internet'en aurkitu dabe gure barria.

Gure Latxaga'k Euskereari buruz agiri nagusi edo “manifiesto” bat zabaldu dau eta oso irakurgarria da.

Bilbao'n Euskerazaleak Alkartea ospatu dauan Euskal-Astean gure arteko izlari bik egin dabez euren itzaldiak: Latxaga'k bere agiri nagusi ori azaldu dau eta beronen itzaldia oso pozgarria ta entzungarria izan da. Atutxa'tar Paul'ek gai sakon eta zabala artu eban bere itzaldirako eta egun bi emon bear izan jakoz gaia ondo azaltzeko: Euskalerrriaren askatasuna nola galtzen joan dan edestian eta gaur, Arana'tar Sabin'en ondoren, nola alkartzen dan gure askatasuna lortzea Ibarretxe Lendakariaren esondapenagaz.

Umandi'ren gogo-iztegiaren liburu bikoitza eta bien 800 ale emon dauskuz idazle aren arrebeak eta saltzen eta zabalitzen ari gera gogoz eta biotzez. Iztegi au askoren aldetik da onartua.

Gure Euskerazaintza aldizkaria 2003n. urtean bitan argitaratu da, zenbaki bi.

Onaindia/Olaso aitaren agiritegia eskuratu dogu eta Labayru'ren eskuetan dago argitaratzeko. 60 kutxa dira eta agiri oso jakingarriak.

36'ko gudaldian ildako idazle gazteai buruz dan liburua Jaurlaritzaren laguntzaz oso ondo zabaldu dogu, 2000 ale, Euskalerriko liburutegi eta kultur-talde guztietara eta eskerrak emonez eskutitz asko artu doguz. Gaiñera, lau tokitan egin dogu liburu orren aurkezpena: Aretxabaletan, Bilbao'n, Donostiko Mitxelena aretoan eta Aramaiona'n. Entzule asko eta aurkezpen onak izan dira.

Gure Bixente Latiegi'k liburu batzuk argitaratzen diardu, Euskal Ikaskuntza edo Sociedad de Estudios Vascos taldearen eskariz, talde onek zelako indarra izan eban bere aldian agertzeko. Asko zabaltzen dira liburuak eta oso onartuak dira.

Lekaime klaratar batek 100 salmo idatzi dauz eta ZER'en argitaratzen diardugu. Otoitz-gai ederrak dira eta euskera oso errikoa ta garbia dauke.

LORTZEKOAK

Gure batzordekide izan zan Gaztañaga'tar Jesus'ek dirutza bat ipiñi eban ETOR argital-etxearen eskuetan eta oraintxe ari gera arazo ori bideratzen.

Oñatibia'tar Jon'eri omenaldia egin gura dautsoe bere senideak eta euren egiteko ori aintzat artzen dogu. Latxaga'k egingo dau itzaldi bat eta al dogun neurrian laguntza emongo dogu, Iturrioz'tar Josu Jon beraren ezkon-anaiak aurrera eroango dauan ekintza onetan. Onek Jon'eri buruz idatzi dan dana eta bere idaz-lan guztiak argitaratuko dauz.

Anton Abadia sari bat agertzen da urtero euskerearen alde lan egiten daben taldeentzat eta 2004n. urterako aurkeztuko da Euskerazaintza, al ba'da.

Internet'en ba-dagoz gure barri batzuk eta ortik aurkitu gaitue len esandako Madrid'tarrak, baiña arazo au obeto bideratu bear dogu, gure barriak ugariago agertuz.

Tolosa'ko aretoak salgai jarraitzen dau eroslerik ez datorrelako, eta diru orren bear-izan aundia daukagu.

2004n. urte onetan be aldizkari bi argitaratuko doguz eta lenengo au ia dana eginda dago irarkolan.

Olazar'tar Martin'ek.

FRANKOAK ETA BASKOIAK

Emen baskoiak diñogunean, gaur iparraldean diran iru eskualdetakoak sar-tzen dira, eta Naparrak.

VI gizaldian Tours'ko Gregorio edeslari ospetsuak bere edestian dakaz bas-koiien eta frankoen artean izan ziran guden barriak.

587: Urte onetan Bladastez dukea eroan eben Auñamendi-barrura eta bero-nen gudalostea azpiratu.

602: Barriro gudan dagoz baskoiak Teuderiko'gaz eta onek agintari lez "dux" bat ezarri eutsen: Genialis.

Barriro jagi ziran frankoen aurka eta San Amando'k egin ebazan bakeak.

625n. urtean barriro jagi ziran baskoiak eta amar dukeren ardurapean bialdu eben frankoak gudarostea eta baskoiak Auñamendi barruko mendi-artera sartu ziran, baiña asko izan ziran atxillotuak eta illak. Dana dala, Arinberto dukea atxi-llotu eta il eben.

Baskoiak obeto ezagutzen ebezan Auñamendi'ko mendi-arteak Akitaiña lauan baiño.

636n. urtean bakea egin eben erregeari men eginda. 678n. urtean artu ebe-zan bakean Leugedario gotzain eraillaren lagunak.

VIII gizaldi osoa dago frankoen eta baskoiien arteko gudaz beterik.

717n. urtean Eudo dukeak lagundu eutson IV Klotario'ri. Eudo onek ituna egin eban frankoakaz eta arabiarrek Abderraman'egaz Garona ibaia igaro ella-rio'ren eleiza erre eben.

742: Karloman Eudo'ren aurka, bakea eskatu bear.

760: Urteetako guda Waifario dukeak.

762: Atxillotuak, andra ta umeakaz.

763: Gudaldia, Mantzio'gaz: Zaldiak galdu. Mendira.

764: Guda barria. Mendira.

765: Waifario'gaz Gazkuña'ra.

768: Bakea. Waifario ta Pipino il. Karlomagno Erdi-Ugartera, Iruña'ko ormak apurtu. Bueltan Roldan.

Olazar'tar Martin'ek

DONE RIKTRUDIS, LEKAIME EUSKALDUNA

Riktrudis Ernoldo eta Likia'ren alabea zan eta Euskalduna izan arren, Euskal-
lerritik kanpoan ezkondu zan, eta euren barriak santu galoen artean agertzen
dira.

Aldabando frankoen artekoa ezkondu zan beragaz, neskearen senideak
ezkontza ori onartu ez arren (636n. urtean).

Urteak gizonaren lurraldean bizi izan ondoren, andrearen euskal-lurrera eto-
rri ziran eta andrearen senideak il egin eben.

Ez eutsoen itzi illeta aundirik egiten.

Riktrudis, naigabeak jota, lekaime-etxe batera sartu zan eta mirari asko egin
ondoren santa lez il zan eta maiatzaren 12n. egunean ospatzen da bere eguna.
Bere senarra be santutzat eta martiritzat artu eban erriak, eta San Adalbando
onen eguna ospatzen da. Sendi orretako iru alabak be santak ziran: Eusebia
abatemea martiaren 16n. egunean, Klosendis bagillaren 30n. ean eta Aldasen-
dis abenduaren 24n. ean.

Santa Riktrudis'ek artu-emon asko izan eban San Amando'gaz.

Olazar'tar Martin'ek

DONE AMAND, EUSKALDUNEN APOSTOLUA

Iparralde'ko Euskalerrria'n ezaguna da Angelu edo Anglet'en parroikiko zaindari dan Amand deuna. Baiña nor San Amando au?

VII gizaldiko santu euskalduna da eta beronek ekarri ei eban Barri Ona baskoien lurraldeko bazter baten dagoan lurralde onetara.

Askoz lenago zabaldua egoan Barri Ona Ipar-Euskalerrria'n: II gizaldian goigotzaiña egoan Eluza deritxon erri euskaldunear eta egoaldean V gizaldian agertzen da Silbano Bibrieska'ko gotzain euskaldunaren eta Aita Santuaren arteko gorabera, gure Silbano'k Aita Santuaren baimen bagerik gotzaiñak sagartzan ebazalako.

Geroagokoa da Amand santua: 594n. urteko otsaillaren 6n. egunen jaioa. Naikoa gazte zala egin eben gotzain eta ikustaldiak egin ebazan Tours'eko Martin Deunaren illobira, abade zala, eta gero Erroma'ra.

634n. urtean erbesteratu egin eben eta baskoien artean bizi izateko aukerea izan eban. 638n. urtean bere apostolu-lanak Belge'ra arte zabaldu ebazan.

Eleiza eta monastegi asko sortu ebazan eta 684n. urtean il zan, 90 urte ebazala.

Olazar'tar Martin'ek.

BERTSOLARITZA

Erri bakoitxak daukoz bere oldozpenak agertzeko erak. Orreri esaten eutson Unamuno'k "Enderen bizia" eta geien izkuntzaren bidez agertzen da, izkuntza da izan be, norberaren barrua agertzen biderik egokiena eta geien erabilia.

Euskalerrak ba-dauko bere bizi berezia eta euskereagaz agertzen dau ori, euskaldunen agertzeko erea dalako, eusko-erea.

Barru ori ondoen agertzen dauan erea, bertsolaritza da. Bertsolaria izateko, lenengo euskalduna izan bear da, pelotaria geienetan izaten da euskalduna, baiña bertsolaria beti da euskalduna.

Bertsoetan bat-batean barrua agertzea elerti askotan agiri dan gauzea da: Grezia'n rapsodak ziran, kelten artean bardoak, Birjilio'gan artzaiñak, probentzan trobatzaileak, eta beste leku askotan juglarrak eurak be bai. Baiña guzti orrein artean bereziki agertzen bertsolari euskalduna.

Noiztik?

Iztueta izan zan bertsolaritzaren lenengo edestia idatzi ebana, naizta Garibai'k be aitatu XV gizaldian bat-batean abesten daben abeslariak. Iztueta'k 1800n. urte-inguruan ezarten dau asierea eta ortik eltzen da beste oneitara:

Pernando Amezketarra, Xenpelar, Bilintx, Pello Errota, Iparragirre, Xabolotegi, Txirrita, Otaño'tarrak, Enbeita'tarrak, Matxin, Basarri, Uztapide...

Baiña VII gizaldian bertsolari bat jarri jakon aurka euskaldunen apostolu zan San Amand'eri. Gero agertu ziran Orreaga'ko gudaldiari abestu eutsoenak, Beotibar'eko gudaldia edesten dabenak, erdi-aroko Etxaleku, Ursua, Gartzia Txurri, Naparroa'ko kortean zidarrezko saria irabazi ebenak eta Gazkuña'ko joglarrak, Naparroa'ko erregeen eta Bizkai'ko jaunen laguntzaz.

Gero Gipuzkoa agertzen da aintzindari, Urruña'n ospatu zan 1860n. urteko sari-keetan eta 1888n. urtean Gernika'n be izan zan sariketa bat eta 1935n. urtea ezkerro Giputzak izaten ziran txapeldun.

Juglarra erromantzean agertu zan antzera agertu zan Euskalerrria'n bertsolaria eta euskerearen bizi guztian jarraitu dau izkuntzari bizia ta indarra ezarten.

Bertsolaria, bardoak, juglarra, ta rapsoda dana batera da eta olerkaria baiño be geiago musikalaria da. "Juglar" izena "jokolari" itzetik ete dator?

Bertsolaria'ren lana agozkoa da, baiña 1833n. urtean asita, zabaldu dira bertso-papelak, Gernika'ko Goitia irarkolak asierea emon eutsonetik gaur arte.

Bertsolariak orduetan ekiten dabe pozez emtzuten dagoan erriaren aurrean, beti bizi eta bat-batean bertsoa sortzen dala eta minutoko iru amarreko egin leikeez.

Euskeraz "bertso" izena aapaldiari edo estrofeari emoten jako eta bertso bakoitxaren izena "puntuak" da.

Geien erabilten dan bertsoa zortzikoa da, aundia bikiak ez diran bertsoak amar agokaldikoak diranean, eta bikiak zortzi agokaldikoak eta azken-bardiñak diranean, eta zortziko txikia zortzi eta zazpi agokaldikoak diranean. Baiña ez nastau zortziko au musikearen zortziko neurri edo konpasagaz, ez dauke zer-ikusirik, iñoz batera joan arren. . Ori aurpegira botaten eutson Xenpelar'ek Iparragirre'ri.

Or daukaguz ba bertsolariak edozein gairi buruz abesten, erriaren egarria asetzen, gizarte olerkia aurkezten, Euskalerriko aztuak diran gizon etorritsu oneik iturri dirala.

Oarra: Idaz-lan au Jose Antonio Arana'k Gernika'n VI eun-urte-urreneko egitarauan agertu eban lanetik artua da, baiña askatasunez euskeratua.

Olazar'tar Martin'ek

ARAGOI'KO IZEN EUSKALDUN ZARRAK ERDIARO GARAIEAN

828'ko Bigarren Larruki Bat

Bi larruki ditugu Peña'ko Yondonianeren Lekaidetxean 828'garren urtekoak. Aurrenekoa egunaren eta illaren aipurik gabea.

Aurreneko ori, ordea, zintzoa, benetakoa da. Bigarrena, apokrifoa, berak maltzurki dionez dagonillaren bostekoa. Egiaz, ordea, bere idazkerak, bere mintzoerak –eta baita bere geiegizko luzetasunak ere– adierazten digutenez XI mendean ez baiña XIII'ean edo XIV'aren asieran idatzia.

Apokrifo onen arrazoia, apokriforik geienena bezala, lekaidetxeko aberastasunen jabetza ziurtatzea izan zan.

Aurreneko larrukia, egiazkoa dan ura, Zella'ko lurraldearen muga ikertu ondorean muga aren mugarren berri emateko idatzi zuan Atilio abatak. Aipatzen dira bertan ikerketa orren lekuko izan ziran Gartzia Jimenorena Iruña'ko erregea eta Galindo Aragoi'ko kontea. Baita muga ura osotzen zuten mendi, baso, larre ta ibairik ezaugarrienen izenak, baiñan ez da bertan esaten erregeak –edo konteak– toki aiek lekaidetxeari eman zizkionik.

Orregaitik, iru-lau mendez geroago lur aien jabetza iñork zalantzan ipiñi ez zekion, gezurrezko dokumentu au idaztea erabaki zuan garai berri ontako lekaidetxearen abatak.

Lenengo larrukia, benetako ura, "Euskerazaintza"ren azkeneko zenbakian aztertu nuan.

Gaur bigarrena, apokrifoa, izango dut azterketagai. Iruzurlari 828'ko Dagonilla'ren 5'ean idatzia izan zala dioskuna, naiz esan dedan lez XIII mendean edo XIV'aren asieran idatzia izan.

Badute garrantzirik gai bera duten bi larruki auek:

– Bai Kristautasunaren aldetik. IX mendean kristautasuna Aragoi'ko Auñamendi garaienaren zokorik izkutuenetara sendo sarturik zegoala adierazten bait digute. Zoko aietakoak dira bâ damaizkiguten toponimoak.

– Bai Izkuntzaren aldetik. Zergaitik? Damaizkiguten toponimo oien euskalduntasunak ezeze, idazki oietako morfologiak berak euskerak an zuan indar orokorra azaltzen digulako. Adibidez "**camino camino**" esaten duanean; ori ez bait da ez latiña ez erromantzea, euskera baizik: euskeraz ain egoki erabilli oi dugun "mendiz-mendi" esaeraren antzeko **bidez-bide** baten erromantzeketa: itzak erromantzezkoak, morfologia, ordea, euskalduna. Ona larrukiaren itzak berberak: ". . . *et inde camino usque ad Fontem putiam*": ". . . ta emendik bidez-bide Iturri gaziaraño". Berdin geroxeago, "**dorsum dorsum**", ots, "oste-oste" dionean: "*de illa Osca usque ad casa Corben et dorsum dorsum usque ad Beral*": "Oska artatik Korben etxeraño eta, **oste-oste**, Beral arte".

– Bai Politikaren aldetik: Larrukiotan XI mendean Naparroa ta Iruña bera bezala elez osoki euskalduna zan Jazetania Iruña'ko Buruntzari, seguruaski

anfiktioni-eran, loturik zegoan Laterri bat bezala agertzen bait zaku. Ez arritze-ko gauza. XVII mendean ere, garai artako Oihenart edestilariak bere "Notia Utriusque Vaskoniae"n, Gipuzkoa edo Bizkai edo beste edozein Euskal-Laterri bezalaxe Jazetania XVII mendean Euskalerrriaren zati bat zala esaten digu bâ; eta askoz geroago ere XIX mendean Yoseph Dominique Garat Napoleon Bonaparte'ren adiskideak txosten ofizial baten bidez Aragoi'ren iparraldean Euskalerrria Katalauni'ren mungaraiño iristen zala jakiñarazi bait zion. Ta. . . motz gelditu zan eskierki! Nere ustez Katalauni'ren barruko Pallars'en ere euskeraz mintzatzen bait zan orduan! A! ta Garat'ek txosten artan Euskalerrri osoa, Frantzi ta Españi'ren artean Laterri yare biurtzeko eskatzen zion.

– Bai Euskalerrriko erregetzaren sorkuntzari-buruzko auziaren aldetik ere. ¿Noiz sortu zitzaigun Euskalerrriari alako kalteak egin zizkion gure erregetza? ¿Nor izan zan gure lenen erregea?⁴

Oraindik askatzeke dauzkagun korapilloak.

* * *

Sar nadin bigarren dokumentuaren, ots, apokrifoaren ikerketara, bere topomimoetaz asita.

CIELLA: VIII mendez gero iru konterri agertzen dira Auñamendi ta Auñaurreko edo oraingo Prepirineo mendien artean: Aragoi, Sobrarbe (euskeraz Arpegain) eta Gortz'ibar edo Ribagorza. Iruak bete-betean ziran euskaldunak.

Ziella Aragoi'ko konterrian zegoan, erromateko JAZETANI zarrean.

Izen bat baiño geiago izan ditu erri onek, danak antzekoak. Zarrena, eta nere ustez danetan jatorrena ZELLA, irakurkeraz ZELA. Orrela deitzen dio onen aurreko larrukiak: ". . . de cenobio que vocatur Zella", Geroago Ziellas esan zaio. Gaur Zillas du izena, ta erromantzez "zilla" garia-ta gordetzeko etxea omen da. Errez oartu zaitekenez, guri balio ez digun etimologia. Ez digu latinezkoak ere balio, latinez "zella" txabola bait da; jende arruntaren txabola. Latinezko "zella" ortatik etorri omen dira gaztelerazko "celda" eta euskerazko "gela". Badut nik naiko zalantza, gure "gela" latinezko "cella"tik datorrelako ori ontzat artzeko.

– ¿Aztertzen ari geran ZELLA zenobitegi bat ez al zan? galde dezaidaket norbaitek

– Bai, zenobitegi bat zan; bakarti-talde bat alkartasunean bizi ziran tokia, erantzungo diot

– Ta, ¿zenobitar aiek ez al ziran txabola arloteetan bizi?

– Bai; arras txabola txiroetan.

– Ta, ¿zenobitegi aren izenak, ZELLA'k, ez du bâ latinez landerra esan nai?

– Bai.

– Orra bâ or argi izen orren etimologia: ZELLA = TXABOLA-LANDER-TEGIA.

⁴ Orain bukatzen dedan ataltxo ortan, "dorsum dorsum" "ostez-oste" euskeratu dut. Larruki ontan bezala mendietaz ari diranean, latindarek "dorsum montis" sarritan idatzi oi dute. Ori gaztelarrek "la espalda del monte" itzultzen dute. Euskeraz ordea ez dugu orrelakorik esaten. Ori euskeraz emateko iru itz baditugu: "Ostea", "atzea" ta bizkaitarrei ta giputzoi arrigarrimarra zaigun "gibela". Nik larruki onen "dorsum dorsum" "ostez-oste" erabilli dut, baiñan berdin erabilli nezakean "gibelez-gibel", ots, "mendi orren gibelez-gibel". Oroi Elizanburu kapitanaren olerki ezagunaren asiera: "Urrundik ikusten dut / ikusten mendia / beraren GIBELEAN / bait dut nik erria". Erabilli dut agian azalpen bat bearko duan beste itz bat ere: Giputzok "zaigu" eta bizkaitarrek "yaku" eta "jaku" esaten duguna napparrek eta ipartarrek "zako" esan oi dute.

– Ez irakurle. Ori etimologi errezegia duzu. Kalparretik ekarria. Gogoan euki bear dan gauza da gaiñera zerbait bi berdiñak izateak ez duala naitanaiez zerbait bi oiek aideak diranik esan nai. Askoz gutxiago bata besteagandik datorrenik. Adibidez bi emakumezko aski berdiñak izateak ez du naitanaiez esan nai bi emakumezko oiek ama-alabak diranik.

Aitor dezadan apalki ZELLA, agoskeraz ZELA'ren etimologia ez zaidala eza-guna, baiñan esanik utzi nuan onen aurreko larrukian itz ori aztertzerakoan, ZELLA, ZELA ta ZILA ta ZILLA daramaten izenak ugari dituala Euskerak bere toponimi ta antroponimietan.

BUBALO. Itz au ere lengo larrukian aztertua dut. Oraingo ontan bi aldiz datorkigu: "*illum montem qui vocatur Bubalo*" (Bubalo deritzan mendi ura); eta "*illum montem de superius vocatum Bubalo*, (Goraxeago aipatutako, Bubalo izen-duan, mendi ura).

Madoz'ek 1846'ean idatzitako bere iztegian, BUBAL Jaka uritik ez urruti Añamendiaren barrura sarturik "en terreno escabroso que comprende rocas y peñas y riscos" dagoen erriska bat dala diosku. Ori orrela dalarik, Bubalo'ren "O" euskal-atzizki toki adierazlea ederki izan daiteke. Zer ote "Bubal"? Ez dakit. Guk ditugun iztegietatik askoz eta askoz fidagarriena Azkue'rena da. Baiñan iztegi ortan itz ori ez dut aurkitu. Ezagutu izan dut emen, Gazteitz'en abizenez BUBAO zan langille bat, Ipar-Aragoi'koa jatorriz. Gure larruki ontako "Bubalo". . . . ¿"Bubao" ote zan? Ez dakit baiñan zana zala mendi aren izena, Aragoi zar euskaldunean "AO" atzizkia daraman tokiizen eta abizen asko da. Ango nere apaiz adiskide batek Bolao du abizena. Orren antzekoa da Dorao. Kalatorao, Jalon ibaiaren ondoan Aragoi'ko euskeraren egoaldeko muga izango zitzaigun antziña.

ORDIN: ibaitxo baten izena da: ". . . *usque ad illum terminum de rio Ordin*". Ibaixto onek aundixeagoa dan Beral ibaiara daramatza bere urak. Azken-denbora auetan Ordin errekatxo gaixoari gaztelar'dunek "REGORDIN" esaten diote. Turiste erdaldunek ipiñi dioten deikera. Orrela ari dira gure izen euskaldun txukunak izen parregarri biurtzen!

¿Zer ote da Ordin? Agian. . . ¿Urdiñ'en aldakuntza? Edota, "O"errez biurtzen bait "U" ¿Aragoi'ko euskera zarrak gure "urdiñ" "ordiñ" esaten ote zuan? Ori orrela ba'litz margo orren jatorrizko izena "ordiñ" izango litzake. Ez zaitez arritu, irakurle, Aragoi'ko euskera Tolosaldekoa baño egokiagoa izan daitekeala uste izateaz. Azken-aldi ontan "el batua-zaleek" erabat azturik daukaten Orixe gure olerkari berdingabeak beintzat buruan sarturik zeukan "euskera, zenbat eta sortalderago, orduan da ohea zala" eta maiz esaten zuan ori.

Gaiñera "O" ta "U"ren artean "O"ren doiñua zarragoa da "U"rena baiño, "O" bai da nekerik txikienako legearen eragiñez "U" biurtzen dana, eta ez "U" "O".

"Ordin" margo baten izena izatea ez zaio eragozpen euskerari izen ori toponimo biurtzeko.

Baditugu bã margo baten izena daramaten mendiak eta ibaiak: ORIA, adibidez, eta gaur Burgos'ko lurretan dagoan URBEL. "Bel" ori "beltz" dala esan oi da, baña nere iritziz, askoz errazago izan daiteke "U" galdu duan UBEL. Gure gizaldiaz gero ezabatzen ari zaigun itza. Nere ama Benitte'k garizumaren kolorea ubela zala esan oi zuan; bere alabek ordea ubelari "morea" esan izan diote beti.

Orain Burgos'koa dan Urbel orren inguruan dago Ubierna, euskerazko izena daraman ibaia eta bere ertzean BIBAR izeneneko erria: Bibar'ko Diaz'tar Errodrigo, ots, gaztelarrek "El Id Campeador" esan oi dioten guda-gizona jaio zan erria. Gaztelaraz mintzo diranek erri orren izena, naiz BIBAR agoskatu, VIVAR idazten dute. Ez dago ortarako egiazko arrazoirik, "viva España" idazte-

ko "V"ak erabili bear izatea arrazoi bat ez bada beintzat. Danadala erriari bere jatorrizko euskal-itxura kendu diote beintzat zearo

Itzul gaitzen ikertzen ari giñan itzera: ORDIN. Itz orren euskalduntasuna zalantzan ipintzerik ez dago, "Ordiñarbe" du bā izena Suebiarren erri batek; frantzeraz, "Ordarp" (¿"Ordi-arpe"tik?) esaten zaio. Gaiñera, "ORD"z eta "ORDI"z asten diran tokiak asko bait dira; adibidez, "Ordizi", uri giputz ederra; "Ordierreka", Zestona'n errekatxoa; "Ordiñola", euskal-abizena: "Ordiza" euskal-abizen naparra; "Ordirez", gaur illik baiña 1356'ean oraindik bizirik ziarduan errixka naparra; eta abar.

BERAL: Iru aldiz dagerkigu: "Sub Sancto Bartolomeo de Beral" (Beral'ko San Bartolomepean). "Usque ad Beral" (Beral arte). "Trans Sancto Bartolomeo de Beran (Beran'go Bartolome Deunaren atzean). Erreka baten izena da. Aiztintxe aipatu du larruki onek, ORDIN ibaitxoak bere ur pittinak kokkorxeagoa dan BERAL ontara ekartzen dituala esaterakoan.

Itz au azterturik utzi nuan lengo larrukia aurkezterakoan. An onela zetorren idatzia: "Usque ad BERALI (Berali'raiño). Nere ustez, "BERALI" ori "BERAL" bera dugu datibo-eraz emana. Latiñezko gramatikaren araura ez daitekeala "AD" preposizio edo "aurreitza" datiboarekin alkartu? Erdiari garaieko lumalari aiek, ordea, oso gramatikalari baldarrak izan ziran.

Euskeraz BERA'k zer esan nai duan danok badakigu. Soilki isatsa bezala dakarren "L" orrek kezkatzen nau. ¿Zer ote da? "Ezabatutako "ALDE" baten ondarra? Orrela ba'litz, "BERAL", bere lenengo idazkeran BERALDE izango genuan.

Danadala Asuntzio-eguneko eguerdia bezain argia da bere euskalduntasuna.

OPAQUIELLO: "*pro medio Opaquello*" ("Opakiello'ren erditik"). Lengo larrukiak OPAKELLO zekarren. Bi larruki auen artean irureun-laureun urteren tartea badago-ta baleike tarte ortan izenak aldakuntza bat jasan izatea, "Opakello" "Opakelo" agoskatu bear dan bezala, "Opakiello" Opakello "LL" aurretik darmazkian "IE" oien eragiñez.

Ez du orrek garrantzi aundiegirik, esan bait dugu larruki auek maiz izan zira-la berridatziak. Oroi dezagun gaiñera antziñako Euskalerrri artatik kanpo eta lumalari erdaldunek izan zirala berridatziak. Orregatik ezin dezakiegu xeetasunei duten baiño jaramon aundiagorik egin.

Ez dut guzti ori nere jakintzarik-eza estaltzeko ekarri irakurleen begien aurrea, apalki birraitortzen bait dut OPAKELO edo OPAKIELLO orren etimologiarik ez dedala ezagutzen. Au bai: auxe gogoratu nai nuke: "IELLO", "ELLO" erdiaroko latiñaren atzizki ttipitasun adierazlea dala: "diminutiboa". Ortaz, itz ori, txikititasuna adierazteko euskerak dituan atzizkiak erabilliz, "OPATXO", "OPATTO", "OPAÑO", "OPALLO", ots, "OPA TXIKIA" izan daiteke.

Guk, gaurregun, "OPA"z asten diran tokiizenak baditugu: Opako, euskal-abizen naparra. Opakoa, euskal-abizen arabarra. Opakua, Araba'n mendatea, eta mendate orren maldan errixoa. Opalda, euskal-abizen laburditarra. Oparabidea, Araba'n Ulibarri-Arrazua izeneko errian, tokiizena. . .

Zer esan nai duan ez dakit. Ona zer dion Bernardo Estornes Lasa'ren Iztegi aundiak: "Opaku, "Opako entra en composición de algunos topónimos y apellidos" eta bere esannaia "lugar sombrío" dala diosku.

¿"Lugar sombrío", Bernardo? Gazteleraz bai! Baiñan euskeraz, ez! Gaiñera Opakua'ri XI mendean, 1025'an OPAUKUA esaten zaio. Ta orrela, izenak askoz euskal-itxura nabarmenagoa artzen du: OPAU-KO-A.

"KO" zer dan badakigu: nongotasuna adierazten zuan atzizkia: -"Nongoa zera? - Donosti'koa"

Zer ote da "OPAU"? Ori asmatzen dago koxka.

CORVEN: "*usque ad casa Conven*": "Korben deritzan etxeraño". Etxe baten izena da, beraz. baditugu bere itxurako izen zaarrak: 1225'an "CORBEIRE", Baiona'ko Adur ibaiean ugarte baten izena zan. Leenago 1080'ean, Piña'ko Yondoniane'ren lekaidetxeko Kronikak dioskunez, KORBINS (erromantzez Corbino) Santxo Erramirorena'k moroei kendutako gaztelu bat. Leenago oraindik, KORKORA Araba'ko Kuartango Aranean, gaur ezabaturik dagoan erri bat. Bizi zan oraindik 1075'ean. Baiñan urte ontako larrukiak KORKUERAO esaten dio. Esan dezadan berriro Aragoi euskaldunean ere "AO" atzizkia daramaten izenak aski ugari dirala.

Lengo larrukia aztertzerakoan eman nituan, izen orren sustraia, KOR, euskalduna dala ziurtzeko sustrai ori daramaten izen batzuk. Aipa ditzadan gaur Errioxa'ko Kordobin, ardo "klarete" bikaiña duan erria; Iruña-ondoko "Kordobilla"; Laburdi'ko Ziburu'ren auzoa dan "Kordillata"; "Koreaga" eta "Koreda" abizen naparrak; Korella, Naparroa'ko uri euskalduna; "Korniziaga" abizen bizkaitarra; "Kornoztegi" 1257'an Araba'ko erri ezabatu baten izena.

"KOR" ori zer dan ez dizu iñork esango. Nik, kixazko etimologi baten billa, 1257'ko erri arabar ezabatu orri beste dokumentuetan SORNIZTEGI esaten zaiola gogoratzuz "KOR" ori "SOR"en aldakuntza ez ote dan-edo pentsatuko nuke. Ez naiz ordea orrelakorik esatera ziur ausartzen, geiegi

bait dira "KOR" daramaten izenak, "KO" ori beste ezeren aldakuntza izan daitekeala esateko.

ZIGONAM: ". . . *et hinc ad Cigonam de hostes*" ("emendik etsaien Zigonan'era"). Esaldi orrek naitanaiez egon bear du kopilariren batek oker idatzia. "Hostis" latiñez "etsaia" da eta "hostes" etsaiak. Esaldi ortan ordea iñongo etsaiek ez du zer egiñik. Aurreneko lekaide idazleak –bera euskalduna zalarik– ez ote zuan or "OSTE" itz euskalduna ipiñi? Orrela ba'ltz, au izango zan esaldi orren zentzua: "*emendik Zigona'ren atzera*". Badut ordea ori ontzat artzeko eragozpen galanta: "Oste" itza sarkaldeko Eukerarena dala; larruki au, ordea, euskeraren sortaldean sortaldetar batek izan zala idatzia, eta orregaitik lumalari ark zentzu ortako euskal-itz bat erabiltzekotan, "oste" baiño milla aldiz erre-zago erabiliko zuala "gibel".

Itzaren azkeneko "M" a latiñezko "akusatiboaren" atzizkia da. Latiñezko deklinabidera sarturik datorkigu bâ tokiizen ori.

Daraman atzizkia "ONA" izan edo "NA" ("ONA"ren laburpena) izan, ZIGONA ezpairik gabe dugu itz euskalduna. Zer esan nai duan ez dakit, baiñan badakit ONA atzizki euskalduna dala, eta "ZIG" aurrizkiaz asten diran itzak asko ditugula. "Ziga", adibidez, Naparroa'ren iparraldean errixka bat da; "Zigoitia" Araba'ko aran menditsu baten izena; "Zigordi" ta "Zigorreta" abizen giputzak; "Zigarda" abizen bizkaitarra eta "Ziganda" naparra, eta beste orrelako batzuk, larruki ontako ZIGONA itzaren euskalduntasunaren alde lekuko ditugu.

GARCIHUALA. "*Et inde ad podium de Garcihuala*" ("Emendik Garcihuala'ren muñora", "podium" itzak orografian "muño esan nai bait du. Orra or dokumentu zar ontako "H" bakarra. "G" agoskatzeko dago idatzia. Bee Erdiaroko idazkeran oso-oso gutxitan agertzen dan "H". Eta orduan ere, ez Bee Erdiaroko lumalari zarrek idatzia, Goi Erdiaroko kopilariek sartua baizik. Orixe bera gertatzen zaio dokumentu ontako "H" orri ere: bee Erdiaroan idatzia ez dala. Esan dedan lez dokumentu au apokrifoa dalarik, Goi Erdiaroko lumalari batek idatzia bait da.

"HUALA" edo "GUALA" erromantze aragoitarraren atzizki ttipitasun-adierazlea dalarik, GARTZIGUALA" k Gartzino esan nai izan dezake. Itxuraz izen ori gizakume baten izena da.

Esan dezadan itz omen azterketa bukatzeko, Gartzia antziña artan ttipi-eran GARTXOT esaten zuala euskaldun-erriak. "OT" ori frantzerara beraren eta Frantzi'ko beste erromantze batzuen atzizki ttipitasn-adierazlea da, ele oietatik euskerara sartua. Ez zaitez arritu, bere edesti arrigarriki luzean beste ele batzuen eraginpen ugari artua bait dugu euskera zaarra.

LENITO: "*Et inde ad pennazo de Lenito*" ("eta emendik Lenito'ko aitzkonkorrera. "Pennazo" izen ortan, sustraia "penna", ots, "aitza" da; atzizkia "zo" erromantzearen aunditasun-zakartasun-gogortasun-adierazlea, euskaldunok "tz" atzizkiaren bidez ematen duguna. Aitzitzorrotz ordea agoskera latzegia litzake mintzoaren leguntasuna ta goxotasuna ain maite dituan euskerarentzako-ta, orregaitik nik "tza"ren ordez zentzu berdiñekoa dan "konkor" erabili dut.

"LENITO" izen orrek "LEN" du itzaren sustraia. "TO" euskal atzizki bat da: toki-adierazlea. Sustraia LEN duten izen geiago gure izkuntzan badugu: "Len-itz", aran giputza; "Len-ias" 1625'ean Ondarrabi'ko abizena; Len-tz Bizkai'ko abizena; "Lenk-aran, Gipuzkoa'n Mutiloa'ko auzoa: "Len-azpi" abizen giputza, eta abar.

LEN, Len-Aitz, "Peña Len", Naparroa'ren Erribera'ko arkaitz baten izena da. Edestiak itunki gorde duan izena, an izan bait zan 1054'ean erailla IV Santxo Gartziarena Errege euskalduna. Bi senide izan zituan eraille: Erramon bere anaia eta Ermesinda bere arreba. Maltzur auek arkaitzetik beera amilduz erail zuten beren anaia, au lasai gaillur artatik bere erreñuko zelaidi aren edertasun oparoa miresten ari zala.

Esan dezagun jostaketa-eran "LENA", gazteleraz "el Pasado", amabi kañoi zituan Baiona'ko itxasontzi korsari baten izena izan zala. Baiona'n bertan egiña. D'Anglade bat izan zuan kapitaiña.

HERAZA PATERA: . . . "*et inde ad Heraza Patera*" . . . "eta emendik Heraza Patera'ra". Orra or beste "H". Oraingo ori alperrikakoa. Oroi, esan-berri dedan bezala, larruki au ez dala IX mendekoa askoz geroagokoa baizik. Ortik alperrikako "H" ori or agertzea.

ERAZA 1688'an Araba'n Arrazua-Ubarrundi'ko Arroyabe'n soro baten izena zan. Gaur abizen euskalduna dugu. Bere etimologia "irratza" omen da; Gipuzkeraz, garadia. Baleike; "I"ren doñua sarri eman oi bait zan antziña artan "E"ren bitartez.

PATERA zer dan ezin asmatu izan dut: Araba ta Naparroa'ko nekazari-entzat, abereen gaitza bat da. Latiñez, berriz, –gure larrukiko itz ori latiñez idatzirik bait dago–, "patera" edateko erabitzen zuten ontzi bati esaten omen zioten "patera". Ta Euskalerrian, Benaparroa'n, gaur "zanaoria" esaten diogun barazkia omen da.

Gaztelarren ZANAHORIA" dalata zerbait esan nai nuke. Arabierazko "Safunariya" edo "isfannariya"tik omen dator, eta bi itz oiek gaztelerazko "patinaje" esan nai omen dute MARTIN ALONSO'ren "Enciclopedia del Idioma"k dioskunez (Madrid 1958).

Barka bekik On Martiñ'ek nere siniterik-eza, baiñan barazki batek txirritzaka ibiltzarekin zer ikusirik ez duala iduritzen zait.

Latiñez zanaoria "karoto" da eta itz ortatik artu dituzte bereak erromantze danek gaztelerak izan ezik. Baiñan baita inglanderak ere, frantzerara bitarte. Gaztelerak ordea "zanahoria" edo "azanoria", –izen bikoitz ori erabiltzen bai du landare ori-gorri bitamintsu ori adierazteko–, ez du orrelako itz ori latiñetik etorria. Ez omen zaio, eztare, germaniar-izkuntzetatik etorri. ¿Ez ote zitzaion bâ erdiarogaraiean euskeratik sartu? Itxurak zerbaiterako balio badu, bai "zana-oria"k ta bai "aza-n-oria"k ere badute euskalduntasunaren itxura naikoa. Gaiñera

Laburdi'n "zanaoriari" "zainoria" esaten diote. ¿Laburdierako "zana"- "oria" ortatik jasoa ote du bâ gaztelerak bere "zanahoria"?

¿Bai ote? Badituz ba nik eragozpen bi iritzi ori aintzat artzeko:

– Aurrenekoa: Laburdi Gaztelerritik urrutiegi dagoala, laburdierako itz batek gipuzkeraren gaiñetik gaztelerara igaro aal izateko.

– Bigarrena: Laburdieran bertan itz ori berria izan daitekelako bildurra. Azkue'k berak agertzen du kezka ori bere iztegia. Arazoari askapenik emateke. Baiña kezka agertzen du.

SARDASO. Itz au ere aztertua dut. Esan dezadan orain, –TSO atzizki ugari-tasun adierazlea dala mundu guziak badaki-ta–, gaurregun Naparroa'ren sortalde guztian Erronkari'tik Korella beraraiño SARDA gaztelarrek "monte bajo" esaten diotenari esaten zaiola.

Esan dezadan beste zerbait, itz orren euskalduntasunaz: Euskerazko "Z" erdaldunen ezpaiñek "S" maiz biurtzen dutelako, SARDASO'ren "SAR" eta ZARTZA'ren "AR" aurrizki bat bera izan daitezke, ta "DA" ta "TZA" atzizki toki-ta-ugaritasun adierazleak ditugulako, "Sarda" ta "Zartza" aideak izan daitezkeala. Ez da neri gogoatu zaidan gauza, Corominas jakintsuari baizik. Onen iztegiara joaten ba'zera "Sarda" itzari-buruz argitasun billa, "Sarda" itzetik "Zartza" itzara bidaliko zaitu, eta or, "Zartza" gaztelarari euskeratik otirri zitzaion itza izan daitekeala.

LORIEDO: "Usque ad ballato de Loredio (Loredio'ko esia arte). Nere ustez Loredio'k badu Loredio'ren antza, baiño bere baitan dakarren "I" orrek Loredi ta "lore"z asten diren itzen senitartera dakar. Loredio ta Laredo izan daitezke itz bat bera "O" ta "A" maiz alkar-trukatzen diralako. Era berean izan daitezke bat Loredio, Loredi ta Loreti. Loredio, gaur egun, Bizkai'n Abanto-Zierbana'ko auzo bat da. Eta beste auzo bat Truzios'en. Baita abizen euskalduna ere Bizkai'n bertan. Abizen ortakoa zan XVI mendean Pedro Portugalete'ko mariñela, "Concepción izeneko ontziaren kapitain bezala 1519'en Magallanes'ekin ludiaren inguraketa egitera irten zana, Ekintza ortan galdu zuan bizia. u t

LORETI III mendean, orduan zearo euskalduna zan OSKA edo Ueska uriko arresietatik urbil landa-etxe polit baten izena.

Land'etxe ori'a Lorentzo Deunaren gurasoena zan, ta ainzuzen antxe bertan jaio zan Lorentzo Deuna bera. Nere iritzi, ortik sortu zitzaion izena: Laurentius, agoskeraz LORENZIUS. Lorentius itzak Loreti'koa esan nai bait du. Landa etxe ura bazala eta izena Loreti zuala, eta Lorentzo Donea an jaio zala agoz-agozko jakintzaren bidez dakigun gauza da, baiña Aitasantuen idazkietan ere azaltzen da. Agoz-agozko jakintzak, bere aldetik, beti aitortu izan du Donelorentzo matxardean erretako diakono donea Oska euskaldunean jaio zala. Orixek ere badio bere Meza-Liburuan Done orren mezaren sarreran "Laurentius" ez dala latiñazko izena.

LAREDO, len Bizkai'ko Enkarterrietako bat izan zan Laredo gaur Santander'ko uri bat da. Baleike an jaioa izatea Juan Lakosa XV mendean azkenaldeko ta XVI'aren asierako mariñel ospetsua. Berak "Juan vizcaíno" esan oi zion bere buruari.

Gipuzkoa'n bada Aralar mendian "D" galdu duan Laredo bat: LAREO. ¿Bere etimologia? Baleike itxasertzeko Laredo'rena eta artzain-lurretako Lareo'rena berdiña ez izatea. Nik, beldur aundiz, Lareo'rena LARRE-O, gaztelaraz "pastizal", "lugar de pastos, izan daitekeala esango nuke gure euskeraren altzoan, batez ere antziñako denboretan, maiz ibilli bait dira naasirik "R" ta "RR" izki biak.

CABANIAS: ". . . *et inde ad podium de Cabanias*: Cabanias garai zar aieta-ko ortografiaren araura, CABANAS irakurri daiteke. Orrela ba'litz latiñazko idaz-

ki batera lumalari batek sartutako itz erromantzearra izango litzake. Ta orrela izango da seguruaski; euskeraz TXABOLAK edo TXABOLETA.

"ETA" edo bere lapupena, "TA", da batera tokitasuna ta ugaritasuna agertzeko euskerak duan atzizkirik ziurrena. Azken-urte auetan erderazko "polideportivo" euskerara biurtzeko "polikiroldegia" idatzi dute gure kiroleterako ormetan Euskaltzaindiaren giroko itzultzaileek. Amaika orrelako txepelkeri egin digute! KIROLETA bear zuan. ¿Ez ote dakite itzultzaile oiek eleneazko "poli" aurrizkiaren zentzua emateko euskerak "eta" atzizkia erabiltzen duala? KIROLETA beraz. Kiroldegia ez litzake naiko, kirol-mota bakar baterako gertututako tokia ere KIROLDEGIA bait da.

FONTEM PUTIAM: ". . . *et inde camino camino usque ad Fontem Putiam*. *Fontem*, akusatibo-eran, "iturri" da euskeraz. Putiam, akusatibo-eran au ere, zer izan daitekean asmatu egin bear ko dugu. Klasik-aroko iztegi latindarretan ez dator.

Guk erdiaroko latiniaren iztegi bi ditugu gure bibliotekan: Blaise'rena ta Cange'rena. Ez dakarre itz ori, baiñan azkeneko onenak itz orren itxura aundiko beste bat badakar: "Putiatorium", eta ori klasikoen latiniñez "salinarium" dala dio. Bâ "putiatorium" "gazi-toki" ba'da, "putius, "gatzaduna" izango da, ta FONTEM PUTIAM", ITURRI GAZIA.

"Camino camino" erromantzeko itzez jantzitako esaldi euskaduna dala esan dugu. *Camino camino usque ad Fontem putiam*": "bidez-bide iturri gaziraiño".

CASTELLON: ". . . a la pardina de Castellon" ("Gatelaundi'ko larrebillara"). Ez itz orrek axolik merezi. Edozeiñek ikusi bait dezake erromantzeko itza dala.

SORIELLO DE CANPANYAS: "*Voluntate et assensu dicti domini regis dedit ei*" ("et" bear lukela dirudi) Soriello de Canpanyas ("aitortu dugun erregeak bere naimen onez eta oniritziz eman zion, baitare, Campanyas'ko Soriello").

"NY" erdiaroan "Ñ" idazteko era ezberdiñetako bat zan, "NH" bezala. Gaur bertan CATALUNYA idazten dute katalauniarrek beren aberriaren izena, portugaldarrek izen ori Catalunha eta gaztelarrek Cataluña idazten duten bezala. Beraz. Iarruki ontako Campanyas ori Campañas irakurri bear dugu. Erromantzeko itza au ere.

Zer ote dugu SORIELLO? Nere ustez, izen au SORI-ELLO edo SOR-IELLO ebaki bear dalako, euskal-sustrai bati erromantzeko atzizki bat eratsiz sortutako izen bat.

"Ello" ta "lello" (erromantzearen atzizki ttipitasun-adierazleak dira.

Sor-iello erabaki nai ba'dugu, ez litzake Euskalerrian izen bakarra izango, sustraitzat "SOR" duten itzak euskerak baditu-ta. Asko gañera, baiñan ez dizu iñork bere etimologiarik emango.

SORI-ello ebakitzen ba'dugu berriz, SORI izen euskalduna aterako zaigu begien aurrera.

Beti uste izan dut nik itz ori euskalduna dala. Euskalduna du beintzat "ORIA" atzizkia. "S" aurre-izkia, ezabatutako itzaren baten laburpena da. Zeren laburpena jakiterik ez dago.

Erromatekoan, gaurko Soria'ren albo-alboan zegoan Garray, edo Garay, gure "R"- "RR" izkiekin zer egin ez zekitela ibilli bait ziran erromatarrak. Gero, Erdiaroan, Soria'ren arremian guztiak Euskalerriarekin izan ziran, orduango gure Erreiñuaren barruan egon bait zan uri polit ori, IV Santxo'k, bere senide bi aiek –Erramun'ek eta Ermesinda'k– Len-Aitz'etik amildurik bizia galdu zuanean Gaztela'ko VI Alfonsotxo'k Errioxa koldarki lapurtu zuan arte.

ARANNA: ". . . *pardinam de Aranna*" ("Aranna'ko larrebilla"). Tokiizen euskaldun onekin bukatuko dugu larruki ontako toponimoen ikerketa. "Aran" euskalerrian edozeinek daki zer da: "Valle" gazteleraz, izen-era edo nominatibo-eraz "Arana", "El Valle".

Larrukiak itz ori bi "NN"z damaigu. Berez izki bikoitz ori, "NN", askotan "Ñ"ren ordez erabili oi zan, baiña oraingo ontan, nere ustez, bikoizatze orrek garrantzirik ez du ta "N" bakarra ba'litz bezala izan bear du irakurria. Erdiaroko lumalari aiek orrelako ajolagabekeriak maiz egiten bait zituzten.

LAKUNIELLA: ". . . *et illa pardina Lakuniella*". Onen aurreko larrukiak, apokrifoa ez zan arek, "pardina" edo "larrabill" orri LAQUNALA esaten zion: "*et illa pardina Laqunala*". Itz polita jostaketarako.

"LAKU", (izen-keran, ots, nominatibo-eran "LAKUA"), latiñezko "lacus", ots, gaztelerazko "lago"tik datorrela esan oi da arintasun aundiz eta ganorgabeke-ri aundiagoz, Euskalerrian izen ori, geologi-aro zaarrak ezkerro sekulan "lago" edo aintzira bat izan ez dan tokietan ugari agertzen dala oartzeke.

Lakua edo Lako, ("A" eta "O" errez azaltzen zaizkigu bata bestearen lekuan-da) "LAGO" edo toki ugarietan aurki dezakegun itza da: Lakoa, Lakua, Lakoa-ga, Lakube, Lakoitz, Lakoizketa, Lakonbe, Lakoaste, Lakuntza, Lakuaga, Lakuñaga, Lakutxa, Lakuitz, Lakunbere Lakunberri. . .

– Adizak, *Bixente*, –*esango dit bearbada adiskideren batek*–: *Naparro'an, Larraun'go lurretan, Aralar'ko Maill'o'ei begira, baduk Lekunberri izeneko erri bat. Ik aipatu diguken Lakunberri ori ez ote duk Lekunberri'ren aldakuntza?*

– *Orra bâ: nik, bi izen oiek bata bestearekin zer ikusirik ez dutela esango nitek, eta izatekotan Lakunberri Lekunberri'ren aldakuntza ez baiña Lekunberri dala Lakunberri'ren aldakuntza.*

– *Ori, ordea, zergaitik?*

– *Lekunberri'ren barrungo "N" orrek or egoteko arrazoi argirik ez duan bitartean Lakunberri'ren barruan egoteko arrazoi sendo bat badualako: Arrazoi txit argia benetan: "N" euskera-baitan "REN" "genitibo" edo "norenkerazko" atzizkiaren Ispurpena dala! LAKU'N BERRI, edo berdin dana, LAKU'REN BERRI. Gazteleraz, "MOTICIA (o MENSAJE) DE LAKU".*

*

LAKU izen-duten tokiak –eta aurrizki edo atzizki lez LAKU daramatenak–, toki sagaratuak dira. Jentillaroko sasijainko euskaldun baten izena bait da LAKU. Bere aldare bat Naparroa'ko Uxue (Ujue)'en zegoan. Or agertu da bâ, ainzuzen, aldare orren arrizko "ara" edo aldar'ola. Zarra. Erroma'ko Errepublikaren garaiekoko edo Inperioaren asierakoa, ots, gutxi-gora bera Kristo jaio zan urtearen ingurukoa.

Au da, berriz, aldare-ol orrek idatzirik daraman mezu bakarra: "LAKUBEGI DEO", euskeraz, LAKU JAINKOAREN BEGIARI.

Beste itzulpen batzuk ere egin daitezke: "Lakubegi jainkoari (Lakubegi izen bat ba'litz bezala), "Laku'ko Begi jainkoari" (sasijainkoaren izena "Laku" ez baiña "Begi" izan ba'litz bezala).

Danadala, neri, apalki, nik egin dedana iruditzen zait egokiena: **Laku Jainkoaren begiari.**

*

Piña'ko Yondoniane'ren Lekaidetxeko bi dokumentu auetan, illaren eta egu-naren aipurik gabeko 828'koan, eta urte ortako dagonillaren 25'koan, naiz era ezberdiñez, bietan agertzen zaigu sasijainko onen izena. Esan dut, bi doku-mentu, oietan aurrenekoa zintzoa dan bitartean bigarrena apokrifoa dala: Biga-

rrren ortan, apokrifoan, ttipieran: LAKUNIELLA. Aurreneko artan, egiazkoa dan artan, era txukunez LAKUNALA. Esannai ederreko izena, LAKU'N ALA edo, laburketarik gabe, LAKU'REN AALA; gazteleraz "EL PODER DE LAKU".

Bi dokumentu oietan Laku sasijainkoaren izena tokiizen bezala datorkigu.

*

– *Jentiltasunean ere jainko baten izena mendi, alor edo iturri bati ematea ¿ez ote uan jainko orri eraspena galtzea?* –galde-egin dezaidaket lengo adiskideak–.

Ez adiskide, ez. Ori txit gauza atsegiña zitzaieken jentillei, eta maiz egin oi ziaten ori. Berdin kristauok ere. Ire ingurura begiratzea naikoa izango duk, mendi batek edo iturri batek Done baten izena daramala ikusteko. Baita Kristautasunaren misterioaren batena ere: adibidez Asensiomendi Leniz eta Aramaiona arteko mendi bat dala badakik; eta, baita Trinitatemendi Naparroa'ko beste mendi batena dala ere.

*

LAKU izena daramaten toki guztien artean aipagarriena, Araba'ko Arriaga'ren alboko zelai bat da ezpairik gabe. Or egiten bait zituan antziña-antziña Araba'ko Eusko-Laterriak bere Batzarrak. Arriga'ko Lakua'n alkartzen ziran Araba'ko ordezkarien billera ari "kofradi" esan oi zitzaion: ARRIAGA'ko KOFRADIA, gazteleraz LA COFRADIA DE ARRIAGA.

Arria'ko Laku'n egien ziran batzar oietan, bere buruaren jabetasun osoz aztertu oi zituan Araba'k aldiz-aldiko arazoak, legeak eman, eta Jaurilaritza ta Epailletza gertutu. Jaurilaritzarako lau alkate aukeratu edo "deputatu" oi zituzten. Lau alkate oiek ziran Araba'ko lenen Diputazioa. Justiziaren zaintza ere lau alkate oien eskuetan ipintzen zuten eta lau oietako bat zan Epaille Gurena. Berea zan edozein auzitarako azken-epai-itza.

Badute gaiñera Arriaga'ko Kofradiaren billera aiek gizartearen aldetik, oraindik oartu ez geran izugarrizko garrantzia, mundu guzian feminitasunaren igi-kunderik zaarrena Lakua'n biltzen zan Arriaga'ko Kofradiaren izaera ta jardunkera bait da. Izan ere an, mundu guzian emakumea gizarteko arazoetan deusez baiño askoz geiago ez zanean, an, Araba'ko Lakua'n, Laterriaren legegille, jaurleri ta epaille nagusi bezala Araba'ko *gizonezkoak eta emakumezkoak biltzen bait ziran*; ". . . en Arriaga se reunen los hombres y la señoras de Alava". Ori, X Alfonsok 1258'an idatzitako dokumentu batek oroitzen digu.

– *"Es de destacar la presencia femenina en los poderes públicos alaveses"* dio Idoya Estornes Zubizarreta edestilariak⁵.

– Bai, Idoyatxo, bai. ¿Nola ez dun bâ "de destacar" izango, Idoyatxo? Mundu guztian dokumentu feministarik zaarrena bera dun-da!

*

Neri ordea, Arriaga'ko Kofradia noizkoa dan ez dakigulako, orain beste gauza bat zait batezere aztergarri. Kofradi ortaz mintzatzen zaigun dokumenturik zaarrena 1258'koa da. Baiñan ordurako oroitze-oroiz-aurrekoa zan bere sorkuntza. ¿Noizkoa? ¿Kofradikideek Lakua izen sagaratu bat zala oraindik oroitzen zuten garaiekoa? Orregaitik ainzuzen Arriaga'ko errian bertan ez baiña Arriaga'ko Lakua'n biltzen ote ziran?

Galde onek, ordea, ¿edestia-zear noraiño garamatza? Gure "protoistori, edo aurrenedestiraiño? ¿Gure preistori edo edestiarraiño? ¿Bai ote zekiten Lakua'n aurreneko Batzarra egin zuten Jaun eta Andre euskaldun aiek, Laku

⁵ "Enciclopedia General Ilustrado del País Vasco": II, 591-593.

jainko bat zala eta Lakua zeritzan landa jainko orri eskaiñitako landa sagaratu bat zala? ¿Orregaitik ainzuzen bildu ote ziran landa sagaratu artan erri berari muziñ-eginda? ¿Laku jainkoaren laguntza-billa?

¿Zer ote zan lortu nai zutena? Arazoak egoki ikusi aal izateko ¿Laku jainkoaren BEGI oro-ikuslearen argitik izpi bat?, ala ¿legegintzan kementsu ari aal izateko Laku jainko alguztidunaren AALA'gandiko txinparta bizkor bat?

Guzti ori noski ez da egia izango. Ez dugu beintzat ori sendo aitortzeko arrazoi ziurrik. Alare... alare... alare..., izan daitekeala beintzat... ezin eskier ukatu! Jainko zar aren izena, LAKU, or bait dugu lekuko.

Itzul gaitezen ordea azturik laga dugun gure larrukira.

* * *

LARRUKI ONTAKO GIZAIZENAK. Lengo larruki artako aiek berberak dira. Orregaitik zerbait berri esatea merezi dutenak bakarrik aipatuko ditut bigarren larruki ontan. Besteak aurrenekoan azterturik utzi bait nituan:

GARSIAS SEMENONIS rege de Pampilona. Misteriozko gizona, Gartzia au. Bi larrukietan agertzen da baiñan 828'an ez zitekean Iruña'ko errege izan. Urte ortan Iruña'n erregerik izatekotan errege ori Eneko Aritza zalako. ¿Zeiñ ote zan bâ 828'ko Gartzia Jimenorena? Roda'ko "Generalogiek" aipatzen dute garai ortako eta izen ortako Buruzagi euskaldun bat Eneko Scemenonis buruzagiaren anaia omen zana. Bigarren buruzagi au Eneko Aritza Iruña'ko lenen erregea ote zan? Baleike. ¿Errege onen anaia ote zan bâ bi larruki auetan agertu zaigun Garsia Scemenonis ori? Nork jakin!

Oraindik denbora gutxi arte, edestilariak Garsias Semenonis edo Gartzia Jimerona au euki dute Iruña'ko lenen erregetzat. Orrela Garibay, Moret eta beste asko ta askok. Nik neronek "el primer rey de Navarra fue Garcia Jiménez que fue alzado por rey en Abárzuza aunque otros dicen que en la Borunda" ikasi nuan batxilleratoan.

Gaur, ordea, ago bateko dira edestilariak Gartzia au ez zala beiñere errege izan esateko. Ona Espasa Iztegiaren iritzia: "*Las únicas pruebas que pueden aducirse a favor de García Jiménez son muy posteriores a su época; son de 1655*".

Ori beintzat egia ez dala badakigu, García Jiménez agertzen bait da aztertzen ari geran 828'ko bi larrukietan. Argi agertzen da gaiñera errege bezala: "*Garsia Scemenonis rege de Pampilona*",

aurrenekoan, eta "*Garsias Semenonis rex Pampilonensium*"; eta larrukia izenpetzerakoan "*regnante me rege Garsea Semenonis in Pampilona*". Ta izenaren alboan bere ikurra dator itz auen ondorean: "*Signum Garsea Semenonis regis*".

Egia da bigarren larrukia apokrifoa dala. Aurrenekoa ordea egiazkoa da.

Baiñan badugu baitare beste eragozpen bat: Eneko Aritza, Iruña'ko lenen erregeak, bere erregetza 850'ean asi zuala uste dute oraingo edestilariak. Gure bi larrukiok, ordea, 22 urtez leenagokoak ditugu: 282'koak. ¿Eneko Aritza ez baiña Gartzia Enekorena izan ote zan bâ Iruña'ko lenen erregea? Ori, ordea, oraingo edestilariak uste dutenaren aurka joatea izango litzake.

¡Illunak dirala, irakurle, eusko-erregetzaren asierako garaiak!

¿Nola illuntasun ortan argirik piztu? Ni beintzat ez nauzu ori egin aal izateko gai: Eta gai ba'litz ere en nuke ortarako betarik izango. Ta naiz gai izan eta naiko betarik ere izan, ez nuke ori egiten asteko au toki egokia izango, aski luze bait daramat idazlantxo onekin.

*

Orduango izenen jatorriari dagokienez, esan dezagun Gartzia ez zala oraindik izen kristaua. Ezta Jimeno ere.

GALINDO. Au ere izan kristaua ez da. Izen ortako donerik beiñere ez bait da izan

ORIO. Kristaua ez zan izena au ere. "*Oriol in Boltaña*". Erri au Arpegain izeneko dukaterriaren uriburua zan eta Oriol bertako dukea. Erromatarrek izena euskeratik latiñera zintzo jasoz Arpegain orri "SUPER ARBEM" izendatu zuten, eta ortik sortu zitzaion erromantzeko izena: SOBRARBE. Oriol dukea bigarren larrukiaren amaieran dator lekuko lez. Orrela datoz ondorengo Mantzio, Santxo ta Atilio ere.

ATILIO. ZELA'ko Yondoni Marti'ren zenobitegiko Abata. Izen ori jatorriz ATILA da, itz au Atilius biurtu bait zuten erromatarrek latiñera. Ez dakit larruki auen urtean izen donea zan. Ez dakit ezta XI mendearen azkenean Asturi'ko erreinuan bizitu zan Atilano izeneko anakoreta bat bi larruki auetako bigarrena, apokrifoa, idatzi zanerako erriak kanonizaturik zeukan.

SANTIUS, Jaka'ko gotzaia. Ez dakit apokrifoa idatzi zanean Santius erriak donetzat artua zeukan, baiña izan zan IX mendean izen ortako Done bat, euskalduna, Santius izena SANTXO izen euskaldunaren latiñeraketa bait da. Euskalduna zan bâ SANTXO DONEA. Arabarra dirudianez, GALLIA COMATA'koa, dokumentu zarren esaeraz.

Galia antziñaz gero Frantzi'ri esan oi zitzaion: Sortaldekoari *Galia Bragata* ("Gali Praxaduna) eta sarkaldekoari *Galia Comata* ("Gali Kalparduna"). Ez zaidazu galdetu nor eta zergaitik Gali bikoitzari izen parragarri oiek ipiñi zizkion, inork ez dizu zentzuzko erantzunik emango-ta.

Arabitarrek, ordea, Araba'ko euskaldunekin borroka biziak ia urtero izaten zituzten-da, bereiziki Araba'ri esan oi zioten Galia Comata. "Galia" egoaldetik iparreruntz begira lurralde kristau guztiari ematen zioten izena zalako. "Comata", berriz, erromateko Galia'ren izengoiti zarra agian gudulari arabarrek kalpar luzeko mutillak zirako, berbiztu zuten.

Gure Santxo, mutiko zala, Araba'ko Asparrena'n izan zan batzuek uste dutenez, arabiarrek atzilotua, eta Kordoba'ra eramana, an jopu izateko. Baiñan itxura ederreko mutilla, ta argia, zan noski-ta, esklabutzatik, Kalifa beraren jau-regizaiñen artera sartzea lurtu zuan. Geiago dana, Laterriak berak artu zuan aren eziketaren ardura. Nolabait Kordoba'ko kristautasunaren buruzagirik eza-gunenarekin, ots, Eulojio Doneare'kin egin zuan. Pozik artu zuan euskaldun gazte ura, ordurako Euskalerrian ain pozik ibillia zan Eulojio Doneak. Ez dakigu zer gerta-ta izan zan kristau zalako espetxeratua. An 851'ko uztaillaren 5'ean izan zan ezpataz martiri erailla, Eulojio Doneak berak dioskunez. Bere gorpua aga batetik zintzilika egun batzuetan egon-da errea izan zanez gero bere erraultsak Guadalkibir ibaiera jaurtiak izan omen ziran.

MANCIUS DE ERIL IN PETRA FITA". Mancius ori, seguruaski, AMANCIUS izango da. ¿Zergaitik iruditzen zaidan ori? Mancius izeneko gotzai bat XI mendean maiz agertzen bait da 1013'az gero: "*Mancius episcopus in Aragone*". Bai beintzat 15 aldiz, eta uste izatekoa kristaua izango zala gotzai baten izena. Alare ez litzake arritzekoa izango kristau ez izatea XI mendeko gotzai baten izena, Mantzio gotzaiaren aurreneko agerpena baiño lenxeago, 1005'ean, Santxo Garciaarena gure erregearen larruki batean, gotzai batek Belasco bait du bere izena: "... *domno Belasco episcopo in Christi potentia*". ¿Goztai ori nongoa zan? Larruki ortan ez damaigu bere nongotasunik, baiña bai urte bete leenago, 1004'ean, errege beraren beste larruki batean: "... *episcopo Blasco in Sasabe*".

Elizgizon ez ziraden artean ere txit ugaria izan zan Mancius, Mancio, Manciones edo Manziorena. Zortzi agertzen dira Piña'ko Larruki auetan bakarrik: Galindo Manciones (Galindo Mantziorena) eta Mancio Datones (Mantzio Datorena) aurrenekoak egunaren eta illaren aipurik gabeko X mendeko larruki batean, eta azkenekoa Mancio Lupi de Elesuni (Mantzio Otsoarena Elesu'koa).

Lau erri agertu zaizkigu azkeneko esaldi ontan: Sasabe, Elesu, Eril eta Petra Fita. Lauak Aragoi euskaldunekoak.

SESABE, Sesabi ta Sasabe erri bat beraren izenak dira, Gotzai uri izan zan naiz asti laburrez. Peña'ko larrukiok Sasabe'ko bi gotzaiaren izenak damaizkigute: Blasco au, eta onen aurreko Ato. baiñan gogoan gorde bearra da Aragoi zarrean XI mendeko gotzaiei bereizketarik egiteke, berdin esan oi zaiela Aragoi'ko, Sasabe'ko edo Oska'ko gotzai.

Sasabe'ren "Sasa" "saratsa"ren laburpena izan omen daiteke. Bai noski, baña baita "isatsa"rena ere, edo "sasi"ren aldakuntza. Danadala "Sasa", –eta ondorioz Sasabe–, izen euskaldunak dirala zalantzan jartzetik ez dago.

A. Irigoyen'ek itz ortan oiñarritutako toponimi ugari baten zerrenda damaigu Enc. Gnl. Ilus. del País Vasco iztegian.

Madoz'ek 1848'ko bere Iztegian, Oska uriaren lurraldeko SASA del ABADIANO izeneko erri bat bat damaigu, "lugar junto a un pequeño arroyo en medio de un bosque de olivares y viñas, cuya posición es sumamente pintoresca". ¿Bizkai'ko Abadiano'rekin aidetasunik bai ote? Gureztat garrantzirik ez duan galdea. Abadiano, ez Bizkai'n ez Aragoi'en, izen euskalduna ez bait da.

Eta SASA "TS"ez idazten ba'dugu, SATSA biurtzen zaigu. Ez noski oso izen txukuna, ia Euskalerrri osoan zikinkeriarri lotuta dagoan itza dalako. Kontuz ordea: Benaparroa'n Satsa SARATSA bait da! Ori kontuan artuz bai, antziña artan Benaparroa'ko euskeraren dizdira Erronkari-zear Jazetani'ra iristen ba'zan, eta iristen zala egia ba'litz, zillegi izango lizaiguke Sasabe SARATSABE, izan daitekela ontzat artzea.

– ELESU: Badu Aragoi'ko izen onek Araba'ko ELOSU eta Gipuzkoa'ko ELOSUA'rekin aidetasun nabarmena.

Elosu Araba'n erri polit bat dugu muño txiki baten gaiñean Legutiano'ko aintzirari begira, eta Elosua Gipuzkoa'ko auzo bat Bergara-gaiñean.

"Elosu", "elortsu"ren laburpena da, eta au, "elorritsu"rena, gazteleraz, "lugar da abundante espino albar". ¿Zer ote da ELESU, ots, ELETSU? "Ele" asko duan tokia". Bai. Baiñan ¿"ELE" zer ote da?

Zegoan tokian, ots, Aragoi'ren iparraldean zegoalako, naitanaiez izan bear du izen euskalduna. Gaiñera asko ta asko dira Euskalerrri osoan "ELE"z asten zaizkigun izenak. Adibidez Elea Araba'ko bi erritan, Aiñez'en eta Margarita'n, tokiizena da; Elegi, Naparroa'ko Ezkabarte'n 1427'rako Orrio erriaren alboan usturik zegoan errixka; Eleta, Benaparroa'n erria.

Izen geiago emanez aurrera jarraitzeke, esan dezadan Aragoi'ko ELESU ura bezalako beste ELESU bat badala gaur Bizkai'n; leiza bat; Santimamiñe'ko leiza ospetsutik bertan, Ereño'n. Eta leize ortatik ez urruti, Kortezubi'n izen bereko osiña.

Beste zerbait ere esan nai nuke ELE erromatekoan Auñamendi'ko euskaldunek gurtzen zuten jainko jentil baten izena dala. "Elexalde" ta "Elejoste" bezala "eliza" itzetik ez datozten "Ele"z asitako toponimo guztiak ez ote datoz jainko jentill orren izenetik? ¿Ez ote dira jainko orri eskaiñitako "leku sagaratuak? Oroi Araba'ko LAKUA deritzan landaz eta LAKU izeneko jainkoaz esan duguna.

ERIL. Eri-I. Sustria "ERI" duten tokiizen eta abizenak txit ugari dira Euskalerrri osoan, batez ere Gipuzkoa'n, Araba'n eta Naparroa'n. ERIL au Jazetani'koa zan. Azkeneko "L" orren zergaitirik ez dakit. Nere ustez "LL" izan daiteke. ERILL bat Araba'ren sortaldean 1781'ean Bujanda erriko alor baten izena zan; Erillas (Erillats) Araba'n bertan Urizar (Peñacerrada)'n larre bat 1650'n, eta Aiala'n (Araba'n au ere) mendi bat. "Eri"ren etimologia zer izan daitekean iñork ez daki. Esanik utzi dedanez, etimologi ori "problemática" omen da, ots, asma-kaitza, eta "Eritz" "tierra comunal" dala diote, euskeraz "erriaren lurra".

PETRA FITA. Au ere Ipar Aragoi'ko izena. "Petra" latinez "arria" da. "Fita" ez da latinezko itza, erromantzekoa baizik, latinezko "fictus" "ficta" "fictum"dik datorrena. Bere esannai ugarietatik guri larruki ontarako egoki dator-kiguna, gaztelerazko "hito" edo "mojón", euskeraz "mugarri". Ortaz "-PETRAFICTA" gure izkuntzara "Muga-Dagin-Arria" itzuli bearko genuke, edo, soilki, "Mugarria".

* * *

LARRUKI ONTAKO DONEIZENAK. Izen auek ere aurreneko larruki artakoak berak dira. Aipa ditzadan zerbai berri eskatzen duten aiek bakarrik:

IRUTASUN DONEA. Lengo larrukiaren lumalariak onela satu zan bere lane-ra: "*In nomine Sancte et individue Trinitatis, immensa maiestas et alma Tinitas, que et Pater et Filius et Spiritus Sanctus, sub divino imperio Domini nostri Ihesu Christi*": "Yosu Kristo gure Jaunaren jainkozko agintaritzapean Aita ta Semea ta Gogo Deunak osotzen duten aunditasun neurrigabeko ta trinitate bizi-emaille dan IRUTASUN done ta zati-eziñaren izenean..."

Bigarren larrukiarenari, gogorra iruditu zitzaion noski Irutasuna, Yosu'ren agitaritzapean ipintzea eta kendu egin zuan esaldi ori: "Aunditasunez neurrigabe-koa ta irutasun biziemaillea dan, eta zertasan bateko ta berdiñeko Aitak eta Semeak eta Gogo Deunak osotzen duten Trinitate Donearen izenean"⁶...

MARTINUS episcopus et confessor Christi: "Martin Gotzaia ta Kristo'ren aitorlea". Turona'ko Martin Donea da, Euskaldunek YONDONI MARTTI izenda-tua. Esana naiz oso gutxi dirala YONDONI izengoiti aitzakorra euskaldunengadik irabazi duten Doneak. Millaka doneen artetan AMAIKA. Kistoren denboraz ondo-rengoak LAU bakarrik: Larruki ontako Martin, Tolosa'ko Saturnino (YONDONE XATORDI), Tarragona'ko Fruktuoso (YONDONI MURTUTX), eta Oska'ko Bixente (YONDONI BIXINTXO). Besterik batere ez. ¿Zergaitik lau aiek bakarrik? Euskalerrin kristautasuna ereite-lanean garrantzi aundia izan zutelako.

... cum Petro et Paulo: et cum Michaele archangelo. Esan dut done gutxi izan dirala Euskalerrin "Yondoni" izengoitia jasosuenak: Kristo'ren garaiekoak LAU, YONDONI PETIRI, YONDONI, YONDONIANE (Yon Batailaria), ta YONDONI EZTEBE; eta aingeruen artekoak IRU goiaingurak: YONDONI MIKEL, YONDONI GABRIAL eta YONDONI RAFAEL.

⁶ Larruki zaar auen idazkerara oiturik dagoanak, aurreneko lumalariaren asmoa ez zala Irutasun Donea Yosukisto'ren agintaritzapean ipintzea. Egia. Lumalari aren itz oiek onela ulertu bear bait dira: "*Yosukristo'ren jainkozko agintaritzapean diot nik ori*". (Eta orren aurreko guzia berak idatzi zuan bezalaxe.

... cum alma MARIA: "Alma" ori antziña sarri erabilli oi zan itza, gaur unibersitatei bakarrik erasten zai aintzagarriztat eta beti "ama" "mater" itzarekin batera: "Alma Mater Universitas... Ederki alkartu oi dira bi itz oiak: "alma mater" biak zentzu berdiñekoak bait dira: bizi-emailleak.

Beraz, "cum alma Maria" esatea "ama Maria'rekin esatea bezala da.

SANCTUM CHRISTOFORUM DE CIELLA: Zela'ko Kristobal Donea. Ez noski maiz, baiña noizbeinka bai, Eusko-okumentuetan agertzen zaigun Donea. Maite izan zute Konpostela. bisdeko erromesek. Orregaitik Done aurreneko dokumentuak, 828'koak ez du aipatzen; XIII-XIV mendeko apocrifoak bai.

... et **SANCTO BARTOLOMEO TRANS BERAL:** "Beral-osteko Bartolome Donea" Au ere, Donebartolome, Kristo'ren garaikoa da, baiña ez du "-YONDONI" deitua izaterik lortu. Ez bait zuan Euskalerrriaren kristauketan zeregiñik izan. Esan dezadan izkirimiri lez, irakurketa alaitzeko Tolosaldean gdertatua omen dan au. Alade oran Ibarra'n San Bartolome egunez dituste pastak; Berastegi', San martiñ'ez eta bien erdian erririk txikienean, Berroni'n San agustiñ'az.

Igo omen zan bâ pulpitura San Agustin eguneko meza nagusian Berrobi'ko parrokoa, eta bete-beterik zegoan Elizen aurrean onla asi omenzuan bere sermoia:

"¿Zer balio dutu Ibarre'ko Bartolo'k eta Berastei'ko Martintxo'k gure San Agustin aundiaren ondoan? Ezerrez, Jauna, ezerrez, erantzun omen zion pulpittupetik amoña xaar batek.

Latiegi'tar Bixente

A. KANPION ETA P. BROUSSAIN'EN TXOSTENA EUSKERA BATUA DALA-TA

Aspaldion entzun izan dogu euskaltzain bi oneik garrantzi aundiko txosten bat aurkeztu ebela euskera batua egin –aurretik.

Itzez itz euskeratzeko luzeegia dala uste izanik, gure irakurleentzat laburpe-na egingo dogu.

Agiri au izenpetzen daben euskaltzaiñak, azkenengo batzarrean artu eben zeregiña betetzeko auxe agertzen dautse euskaltzain jaunai:

1º.- Elerti eta zientzi arloetan euskerea batera erabilteko, euskera batua egin nai da

eta ori, gure ustez, euskalki barri bat sortzea da, urteen joanean gaurko euskalkien ordezkoa izateko eta orixe litzake, bear ba'da, gure euskaltzaindiak aztertu leiken arazorik aztunena.

2n. Edozein izkelki, itzak berak agertzen dauanez, elertiaren frutu eldua ta idazle aundiak lortua izaten da. Gogoratu Omero, Dante eta Lutero.

Zer egingo eban orretarako Dante'k? Italia'ko izkuntza billatu beste izkelki guztiak alkartuta. Orretarako ba-eukan bear dan buru argia.

3n. Euskereak euskalkiak ditu eta ez dau bear Dante'ren antzeko buru-argirik lan ori egiteko: Lau dira euskalki idatziak eta beste lau erri-maillakoak. Azkenengo oneik aberastasun aundirik ez dabe ekarri elertira eta kontuan artu bagerik itzi leikez. Elertidun laurak oneik dira: Bizkaierrea, gipuzkoerea, lapurtera eta zuberuera; eta errikoak diran beste laurak naparrerak, iparraldekoa, egoaldekoa, sortaldekoa eta sartaldekoa dira.

Guztiak Bonaparte'k iru onetara sartu ebazan: A: Bizkaiera bakarrik, bardin-tsuena, batuenta eta sendoena B: Gipuzkoera, lapurtera eta goi-naparrerak. C: Sulera ta be-naparrerak. Au izkuntzalari geienak onartu dabe.

4. Elerti-euskera bakarrera eltzeko bide bi dagoz, bata zuzena ta leuna, beste luzea, gatxa ta biurritsua.

Lenengoa: Dagozen lauretatik bat artu batu lez.

Bigarrena: Euskera guztietan dagozen aberastasunak artu, Dante'ren bideari jarraituz, eta euskalki barri bat egin. Onek euskaldun guztien gurariak bete daizan.

Erdi-bide bat dago: Euskalki bizi bat artu eta besteen edertasunakaz jantzi.

Iru bide orreititik bat artu baiño len beste au begiratu bear da: Gramatikea ta iztegia dirala izkuntzaren bizitasuna eta sendotasuna. Gramatikea errez aldatzen da egokitzeko, eta iztegia erbesteko itzez bete arren, bizirik gelditzen da, baiña egokiagoa da euskalki batetik bestera itzak eroatea eta iñon ez dago-nean, itz barria sortu bearko da.

5n. Ona emen emon bear diran urratsak:

Euskalki bat aukeratu eta eredu lez jarri. Lapurtera litzake zarrena ta aberasena eta aditzik onena daukana, baiña gitxik dakiena, gitxik idazten dabena.

Gipuzkoera iztegi aberatzeko eta aditz egokia dauana.

Bizkaierreak gramatika ohea dauka.

Dana balantzan ipiñi ezkerro, gipuzkoerearen alde agertzen da urtenbidea,

erdiko izkuntza dalako, iparraldekoetatik eta naparreretatik ur dagoalako eta bizkaia-erea eta sulerea erdiko euskeratik urrindu egiten diralako.

Bat aukeratzekotan ba, gipuzkoerea edo lapurterea izango litzake, lenengoa beiñago.

6n. Aukeraketa ori egitea zuzena izango litzake? Ez ete da ori etxe osoa semerik zarrenari emon eta beste semeak kanpoan iztea? Aukeratuak izan ez diranak, batua ondo egin eta gero emongo leukee errazoa.

Orretarako, euskalkietan dagozan aberastasunak batu ezker, euskalki guztiak litzakez batua baiño txiroagoak

7n. Ez ete da bide ziurragoa ta ohea izango euskalki barri bat, bederatzigarrena, edo elertidun bostgarrena sortzea?

Bide luzea ta latza litzake, gitxitan agertzen dan Dante'ren antzeko buru-argi batek egitekoa, ez, oster, akademi batek.

8n. Euskerearen egoerea: Goi-maillakoak eta leiñargiak mezpreziatu egiten dabe eta orrei jarraitzen dautse erritar zeiak. Baserritarren eta arrantzaleen giroan dabillen euskera zarra atzerantza doa eta ezin da garaille agertu izkuntzen artean.

Euskalkiak gaiztasuna dakartsoe eta erritarrak gaztelera edo frantzera erabiltera bultzatzen dauz.

Euskerearen iztegia geroago ta txiroago geratzen doa eta ezin dau agertu beste izkuntzak agertzen dabena. Millak itz barriak bear doguz eta euskereak barrutik aterako dauz, ez gerkeratik Europa'ko beste izkuntzak lez.

Ori aurrean dala, ba-dauka zalantzarik Euskaltzaindiak?

Egia da, euskera batua euskera asmatua, artifiziala, izango da, baiña ez betirako, eskoletan irakatsi, izparrigietan erabilli, liburuetan zabaldu eta umeak zeazkan asita entzuten dabena arte.

Batua izateko gipuzkoera artzen ba'da, batu ori ez da izango Bizkaia'n bertakoa, eta ez Naparroa'n edo Laburdi'n edo Zuberoa'n be. Baiña gipuzkoera ori asko aberastu bear dau Euskaltzaindia'k, beste izkuntzen millak itzak aurkituta edo barriak asmatuta eta orrelan, Gipuzkoa'n bertan be ez da izango ain ezaguna.

Euskera batua ta aberastua, etorkizunerako euskerea da.

Agiri au izenpetzen dabena auxe esondatzen dautse Euskaltzaindiari:

1º: Euskerea batu, gipuzkoerea edo lapurterea edo biak alkatuta oiñarri dirala

2n. Bear diran batzordeak sortu ori egiteko, gitxienez iru: "Aboskintza ta idazkera", "Gramatika" eta "iztegia" euskera baturako landuko dabezenak.

Olazar'tar Martin'ek, itzuli ta laburtua.

Itzultzailearen oarra:

Lan ederra da au eta ez dau bizkaiera alboratzen, gero Euskaltzaindia'k osooan egin dauanez, baiña nire ustez bide bakarra auxe da: Giputzak bizkaiera eta bizkaitarrak gipuzkoerea ikasi dagiela eta euren erabilleran naparrera be sartzen alegindu eta bata naiz beste erabilli, liburuetan, izparrigietan, ikastoletan, ikus-irratian, aldizkarietan eta danean. Ori egin ezker, batua etorriko da etortekoa ba'da, landara bat aundi egiten dan lez. Landarea ez da lenago aundi egiten orrietatik tiratuta, ongarría botata baiño.

Bizkai'rako negargarria izan da batua: ikasleak ikastolan erabilten dabe eta ez andik kanpora, eurena ez dalako, etxean gurasoak eta aitita-amamak ez dautse ulertzen eta guztiak erdera egiten dabe, kalean batu gitxi entzuten da eta errikoa be galtzen doa.

Euskerea erriarena da eta ez dauko iñok erriaren gauza bat manipulatzeko esku-biderik. Itzaltasun apur bat euskerearentzat!

SERORAK KENTZEN

Bostgarren gizaldi-inguruan sortu ziran gure ermitak, zazpigarrena baiño lenago geienak, eta milla urtean (500-1500) ortxe bizi izan da gure aurretikoen fedea. 1500n. urtera arte parroki eta eleiza aundi gtxi egin ziran

Zelan eratzen eben mille urte orreitan jaun-gurtza edo kultoa?

Lenengo illen ardurea artuta: illetak egin eta eleizan bertan lurperatu.

Gero bedeinkapen asko: odeia, trumoia, uzta edo kosetxak, abereak, soloak...

Araoak edo "konjuroak" egin.

Eleizbideak, arrentza edo errogatibak, bederatzi-urrenak,

Noizean bein sakramentuak, batez be bateoa, ospatu.

Iñoz-iñoz mezea egiteko be abaderen bat etorriko jaken.

Mezea eta sakramentuak alde batera, beste eleizkizun eta ospakizun guztiak egiteko ermiteak arduradun bat eukiten eban eta orretarako etxe bat be bai. Arduradun ori emakumea zanean "serora" esaten jakon, "freila" be bai, eta gizona zanean "eremita", eta ortik ermita izena.

Eleizkizun orreik egiteko, ur bedeinkatua eukiten eban seroreak, eta asko erabilten eban, eta bear ba'da oikune-arau edo ritualen bat. Olakorik ez daukagu.

Ermitetan kanpaia be ba-egoan eta seroreak edo eremitarrak goizean eta eguerdian eta gabean jotzen eban eta fededun guztiak otoitza egiten eben, ama aurrelari zala

Esan dogu seroreak bere etxea eukala, ermitea egoan etxe beratan eta inguruan, ortik geratu dira etxe batzuren izenak, adibidez Derio'n Zeretxe plazea eta Fika'n gaur taberna dan Sebotze.

Baiña eldu zan sasoi bat, andrazkoak ardura au artzea, erriak ontzat artu-arren, eleizearen aldetik izter-begiz ikusi izan zana, eta orretara goaz idaz-lan onetan, Labayru'ren edestiari jarraituz (V, 121).

...

1620n. urtean Logroño'n egindako sinodoan Pedro Gonzalez del Castillo Kalagurri'ko gotzaiñak auxe agindu eban: Eleizbarruti osoan agindu bi oneik bete bear zirala, andrazkorik, ez ezkondu eta ez ezkondu bagerik, eleizan ez daitekla buru-utsik egon eta eleizen arduradun ez daitela izan serore edo freilarik.

Bizkaitarrak agindu b i orrein aurka jarri ziran, gitxienez bigarrenari, ez ebelako ulertzen ori zergaitik agintzen zan edo noraiñoko indarra eukan agindu orrek.

Lenago be debekatu eban gotzaiñak Bizkai'rako seroren ardura ori. Orregaitik erri-agintariak 1617n. urtean Bilbao'n agindu eben prebostea joan daitela gotzaiñagana eta eskatu ez dagiala debekatu ermiten ardurea serorak edo freirak artzea. Baiña gotzaiñak ukatu egin eutson eskari ori.

Agintariak irain lez artu eben ori, ain antxiñako oitureari jarraituz lana egiten eben serorak kentzea eta Eleizbarrutiko gotzain-ordeak apur bat bigundu egin eban agindua: Serorak ardura ori artzeko gotzaiñaren baimena bearoko eben.

Agintariak barrero gora-deia eskatu eben baiña gotzain-ordezkarriak ukatu egin eutsen. Orregaitik Balladolid'eko Errege-Entzutegira egin eben gora-deia. eta 1618n. urtean epaillaren 19n. egunean eta gora-deia ukatuteaz txarto egin ebal gotzain-ordezkoak esan eben, baiña ez gotzaiñaren baimena bear izatean. Eta orregaitik ezkomunikatuak izan ziranak askatzeko eskatzen eban.

Gotzain-ordezkoa ta Balladolid'eko epailaria eleizako epaitegi baten aurrera deituak izan ziran eta onek agiriak eskatu ebazan eta gero esandako erabagia artu eban barriro. Zigorak kendu eta gora-deia onartu. Baiña orretan geratu zan gauzea eta Bizkaiko agintariak ekin egiten eben erabagia jakiteko gurariaz.

Azkenean erriko agintariak errazoa emon jaken eta bare geratu ziran.

Baiña or bitartean gotzaiñak Erroma'ra jazo eban auzia eta Aita Santuaren bulda bat etorri zan, V Paulo'k izenpetua eta 1619n. urtekoa eta Trento Batzar Nagusia aztertzen eben kardiñalari entzun ondoren auxe erabagi eban Aita Santuak: Guzurrez Serora edo freira deritxen emakume orreik euken sakristau-lana-eta eleiz-jantzia jakitea ustelkeria zala eta aurrerantzean ori ez zala laketu bear eleizetan, orreien ordez klerigo edo abade egokiak ipiñi baiño.

Baiña erri-agintariak ez eben jakin Aita Santuak olako agindua emon ebanik eta barriro eskatu eben eta Aita Santuaren agindua agertu eutsenean, "agindu ori foruen aurka egoala" esan eben (foru-baimenaren arazoa, Eleizearen aginduetarako).

Azkenean, 1619n. urteko urrillaren 12n. egunean Bulla ori ez onartzea erabagi eben eta IV Felipe errege eta jaunak eskutitza egin eutson Bilbao'ko Gotzain-Ordezkarari (1622) zigorak kentzeko eta agiriak Kontzeillura biartzeko baiña Kalagurri'ko Sinodoaren VII aginduan agiri dan lez, Kalagurri'ko gotzaiñaren agindua geratu zan nagusi.

Olako edo antzeko "misoginia" edo emakumeen aurkako gorrotoa gaur be bizi-rik dago eleizan, Jaunaren Erriaren kalterako.

Olazar'tar Martin'ek

ASKATASUNA TA MENPEA. ASKATASUNA BIZKAIAN

AURKEZPENA:

Arrastion, itzaldi onetara etorri zareen guztioi , eta on-egin daigula danoi beren mamitik ulertzen dogunak.

Azkenean, zuek galderak egitea gura neuke, nik be zeozer geiago ikasi neikelako eta danok batzar onetatik al dogun zeaztasunezko ulermen ederrenean urten daigun.

Zergaitik Askatasuna?

a). – Euskaldunaren bizi guztiko jokia ardura aundiz oinpeko morroitasunaren aurkakoa izan dalako. Ainbeste milla urtetako ikas-bidean lur onetatik JAINKOA'ri begira sinismenaren egarrian, Nortasunaren askatasuna... ELBURU izan dalako beti.

b). – Mundu onetan gaur gagozan jakituri-denboretan Demokrazi eder baten egarriz, ezin diralako on-artu espataren keñua-gaz ipinitako laterri menperatzaille oneik. Guzuz aundiakaz Mundu onen gizarteari debekatu egiten dautsoelako Nortasunezko adostasun eder bat danon artean ezartea, bear doguzan ordezko ardurak bakez orekatu daitezcan. Ez dakit zelako sasi-jainkoari begira.

d). – Eta Olazar`tar Martin`ek, gai onen azalpena, nik egin bear nebala esan ebalako.

Asi gaitezcan ba, Askatasuna, Menpekotasuna eta Bizkaiko Askatasuna aztertzen. Gogoan daukaguzan okerrak Euskaldun lez zuzentzeko, eta bizi-bidean Euskadi`ri zor dautsaguzan ardurak, egokitasun guztian ordaindu daiguzan.

Arrazoi-bide ori zortzi zeaztasunezko ataletan bananduta eskaiñiko dautsuet. Lenengo, Euskal izaera argitzeko gure edestiaren laburpen bat egingo dot. Azkenean, gaurko arazoen egoera ikertuta, ondorio labur bategaz amaitzeko.

1.0. – Sarrera

1.1. – Zer ikasi eban Kromañoñ gizakiak leizan bertan?

Kromañoñetik, biziaren ikas-bideko ainbat milla urtetan, gizartearen gogape-neko asmakuntzetan, demokrazizko batzangotasunaren askatasuna oiñarri zala, ondo baiño obeto ikasi ebelako, Nortasunaren ordezko-ardurak babesten ez ba-ziran: amurruak, zalapartak, burrukak eta naspiltasuna berez agertzen zirala.

Gaur, guzti ori ikerketaren bidez argitzen diran arloak dira, erri-zaarrari begituta Euskalerriri lez: Izkuntza, Jakintza, Erlijiñoa, Oitura, Edestia, eta legeak egokitzen joan ziran arlo guzti orre in jakintzak oituratzeko. Moral-Etika da ori.

Baiña, gagozan denboretan, ordeko-ardurak antolamenduzko egitarau baten sartzeko, nun geratzen dira demokraziaren askatasunak?

1.2. – Zer nai eben erromatarrak Euskalerrira aurreratu ziranean?

Erromatarrak Europatik zabalduz etorri ziran Euskalerrira, Mundu onen gizarte guztia menperatzeko naian, eta euren indar agindutara danak ipinteko alegiñean.

Gure erri ta erritarrai eurak ekarren oinpeko antolamendua babesteko, erregetza, guda-indarra, morroitasunezko legea, euren zergak, eta euren sasi-jainkoak ezarri eutsoezan.

Leiñuak euki eben Askatasunezko Jaurkintzan kendu eben euren menpetasunezko indarrakaz:

Izkeran latiñagaz.

Erlijiñoan euren JAINKOA`kaz.

Erri-Oituretan ikaragarrizko naasketak sortuta.

Erromatarren malda berakoan bereala bir-eskuratu gendun ori dana.

1.3. – Zer ekarri eban godoen katolikotasunak?

Godoak etorri ziran urrengo, eta orduko, Kristautasuna eta batez be kristau-katolikotasuna indartzen joan zan, eta oneik, ekarri eben kristau-Arrianismoa baztartuz, katolikotasuna besarkatu eben euren ekintza Jainkoaren agindua zala esateko, eta euren ameskeri koldarra Euskalerrian ezarteko.

Baiña erregetza, menpetasunezko guda-indarrak, eta jaurkintzaren legeak erromatarrakandik artu ba-ebezan, itxuran guztiz bardiñak ez ziran, erromatarren sasi-jainkotasunetik kristau-katolikotasunera bizi-legean geiago zeaztu ebelako. Eta menperatasuna lortzeko era-bidean bardiñak ba ziran be, zin egin eben euren asmoak aurrera eroatea, denboraren etorkizunean, irabazlearen sinismen osoan egon ziralako, katolikotasunaren babesagaz batera jokatuta.

Olan izanda 1.453 urte luzeetan, fede ta borroka-latz ugarien bitartez ibili dira Mundua`ren kristau-batzangotasuna lortzeko katolikotasun aginpe baten, erromatarrak malda-bera osoan egon ziralako, Konstantino`k IV gizaldian euki eban ikuspenean ezarrita.

Onak eleiza katolikua indartu, eta antolamendu orretan sinismen osoa euki ebala. Eta... ..., aren ondorengo diranak oraindiño daukielako.

1.4. – Zer egin eben Euskaldunak jokabide orreri aurre egiteko?

Denbora orretan, gure Euskalerriri maite onen arbasoak ikusi eben, gure araudietan menperatuta geratuko giñala, Euskal-antolamendu on-bat ez ba gendun ezartzen, eta gure leiñu-lurraldeetan batzar nagusiaren aginduz JAUN`en irudia ezarri gendun, arazo orrei aurre egiteko.

Euskalerrian eta Europa`ko erri berezi guztietan Zori-txarrez..., kristau-katolikotasuna zan “kaizar eta jaun-errege guztien gaiñetik ezarrita, gure jaun-erregetza aukeratu ebana, eta euren erregetza erritarrena baiño urriñeko goiko mailla baten ezarri ebena” euki ebezan amets-aundi orreik lortzeko.

1.5. – Zer ekarri euskuen mauritarrak?

Mauritarrak etorri ziranean, Godoa`k azpiratuta geratu ziran eta Euskaldunak aukera aundia euki gendun gure legediaren-batzarrak antolatzeko eta Jaunaren irudia sendotzeko Nafarroan erregetza on artuta.

Baiña Godoa`k eta Euskalduna`k kristauak giñelako, katolikotasunezko eleiza kristau-moralaren indarragaz jokatzuz, jaun-erregeen gaiñetik ezarrita geratu zan, IV`garren gizaldian Konstantino`k asmatu eta agindu eban lez ezarrita.

1.6. – Mauritarrak botateko ber-eskuratzean (reconquista) zer egin gendun?

Mauritarrak botateko alegiñetan, Pelayo`k 718`an Asturias`eko erregetza sortu eban eta III`garren Alfonso`k Zamora irabazi ondoren, bere seme I Garzia`k 910-914`ko urte bitartean Leon`eko erreñua sort-arazi eban. Bere anai II Ordoño`k 914-924`ko urte bitartean, Asturias eta Leon`eko erreñu biak alkartuta ebazan.

Antzeko bidea artu eban Euskalduna Pina`ko Done Joane`ren lekaide-etxean asita.

1.7. – Gaztela`gazko gure elkartea eta frankoakaz artu-emonak. Eneko Aritza ta ondorengoak.

Geroago eta denbora luzean Leon-Asturias`eko ereñua Nafartar-erreñuaren menpean egonda, 1.230`ean Gaztela`ko erregetzaz alkartu ziran.

Pelayo`k, Asturias`eko erregetza sortu eban denboretan, eta Euskaldunak Frankoakaz Orreagan euki genduzan borroka nagusi bien inguruan, 824`an Mauritar-Euskaldun Banu Qasi`ren laguntzagaz, Nafarroa`ko erregetza ezarri gendun, Aritza`tar Iñigo`rekin.

Au erdi-Ugarte onetan, denbora askoan aundiena izango zan.

Eta III`garren Santxo Aundiagaz goitasunean agertzen dan, Euskalerriko lurralde guztiak Akitania kontuan artuta eta III`garren Bermudo`ri guda-legez irabazita Galizia izan ezik, Asturias eta Leon`eko erreñua beren eskuetan egon ziralako, bai Bartzelona`ko konde-erria be.

1.8. – III Santxo`ren okerkeria zein izan zan.

Baiña III Santxo aundi onek, Euskal legearen aurka, Euskalerriko lurak bere lau semeen artean banandu ebazan: gaur gure Euskalerria dana III Garzia Santxez`eri; Gaztelarren Kondetza Fernando`ri; I Ramiro`ri Aragoi`ko kondetza eta Sobrarbe-Ribagorza Gonzalo`ri, laurak erregearen izenakaz.

1.9. – Erromantze izkuntzen indarra nondik etorren?

Erromatarrak ekarri eban latiñagaz, Godo ta Mauritar izkuntzarekin eta euskeraren bitartez, izkuntz barri bat sortu zan “Erromantzea” nai Godo`ren errondoko ziran Espainol erregetzak eta Euskal erregetzak be ontzat artu ebena, euren eta eleiz-gizonen artean konpontzeko aitzakiagaz.

1.10. – Zein eragozpen ekarten dausku Eleiza katolikuaren batasunak?

Eleiza katolikuak erri bereziaren aurka, bere latin aundiagaz latin-kumeak babesteko, gure egunetararte iraun-erazi dau, Nortasunezko erritar berezi-

dun guztiak konturatu arte, euren katolikotasunean, guztiz alderdikeroak dirala.

Nik uste dot, Euskaldun-erregeak ez zirala guztiz konturatu: eleiza-katolikuak Kristautasunezko moral sinismenarekin, erromatar eta Godo'en menperatzaile jokoagaz, ze asmakuntza ekarren bere eskuetan, nai-ta leiñu-lurraldeetan Jauntasuna eta Nafarroan Banu Qasi'ren laguntzagaz erregetza ezarri, euskal erregeak euren antzera menperatzaile-katolikuak biurtu ziralako erri-sinismenaren aurka.

1.11. – Jaun euskaldunen arriskua zein izan da beti?

Zoritxarrez, Bizkaitarrak gure jauntxutasunagaz, Espainol aundikitasunezko aramu-sareetan sarri jausten giñan.

Gure jaun Tello ondorengo barik il zanean 1.370'ko Urrilla'ren 15`ean, gure jauntza jabegai-bidetik, Juana'ren eskuetan geratu zan.

Trastamara'tar Enrike Espaina'ko erregearen emaztea zan, eta onek Gernika'ko batzarrari adierazi eutson: nire jabetasunen eskubideai bertan uko egiozue eta Bizkaia'ko jauntza nire seme Juan'en eskuetan ezarri.

Gero 1.379'ko urtean Gaztelarren errege egin eben, eta bera izan zan 1.388'an Asturias printze-erria sortu ebana, bere seme Enrike, Lankaster'eko Katalina'gaz eskontzeko egon zanean.

Eta or birreskuratzen dabe Godo-Menperatzaile aria, Espaina'ko errege guztiak errege izan orduko Asturias'eko printzeak izan bear diralako.

Euskal sinismena euki eben?

Orreik Espain'tar benetakoak ziran!!

Ortik aurrera gure jauntza Gaztelarren eskuetan egon da.

1.12. – Jauna erbestekoa izan danean, legegintza eskubidea galdu zan?

Dana dala, Euskal erritarren eskuetan, beti egon zan legeak egiteko eskubidea: leize-zulotik leenengo, auzoak zugazpeetan batzartuta gero, eta bas-eliza aurrean Etxeko Jaunaren ordezkioak batzar nagusietara bialduta.

Baiña..., nai jaun-erregeakaz arazo naikoak euki euren ordezkioak Euskerea ez ebelako jakin, edo ez ebelako ezer jakin-nai, Gaztelera aundiagotzat euki ebelako, Gaztelera batzar nagusietan indarkerizko zigor aundiakaz 1.614'garren urtean Abenduko 10'an sartu zan barria.

Gureak legegintza-eskubidea aurrera eroan eben XIX'ko gizaldirarte.

V'garren Felipe lotsagabe eta ixilkeri barik asi zan eskubide ori, goitik-bera ezereztu naian indar guztiagaz.

1.13. – Europa'ko Laterriak sortu ziranean, zer geratu jakun?

Europa'ko errege guztiak alkartuta egon ziran, erregetzaren lurraldeak laterri lez ezarri daitezcan. Berezko erriak gaitz-etsita ta kontuan artu barik, erritarrak: Espaino'ak, Ingeles'ak, Aleman Nortasunezkoak eta abar agertu ziran.

Baiña JAINKOA'k emondako Nortasuna, ez da gizonak aldatzekoa, berezia dalako.

Bakoitzaren ardurapekoa, nai-ta erregeak eta eleiz-gizon aundiak etorri esaten: aldakuntza ori egin bear dala jainkoa'k esan daualako. "NOREN JAINKOA DA ORI.... ?

1.14. – Frantzia`ko iraultzak aldatu eban gauzea: guri zer?

Europa guztian 1.789`an Frantzia`ko iraultza-saioaren bidez, errege-jaurleri guztiak alkartuta egon ziran, eta euren menperatzaille-asmok bete egiten ebeza-lako, eredutzat artu eben: Frantziaren errege Frantzesen errege biurtzen zalako.

1.15. – Euskaldunak gudaketan: Karlos`tarren guda biak.

Ortik aurrera, Euskaldunak Espaino`ekin guda-latzgarri bi euki genduzan: bata 1.833`tik 1.839`ra iraun ebana eta guzur ta saldukeri baten bidez amaitu zana, Bergara`ko Maroto eta Espartero`en arteko bezarkadan.

Bestea 1.872`an asi zana, Espaina`ko errege Italia`ko II Bitor Manuel`en semea, Amadeo de Saboya izendatu ebenean, eta Lizarra artu ebenean 1.876`an amaitu zana. Martinez Kampos izan zan gudal-nagusi irabazlea, Borboi erregetza birreskuratu ebana XII Alfonso izendatu eta gure FORUA`k ezeztatu ebazana.

1.16. – Errepublikak eta Euskaldunak.

Euskaldunak beste ikaragarritzko menperatzaille borroka-saio bat euki gendun, errepublikaren denbora laburrean, Gernika`ko-Estatutua lortuta: 1.936`an asi eta gurentzat 1.937`an amaitu zana.

1.17. – Lenengo Araudia edo Estatutua eta gudea.

Errepublika`gaz, Euskal-Nortasunaren eskubideak estatutoagaz lortzen joan arren, eta Euskaldunak borroka ortarako 1.876`ko urtearen menpekotasunetik urtetan asi giñelako, ez gendun euki gudarako antolamendurik ez izkillurik, baiña beti agertu gara askatasunaren edo demokraziaren alde kokatuta, ori dalako Euskalerraren berezko sena.

Menperatzaille-Faziztak garaile agertu ziran, Europa`n, euren benetako saio bat izan zalako.

Guda zikin onetan, ez Errepublikak, ez Euskaldunak ez gendun euki borroka ori irabazteko iñungo aukerarik, Europa`ko laterri- Menperatzailleak ondo ikusten ebelako Espaina`ren Errepublika menperatzea, bere barruan erri-berezien bizkortasuna ikusten zalako, espataren keñuagaz ezarritako erregearen-laterriak edo errege-gabeko laterriak iraun dagian. Orregaitik Frantzes`en eta Ingeles`en aldetik sekula ez gendun artu laguntzarik, Errusia`ren ondar batzuk baiño.

1.18. – Fazismoak, euskaldunak eta beste laterriak zelak jokatu eben?

Laterriak ez eben ikusten zelako asmoak euki ebezan fazismoaren menperatzailleak, Errusia artean dala, sozialismuaren izena euki arren menperatzaille biurtuta egoalako.

Baiña demokraziak eta erdira-naiko zaleak, konturatu ziran, urbiltzen egoana izugarritzko oinpetasuna zala, Mundu onek izugarritzko astinketa artu ondoren, danak guztiz ikaratuta ezetza emon eutsoen alango beste borroka bateri, eta bereala asi ziran gizartearen eskubide guztiak ezartzeko alegiñetan.

1.19. – Mundu`ko guda-ostea ta eskubideak zelan agertu ziran?

Eskubide orreik sinatu be egin ziran, baiña ez dira izan gai sekula Nortasu-naren arloa benetan artzeko.

Bide onetatik, euren nagusitasunezko arrokeria ta diruak emoten dauan betiko sasijainkotasunak ezereztuten diralako.

Mundu onetan bearrezkoa da ordezko-arduraren onura.

Gaur danok dakigu, erabagi ori bidezkoa dala, mundu onen oreka bakean lortzeko eta gizartearen zentzuzko ardurak bizkortzeko.

Orregaitik zorionez, Europa onetan asi dira gaur mogimendu bizi-biziak, ardurak arduradunaren artean banatu egin bear dirala esaten.

Oraindiño zoritxarrez, eta orregaitik ez da egia, gure gaurko giza-legeak edo gizabideak erdi-mendeko gizabidetik urten dauala, menperatzaille katoliko ari ori Europa ta Mundu guztian indar aundiagaz dagoelako, nai Europa guztian beste bide batzuk asi, ondo daki danon arteko ordezkaritzan benetako ardura-dunak bear dirala billatu bear diranak.

Eta nun aurkitu, berez arduradunak diranen artean izan ezik!

Orregaitik, gaur ez da bear ETA`ren eta iñoren guda-borrorarik, arazo eta larritasun geiagotan sartzen gaitulako askatasuna lortzeko.

Illuntasunezko Itsutasunak baztertu bear doguz, eta jakintzaren indar Argi-Garbi guztiagaz, danon alkar laguntza ederrean, Euskadi`n eta Europa`n berezko ardura-dunen ordezkozkak ezarri bear dira, erri ta eritarrak askatasunean bizi gaitzean.

Gaiñera, Europa guztiko arazoa dala ikusita gero, goitik-beerako agindu gurean dabizen erdirakoiak, beti ibili dira batera. Gaurko borroka ez da batzuen borroka, errien borroka baiño, eta ori izkillurik gabel!, danok politikan sartuta edo erri-yaurgoan arduratuta izan bear daualako. Era orretan jokutzen ba-dogu, ez daukie zeregiñik gure arerioak, arrazoia gugan dagoalako, Mundu onek daukan arrazoizko legea, berezko edo berezitasunezko Legea dalako.

1.20. – Ori ikusita, zer diño Aznar`ek gure askatasunari buruz?

Atzo, 2.003`an Bagilla`ren 30`an, ikusi gendun menperatzaille Erromatar eta Godo-katoliku ari ori argitasun guztian, Espaina`ko Biltzarrean Aznar`ek nazioa-ren egoera aurkeztu ebanean, ao txikerragaz eta azeri begiakaz, guzur eder eta aundi baten gaiñean zaldikatuta azaldu ebana, ez ebalako nundik-nora oratu guzur guzti ori.

Argi azaldu eban onek, beren indar ta amurru guztiaz esan ebalako: Euskal-dunak askatasuna ez gaur ez biar ez gendula lortuko.

Euskaldunok, 1.936`an piztu zan borrokatik, gorri-zikin saltzaille lez Franko`k izendatuta zigor aundien artean geratu giñan, Europa`ko erri berezien Nortasun guztiak lez zapaldata.

1.21. – Olako egoeran aurrera egingo dau gure demokraziak?

Baiña demokraziaren atea beti zabaltzen dira, eta gaur geiago, esku gutxi batzuen goitik-beerako aginduetara dagozan danon ordezko ardurak, porrot edo ustel urteten dagozanean.

Eta ori da gaurko gertakizuna, erromatarretik erdi-mende guztian gaur arte egin diran saio guztiak, agintaritzak goitik-beerako agindu baten egon daitezcan, eta ordezko ardurak esku gutxi batzuetan bakarrik egonda gaurko lez, ardura-ren ezean ustelduta agertu daitezcan.

1.22. – Sozialistak gaur zetan dabiltz?

Munduan, Europa ta Euskalerrian daukaguzan arazoan artean, beste arazo aundi bat be badaukagu: jakingo dabe ezker aldeko “Gizartekoak edo Sozialistak” izendatzen diranak... zertarako edo zelan jaio ziran?

Nazio-arteko edo erri-arteko sozialismokoak dirala esaten dabe, baiña nungo erritan oiñarrituta...: “Berezko Errietan?” ala... aurka jaio ziran espatakaz beartutako “Menperatzaileen Laterrietan?”. Nik uste dot, or beste gogoraldi gogor bat egin bear dabela sozialistak.

Gaur, ardurak danen artean banandu bear dira, eta ori NORTASUNEAN bakarrik aurkitzen da. Gaurko jakintasunagaz argi ikusten dogu, JAINKOA'k BERE LEGEAZ AGINDUTA, bera dalako berezko arduradun bakarra.

Bestela..., urte oneitan goitik-beerako erdira-naien menperatzaileari sortu jakena, danon ardurak euren eskuetan euki dabezelako, eta guztien ardurak gogoan ezin diralako euki: epotxak edo ezaziak, ugaritasun guztian azten jakiez, alpertasunaren edo indarrrik-ezaren aukeran agertzen diralako arazoak, eta geien diranak, baztatu egiten diralako nausigotasunean.

1.23. – Nortasuna galtzen danean, zorabioa dator.

Orregaitik dabiz zoratuta, gizon/emakumeak eurak gura daben Godo-nortasunaren lekuetara eroan ezinik, nai-ta beartuta edo indarkerizko alegiñetan ibili arren, guztien ardurak euren eskuetan dabizen bidetik, ikasle-gazteak be arduragabekoak agertzen diralako.

Eta goian esanda dagoen lez: guzurak, amurruak, zalapartak, burrukak, naasteak eta saldukeriak ugari dagoz.

Nik uste dot argi dagoala, ardurak NORTASUNEZKO arduradunen artean bananduta egon bear dirala, danak arduradun jaio garalako, Mundu onen ego-kitasuna, erreza ta zentzuzko itxura onean lasai aurrera joan daiten.

Joan gaitezana ba, zeaztasunetara.

2. Zeastasunak

2.0. – Leizak eta Batzarrak:

2.1. – Noiz asi zan foruen edo gure askatasunaren edestia?

Gure batzarren edestia, Leizetatik Gernika'ko batzarretara aipatzea, gure Foruen bizitza 30.000 (ariñagotik?) urtetik ona bere edertasun guztian aipatzea da.

2.2. – Gure bizierak guk aukeratu bear doguz: leizetan naiz zugazpean.

Europa'ko Mendebal Euskal lur onetan, orduan askoz zabalagoak izan ziranak, eta bere gaiñean aberetan aberatsa izan arren, gizartea lurragaz eta abereak izan-gaitasunean parean edo buruz-buru egon ziran. Baiña leia orretan aukeradun bakarrak gizon/emakumeak ziran, gure arimak bakarrik diralako arazoibidearako edo argibiderako aukeratuta dagozenak.

Gaurko Euskaldunak gure arbasoen yarauntsiak, ondorezkoak edo oiñordezkoak izkuntza, odol, leinu edo endan ba gara..., zergaitik ez gara izango bizitzeko eratan eta arauetan?

Orregaitik, lenengoetatik asita antolamenduak egon bear ziran arremanetarako, izkuntza ezerezeretik sortzeko, leizetan bizitzeko, eizaren tresneriak ego-

kitzeko, jatzeko eta bizitzaren babeserako bear ziran gauza guztiakaz apaindu-ta, leñuen oroimenean oituratzeko.

Danen arteko antolamendu orreik beteteko batzarrak: leizeetatik asita zugaz-weetan gero (Aretx edo Aritza, Artea eta Leizarra ziran zugatz santuak), Kristau-tasuna sartu zanetik, bas-eliza`ren aurrean egiten ziranak, gero bakoitzaren ordezkariak batzar-nagusietara biartzeko.

2.3. – Jauna sortu aurreko giroa zein zan?

Gure batzarretan ondo aitu bear diranak, gauza bi dira: gure oiturazko lege-dia edo arauak jauna eta erregeak euki arte, eta ortik aurrera gaur arte.

Orregaitik gure seneko foruak, Bizkaia`ren foru orokorrak eta beren errepubli-kak daukiezanak dira.

2.4. – Uriak zertarako sortu ebazan jaunak?

Baiña Bizkaia`ren Uri edo Billa`k daukiezan foruak, erbestetasunezkoak edo arrotzak dira, Logroño`ko foruan oiñarrituta dagozelako; nai-ta aldakuntza orreik gure legearen araudira eratu batzuk egin.

Eta kontuan euki, gauza orreik egin ziran denboran danok logroñotik asita Euskaldunak giñela. Bestela..., Ojakastro or dago, Aragoi`ko erregeak baimena emon bear eutsona epaiketa guztiak Euskeraz egin dagiazan erriarrak ez ebe-lako jakin beste izkuntzarik.

Gipuzkoa`n bardin: 1.150`ean Santxo Jakintsua`k itsas-bazterreko Donosti eta geroago Zarautz, Oiartzun eta abar, Jaka`ren foruan ezarri ebazan eta barru-ko Billa`i: Bitoria`ren foruak, XI`garren gizaldian Logroño`ko foruetan oiñarrituta dagozenak.

2.5. – Urien eta errien artean sortu zan arazorik?

Emendik aituten dira, Billen eta berezko errien artean abertzaletasunean euki genduzan desberdintasunak. Gaur berrezkuratzen gabizenak: Aide nagusi orreik, danak ez ba-ziran be, beti egon ziralako jaun-erregearen inguruan, gaur Bizkaia`ko eta Bilbao`ko oligarkia deritxon menperatzaille-eskumatarren antzera.

1.452`ko urterarte, gure batzarretan ez ziran idatzi legeak. Erriaren gizartean oroimen bakarra izan ez-gero, oiturazkoak ziralako (Ingelesa`k be, sekula ez eben idatzi oiturazko legerik).

Geroago eta denboraren aldakuntzeagaitik 1.526`an Jorrailla`ren 5`ean Batzar nagusiak erabagia artu eban 1.452`ko Foruak edo lege-zarrak egokitu egin bear ziralako. Eta Bizkaia`k beren irarkolarik ez ebalako euki, Burgos`en eza-rrari edo irarri ziran.

2.6. – Zelan ikusten dabe gure erriaren jokabide au kanpoko jakintsuak?

Gure batzarrak euki eben Nortasunezko Askatasuna azaltzeko, Euskalerritik igaro ziran gizon jakintsu batzuen esanak adierazoko dautzuedaz: XVII`ko gizal-dian Tirso de Molina mesedeko lekaidea eta antzerki-idazle edo drama-idazlea, bere oso ezaguna dan “EMAKUME`en ZURTASUNA” (LA PRUDENCIA EN LA MUJER) antzerkian onelan diño:

“El àrbol de Guernika ha conservado la antigüedad que ilustra a sus señores, sin que tiranos lo hayan deshojado, ni haga sombra a confesos y traidores“.

XIXgarren gizaldian Willian Wordsworth, olerkari eta filosofo edo jakin-zale izan zanak, gure Gernika'ko zugatz-saindua'ri onelan abesten dautso:

“Bajo tu augusta sombra, aquellos legisladores de espíritu elevado, señores y menestrales entremezclados, ocuparon sus escaños, como fieles guardadores de las libertades de Vizcaya”.

XIXgarren gizaldian F. le Play frantzesar eta gizarte-iztitan jakituna danak, Euskal-baserria ikertu eta beren izaera zabaldu eban, Europako sendiaren enborretik eredu nagusia zala esanez:

“Después de haberlos estudiado detenidamente, creo que los fueros vascos, por la admirable sabiduría que los inspira, son muy superiores a las leyes suizas, cuya bondad está probada por una duración secular”.

XIXgarren gizaldian Victor Hugo Frantzesar'k, olerkari, izneurlari eta ospe-aundiko nobelari izan zanak beste au esan eban:

“Quien ha estado en el país euskaro, desea volver a él. Es una tierra bendita”.

Askenez, ezin aaztu W. Humboldt alemana, Mundu onetan jakituri aundiko gizona, Berlin'en ospe-aundiko ikastetxe-nagusiaren sortzaille, idazle, izkuntzari entzutetsu eta laterriko-gizon aundiak Euskalerrigaitik esan ebana (Bergara'ko Aranzadi'tar Telesforo giza-iztilariak Aleman'etik Gaztelera'ra itzuli eban): “Apuntaciones sobre un viaje en primavera del año 1.801”.

Idaz-lan onen bidez argi ikusten da, gizon aundi onek Euskalerriri begira euki eban sinismena: Euskalerrira'ren giza-seme/alabak daukiezan legeen azpian, pozik eta aurrerapidekoak senditzen diralako, eta daukiezan ertzainonak ta aberriko antolamenduaren azpian bakez eta begipekoan irau egiten dabela, erriak beren babeserako ezarri ebazan legeakaz.

Lasa eta Apalategi'tar Jose'k argitaratutako “EL PUEBLO VASCO-DEMOCRACIA TESTIGO DE EUROPA” liburutik artuta dagoz aipamen oneik, eta berak esaten dauan antzera: “gure erriaren igarotako denboretara begituta eta gaurko denborakaz berdinkatuta, olerkari aundi onegaz esan bear dogu..., JOANDAKO EDOZEIN DENBORA OBEA ZALA”.

2.7. – Zeaztu geinke len aitatu dogun Bizkaiko jaunen jokabidea?

Bizkaia'ren edestiko izena beti izanda “SEÑORIO” eta XVIII'garren gizaldian Bizkaitar bateri itaundu ezker NUNGOA ZARA? SEÑORIOKOA esango eban.

Bizkaia, askatasun osokoa zan, beren erri-yaurgoko jaun ta jabe bakarra izan zalako.

Antziñatik agertzen ziran arazoak, baiña erromatarrak, godotar eta mauritarrak etorri ziranean, Bizkaitarrak, antolamendu bat egitea bearrezkoa zala ikusi eben eta JAUNTasunezko jaurkintza baten laterritu ziran 888 urte inguruan Arrigorriaga'ko gudaren ostean Jaun Zuria izendatuta. (Or! nun dagon estadia edo laterria).

Euki genduzan jaun guztiak leenengo jauna aukeratu gendunetik, danak izan ziran aukeratuak askatasun osoagaz bizkaitarren baimenagaz.

Jaun barria aukeratzan zanean, erriak iru gauzatarako artzen eban: a) guda-buru izateko; b) zuzenbidearen buru-nagusia izateko; eta d) Bizkaia'ko ondore aundiko lur arloak zaintzeko. Jauna, ain zabaleko aalmen eta ondasun orrekaz jantzi eben, bere buruzagitasuna lasaitasunean joan daiten. Baiña kontu aundia eukita, berea ez dala ezer, daukon guztia Bizkaitarrak emondakoa dalako, beren antolarazia (arbitraje) babesteko.

Orregaitik, aginduaren eskubide bakarra errian egon zala erakusteko, “erabakitasunean” piska bat; beste apur bat “egilletasunean”; eta beste ataltxo bat “legegilletasunean” bakarrik emoten eutsoen.

Jauna, bere aldetik jaurkintza aurrera erodateko, emen ipinten dodazen baldin batzukaz beartuta geratzen zan: 1^ogo. – Bera ez zala iñor lurraren forua aldatzeko, batzar nagusi baten eta Bizkaïtar guztien baimenarekin ez bazan izaten. 2^ogn. – Bizkaïko aitor- seme baten oiñarrizko ondasunak sekula ezin dirala kendu, nai-ta gaiztakeria garrantzi aundienetarikoa izan. 3^ogn. – Ez eskatu eta ez kendu ezelango zergarik fogerarena baiño. 4^ogn. – Ez irasi edo ezarri billa`rik, Bizkaitar batzartuen baimenik gabe. 5^ogn. – Bizkaitar guztien bizitzak, lurak, etxeak eta ondasunak babestu, edozein jaun, errege edo erriak mindu edo nai-gabetu gure dabezanean. 6^ogn. – Jauna`k beti babestuko dauz gure lur onetan dagozan legeak, askatasunak eta oitura onak.

Jauna, baldintza orreikaz beartuta geratzen zan Bizkaïko bost-merindadeetan: Busturia, Uribe, Arratia, Bedia eta Zornotza.

2.8. – Jauntza betiko artzen zan?

Bizkaitarrak..., jauna bere jaurkintzatik kendu leikien... ..., ziñ egindako baldintza orreik bete edo lotsakortasunean ez ba-ebezan eukiten.

Bai! Bizkaïko batzarrak, eta Gernika`koak batez be, agintaritzan ez eban euki mugarik, berena izan zalako berezko jabetasuna. Orregaitik Bizkaitarrak eurak izan ziran aukera bakarra euki ebenak jauntza ipinteko eta kentzeko.

Ori da 1.137`an IV Lope`gaz egin genduna, VII Alfonso Gaztelako erregearen alde egon zalako Nafarroa`ko errege VI Garsea edo Gartzia`ren aurka borrokan egiteko: bera kendu eta Nafarroa`ko erregeaz alkartu.

Eta Gaztelako errege IV Enrike`gaz 1.454`an Epailla`ren 4`an: Errege onen jaurkintzazko leenengo denboretan, gure forua`ri ziñ egin barik bere jabetasuna artu gurean ibili zan, egia da, edo mandio urdiñenak egiten (haciendo el remolon) bai baintzat, gudartean ibili zalakoen aitzakiaz.

Azkenean eta iru urte geroago 1.457`an Epailla`ren 2`an foruak zindu ebazan edo gure batzar nagusiak beartuta zinpetu ebazan.

Gerta-egun orretan, Gernika`n Antigua`ko Ama`ren Elizan lur-zelaiko erriaren foruak zindu ebazan eta ille beratako 10`ean Billa`koak Bermio`n.

2.9. – Zer jazo zan jaun eta errege zanak uri`ak eta erria`k saldu nai ebazanean?

1.469`an surrumurrua zabaldu zan, erregeak Bizkaïko billak eta lurak saldu ebazala. Bizkaitarrak surrumurru orrein azalpenak eskatuta, erregeak guzur aundiak zirala esanda, bakeztu eban urduritasuna.

Eta erregeak ostera be guzurtu egiten dauz beren eskutitzan Bizkaitarrak, andik denbora gitxi barruan Señorioa zatitzea edo ataletan alokatzea Gaztela`ko erregearen asmo oso-osoan izan zalako.

Bizkaitarrak batzartuta erabagi au artu eben: Jaun-txar ori bereala kendu. Eta olan egin eben, beren ugaz-arraba (hermanastra) Isabel jaun lez izendatuta, gero Isabel “katolika” izango zana.

IV Enrike`k ez eban on-artu erabagi ori, leenengo maltzurtasunez jokatuta, larderiaz gero eta Mungian 1.470`an Epailla`ren 4`an gure aurka galdu eben guda`ren bidez azkenean beren jauntasuna bir-eskuratzeke.

Eziñean eta guztiz minduta beren errege-aundikerian, Enrike berak on-artu eban bizkaitarren agindua beren gaiñetik egoala eta euren eskuetan bakarrik jauntzaren ipini-kendua.

Argi ikusten da Bizakaia`ren jabetasuna eta Gaztelarreko erregeakaz, arrem guztiak itzarmenekoak zirala.

3.0. – FORUEN EDESTIA

3.1. – Zelan egiten ziran gure foruko legeak?

Gure betiko legeak: Euskal sendiaren eguneroko arazoak bideratzeko izan dira beti. Orregaitik berezko Nortasunaren izaeran, beti ordezkatu eta ospatu ziran leize-batzarretik asi-ta, zugatzpeko auzo-batzarra, bas-elizen edo eleizateko erri-batzarrak eta erri-arteko batzar-nagusiak.

Olantxe egin ziran millaka urtetan Euskal-alkargoa bakezko batzangotasun baten zaintzeko, eta Euskal-izkuntzaren etxagintza sinismen guztiagaz, jakintzaz eta trebetasunezko maixutasunean eraikitzeko.

3.2. – Erromatarrak zer ekarri eben?

Baiña erromatarrak etorri ziran gure Euskalerrira, eta gure izaera euren nortasunagaz jantzi gurean ibili ziran.

Euren malda-berakoan ekarten ebezan leenengoko sasi-jainkoak desagertu ziran, baiña sekula be ez goitik-beerako menperatzaillaren jaurkintzazko erak. Nai-ta guk denbora guztian gure euskal-gorputzaren Nortasuna birreskuratu, autsaren azpian itzi ebezan txingarrak ez ziralako amatau.

3.3. – Kristautasunak zein arrizku ekarri euskun godoakaz batera?

Kristautasuna sartu zanean, onek-be beren nortasuna ekarri eban latin menperatzaillagaz batera. Eta Konstantinok emon eutson indarragaz alderdi-kidetasunean ezarrita geratu zan.

Godoak etorri ziranean, auts-azpian egon ziran menperatzaill txingarrak ostera be biztu ziran, nai-ta onein aurka guk ondo babestu.

3.4. – Mauritarrak zein eredu ekarri euskuen?

Mauritarrak etorri ziranean, guk akatz galanta euki gendun, euren laguntzaz erregetza ezarri gendulako, Nafarroan eta Euskal lurralde guztietan jauntasuna ipini bear izan gendualako.

3.5. – Eleizearen jokabidea nundik nora joian?

Mauritarrak atzeraka asi ziranean Godoak be desagertu ziran, baiña Eleizaren agintari batzuk katolikotasuna gura ebelako, Konstantino`gandik euki eben alderdikierizko indar-dogmatikoagaz, goitik-beerako aginduak eta ordezkoko ardurak esku baten bakarrik euren ustez egon bear ziralako, menperatzaill txingarrak ostera be berbiztu ziran, ta geien gure jaun-erregetzan eleizaren agintari orrein bitartez, Europa guztian ondoren bardiñakaz geratu giñan.

3.6. – Noz amaitu ziran gure foru-batzarrak?

Gure batzarrak askatasun guztian joan ziran ospatzen XIX`garren gizaldirarte. Orduan ikusi eben izkilluakaz indar aundian egozala eta 1.876`an batzar eta Euskal-Nortasunaren buruak moztu ebezan.

A ta-guzti, ez eben lortu Euskalerrria menpetzea, Europa'ko erregetza Eleizak euki ebazan agintari erdirakoi batzuekaz batera itzarmenduta egon arren, geie-nean beintzat.

Orregaitik ikusi daigun noz asten diran benetako borrokak eta maltzurkeriak gure foruen aurka.

3.7. – Zer jazo zan Padura-Arrigorriagan 888`n urtean?

PADURA – ARRIGORRIAGA 888`an III Alfonso`ren aurka:

Asko izan dira godoak eta Mauritarrak desagertu arte eta ainbeste ostean, gu garaille eta Nortasun osoan agertuta, baiña Pelayo`k Asturias`eko erregetza ezarri ebanetik, batera asten dira zirikatzeak.

3.8. – III Alfonso Bizkaia`n eta Araba`n.

Asturias eta Leon`eko erregetza bat eginda geratu ziranean, III Alfonso errege zala. Onek Euskalerrria menperatu gura eban Araba`tik asita. Arabarrak euren jaun Elion`egaz guztiz asarratuta egon ziran lez..., III Alfonso`k borroka barik eskuratu eban Araba.

Gero Bizkaia menperatzera etorri zan. Gaur baiño, askoz aundiagoa zan Bizkaia: Sartaldetik asita Kastro Urdiales eta Mena ibarra Bizkaitarrak ziran; eta Sortaldetik: Deba errekek ureztatu egiten dauzan lurrak; bai Eguerdi edo Egoaldetik Aramaiona eta Ayala ibarrak.

Bizkaitarrak aurre egin eutsoelako, Alfonso`k beren anai Ordoñori deitu eutson, eta guda-indar askogaz Orduña-Amurrio eta Luxaondo (Luyando)`ko bidetik Bizkaia`ra sartu zan.

Bizkaia`ren guda-indarrak gure Jaun Santxo Etegiz (Jaun Zuria)`en aginpean, Ordoño`ren gudalozteari Padura`raiño itziten dautso sartzen, eta bertan birrinde egin ebazan Alfonso`ren guda-indarrak, Ordoño bera-be an il zan eta Padura`ko eleizaren sarreran illobiratuta dago. Santxo Estegiz be bertan il zan eta beren gorpua Durango`ko Tabira`n San Pedro eleizan dago illobiratuta.

Borroka au 888`an Azaro`ko 30`an San Andres egunean egin zan, eta orregaitik ortik aurrera Bizkaia`ko Askatasunaren itxurapenez artuta dago Ander deunaren kurutzea.

3.9. – Beste borroka batzuk, Oñaz ta Ganboatarrak

Asko izan dira borrokak espainolakaz, eta asko gure arteko borroka latzak nagusitasuna lortzeko menperatzaillaren ereduari begira, Oñaz eta Ganboatarraren artean.

Gure Jaun eta Espaino`en erregeari ikaragarritzko aukera emon jakon Billa`k eraikitzeke, gure arteko borroketatik babesteko, eta batez, euren bardin-gabeke lagun-koipetsua aundiagotzeko. Baiña gauza eder-bat beti gertatu zan: Etsaiaren aurka, beti alkartzen zirala.

3.10. – I Pedro Gordexola`n eta Otxandio`n. Jaun txar au zelan kendu gendun.

Gordexola`ko borroka I Pedro`ren aurka 1.355`ko Urtean:

1.355`ko urtean Gordexola`ko borrokan, Ganboa aldeko Abendaño`tar Iban, eta Oñaz aldeko Muxika`tar Peru`k, ankerra deritson I Pedro biotz-gogorrekoari

eta D. Tello`ren anaia zanari, izugarritzko astin aldia emon eutsoen, bere guda-
taldean ikaragarritzko ondarena egiñaz.

Otxandio`ko borroka I Pedro`ren aurka 1.355`ko Urtean:

Baiña onek ez eban gura gure askatasuna, eta ostera be 1.355`ko urte
berean Otxandio`ra etorri zan, eta bertan ostera be Abendaño`tar Iban eta Muxi-
ka`tar Peruk beste ainbeste egin eutsoen.

1.366`an I Pedro bere sasiko-anai Trastamara`ko Enrike`gaz borrokan ibili zala-
ko, Tello ostera be Bizkaira etorri zan eta jauntzat artu gendun, gure aldetik Jaun-
txar ori kentzeko eta Gaztelarren erregetzatik alde egiteko aukera aundia eukinda.

3.11. – III Enrike eta bere seme txikia zelan egin zan jaun?

Foru-Baimena (Pase Foral):

Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa`ko batzar nagusiak euki eben jabetasunezko
aalmena, Jaun-erregeak bialdutako legeak aztertu eta gero, forua`kaz adosta-
sunean egozan ala ez esateko.

III Enrike gaxoa edo atsekabeduna deritxona 1.406`an il zanean, urte-bi bete
barik euki ebazan bere semea II Juan, gure jauntzan IV izango zana, izendatu
eben Gaztela`ko errege.

Gure arbasoak bere aitordea zin egitera beartu eben, eta IV Juan be bai bere
aundiagotasunean.

3.12. – Foru baimena zer zan eta zelan beteten zan?

Dana dala, urte inguru orretan, Espaina`ko gortekoak gure FORU-BAIMENA
ezereztuteko edo baztertzeko alegiñetan ibili ziran, baiña gure batzarraren asa-
rrea ikusita gero, Jauna Bizkaia`ren batzarrean 1.452`an Uztailla`ren 21`ean Ger-
nika`ko zugazpean batzartuta, gure oiturazko legeak idatzi eta legedia egin bear
zirala erabagia artu eben.

Ondo eta argi ezarrita andik aurrera: “Jauna`k Bizkaia`ri bialdutako agindua
edo eskutitza gure Forua`ren aurka ba`egoan menpekotasunean artua izan dai-
tela, eta ez bete”.

Arazo guzti orreik ikusita, 1.526`an kontu aundiagoaz ibili ziran Bizkaitarrak,
Foruen berrizkuntza egin eben orduan, gure FORU-BAIMENA`ren gora-beran ,
ondo, argi ta garbi itzita zalantzarik ez daiten egon: “gure Berriztutako Forua`k
diñoen lez beren XI`garren legean, I izen-buruan”.

1.839`an Urria`ren 25`an Espaina`ko gortek Espartero buru zala, gure Forua`k
Ikaragarran murriztu ebazan, eta 1.841`ean FORU-BAIMENA kendu eban.

3.13. – Mungia`ko gudaldia zergaitik egin zan?

Mungia`ko gudaldia IV Enrike`ren aurka 1.470`ko Urtean:

IV Enrike`gaz gure jauntzaren II izan zana, 1.470`an Jorrailla`ren 27`an Mun-
gian euki gendun borroka latzgarrian, Espaina`ko gudaloztea Aro`tar kondea
Fernandez de Belasko`k bideratuta, eta Euskaldunak Abendaño`tar Peru ta
Muxika`tar Iban`ek.

Borroka onen bidez IV Enrike ergelak Bizkaia oinperatu gura eban, baiña ia
gudalozte guztia ilda bertan itzita, Aro`tar kondeak buztena ankapeetan daroa-
la Espaina`ra joan bear eban, Bermeo`ko abade batek eroan eban Laredo`ra eta

orregaitik jauntzatik kendu gendun, bere arreba Isabel'en eskuetan itzita, gero Espaina'ko I Isabel katolikua izango zana.

3.14. – Zelan jokatu eben errege katolikuak Euskalerrriaren askatasunagaz?

Isabel 1.473'an Urrilla'ren 14'an Bizkai'ko Jaun (andra) izenpetu eben, eta 1.476'ko udan, V Fernando Katolikuak Fueroak zindu ebazan emaztearen ordezkioak beteten.

1.481'an errege katolikuak fede-zaindi edo inkisizioa'ren bildurgarrizko auzitegia ezarri eban, eta Bizkaitarrak itsu-itsuan ontzat artu eben auzi-epaile orreinean babestea, kontuan artu-gabe, euren askatasunarentzat aurrera begira ze negargarrizko ondorioak ekarriko ebazan.

1.512'an Fernando'k Nafarroa menperatu eban, eta Nafarroa'ren oitura ta legea'ri lotsa aundia erakusten dautso, baiña 1.515'an Nafarroa'ko errege bereziai bide guztiak moztu egiten dautsoez errege-aulkian ezartzeko, eta Gazteila'ko erregetzaz alkartu egin eban Nafarroa.

3.15. – I Karlos'ek eta II Felipe'k?

I Karlos'ek ondo ezagutzen eban gure Nortasunezko-legedia, itxuran beintzat, lotsagizunezko arreran artzen ebalako. Baiña kontuan eukinda, Nafarroa'ko erregea ez dauala bere jar-lekuan ezartzen, Be-Nafarroa arbuia, eta Auñamendia berezko muga antzeko baten itzi eban.

Itxura baten diñot, 1.521'an I Karlos'ek Billalar'ko guda-lekuan erkidetasunen (comunidades) buruzagiak (comuneros) menpetu eta il ebazanean Gaztelatarren foruak desegin ebazalako, artean Araba'ko buruzagia (erkidetasunaren aldekoa izan zana) Gonzalez de Baraona il eban, Gazteiz'ko plazan burua moztuta.

II Felipe'k be esan leike, foruak itxura baten ardura aundiz zaintzen ebazala, baiña zergaitik esan orduko, kontuan eukin bearda Aragoi'ko zuzen-zain nagusia il ebala.

3.16. – Oñateko Ikastetxe-Nagusia nork eta zertarako sortua zan?

Oñate'ko Santi-Spiritus Ikastetxe Nagusia:

Benetan aipatzekoa da Oñate'ko Santi-Spiritus ikastetxe nagusia, Santxez de Merkado eta Zuazola'tar Rodrigo, Avila'ko Gotzainari, zor dautsagu ikastetxe nagusia, bere 1.533 urteko azkeniari esker.

III Paulo Aita Santua'k, ikastetxe nagusia egiteko bulda, 1.540'an Jorrailla'ren 23'an emon eban, Salamanka, Bolonia, Paris eta Alkala'ko ikastetxe-nagusiak euki ebazan Foru ta lege-bereziak emonda.

Eta emen aipatzekoa dan zeaztasuna.

1.545'an Dagonilla'ren 31'n, Ikastetxe-nagusia erregea ta bere ondorengoai utzi jakien lez, II Felipe'k 1.569'an Epaila'ren 27'ko errege-agiriaren bitartez, Ikastetxe-nagusiaren ikusketa bat agintzen dau, Hernan Suarez de Toledo Dotorea bialduta: "etxe orren legeak eta oiturak ez dirala gordetzen aitzakia-gaz". Dana Goitik-beerako ta erdirakoa dan Bisgotikoaren Fuero-juzgo'agaz adostasunean ipinteko, larogeta amazazpi lege barritan ezarrita, eta maixu biltzarraren aurrean irakurrita, 1.569'an Loraila'ren 23'an.

3.17. – Azaldu egizu zer jazo zan gatzaren zergaren arazoan?

Gatza`ren zergea:

1.581`an II Felipe Lisboa`n egoala, beren gobernuko ministru edo serbitzariak, Bizkaia`ko gatza zergapetu gura eban. Beren ezaguerara eldu zanean, bereala agindu eban Bizkaia`tik agintza ori kentzeko.

1.590`an bai erakusten dau lotsagizun eta neurri aundi baten zentzutasuna. “Servicio de millones”ekin Espaina zergapetu ebanean esan ebalako: “zerga ori Espaiña`ko errege lez ipini ebal, ez Bizkaia`ko Jaun lez”, Felipe`k ondo jakin ebalako, zelako eskubideak euki ebazan Espaina`ko errege lez eta Bizkaia`ko Jaun lez.

Baiña, 1.598`an III Felipe errege-aulkira igon zanean (beren gobernuko zeregiña Duke de Lerma`ren eskuetan itzi ebana), berak ezer jakin barik (edo alan aitzenda beintzat) eta ezer aldarrikatu edo oiuzkatu barik, beren gobernuko ministruak indarkeriz Bizkaia`ra etorri ziran (Bizkaitarrak denborarik ez dagian euki euren babeserako) “servicio de millones” ko zergak eskuratzeko.

Bizkaitarrak: eurakaz zerga orreik ez daukiela zer ikusirik esanda, besteak gogorkeriz asi ziran, eta Jauna`ri bialdutako mezuak beren lekura ez ziralako eltzen, Bizkaitarrak 1.601`an Loraila`ren 10`an Gernika`ko zugazpean batzartuta eskutitz au bialdu eutsoen:

“Muy alto Padre”

Señor:

Visto por Nos esta antigua è honrada Señoria de Vizcaya lo mal que V. M. està informado, por orden del Consejo de Castilla, en querernos agraviar y tratar mal tan al descubierto, en recompensa de los muchos y grandes y leales servicios que esta antigua Señoria de V. M. , en mandarnos que pagàsemos ciertos pechos à Derechos como los demàs buenos hombres de esos Reynos de Castilla pagan; hicimos Junta General de Cavalleros è Hijos-dalgo de esta Señoria en esta nuestra Villa de Gernika, que los reyes antepasados de V. M. nos dieron por nuestros honrados servicios, hallamos que queriendo usar V. M. de tanta riguridad con nosotros y quebrantar nuestros honrados Privilegios (Bizkaitarren artean orduko denboratan itz onek ez dau esan gura Espainolaren artean gaur esaten dauana, beren berezitasunezko erri ta legeak zirala baizik) y la autoridad que nuestros honrados padres han tenido: que debiamos de suplicar y pedir humildemente à V. M. sea servido de mandar que se borre, teste y atilde de sus Pragmàticas Reales lo que à nosotros toca, pues es justicia lo que pedimos; y, suplicamos à V. M. no hubiese lugar de hacernos, nosotros quedamos obligados à defender nuestra muy querida y amada Patria, hasta ver quemada y assolada esta Señoria y muertos mujeres è hijos y familia, è buscar quien nos ampare y trate bien.

Esta lleva D. Pedro de Gamboa, Diputado de esta Señoria, gran servidor de V. M. ; no sea èl solo culpado por ello, antes V. M. le haga merced, porque fue importunado para ello.

Dado en nuestra Villa de Gernica en 12 de Mayo de 1.601.

Vuestra antigua y leal Señoria de Vizcaya, que al servicio de V. M. queda. ”

1.601`an Loraila`ren 24`an III Felipe`k beste eskutitz bategaz atzeraka egiten dau, eta Bizkaitarrai esaten dautse: “nire aurreko erregeak zer egiten eben ikusita, zuekaz nik be alan beteko dot ”.

1.602`an urrengo urtean, Fuegoai ziñezko-itza emon eutson.

IV Felipe 1.621`an errege-aulkira igon ebenean (onek gobernuko zeregiñak conde-duke de Olivares`en eskuetan itzi ebazan), ostera be asten dira Foruen aurkako ekintzak, gatzari zergak ipinita.

Olibares`en gogamenean ez ziran egon gure Foru-legediaren jabetasuna ta onein esku-bideak, ez ebalako jakin, eta leenengoetan berak esaten ba eban: beste lurraldearen ezberdintasunean eta gure zor-gabetasunaren eta berarizko legearen aurka dagoela.

Gero beren ezagutzara jakintza orreik eldu ziranean, bera izan zan gure Foru ta jabetasunak babestu ebazana goi-mallako arrazoiak erabilia Espainaren laterrizko aolkularitzan.

Berak egiten ebana sinis-betean egiten ebala aitortuta, gure eskubideak, gureak bakarrik zirala jakin ebalako.

Erriko kaleetan ikaragarritzko borroka egin zan, eta ez gutxiago Bizkaiko batzarrak erregeari bialdu eutson guda-zibillaren keñua zan eskutitzagaz:

“que el monarca no tenia poder ni fuerza para conquistar Vizcaya, respeto de que, aunque fueran gruesos ejèrcitos de mar y tierra, la naturaleza de ella era tal que todos habian de perecer, como les habia sucedido a todos los reyes que habian enviado armas contra ella”.

Bakeztu zan larrialdia, baiña erregetzak erritarrak egin ebezan borrokagaitik, ordain edo mendekuak artu ebazan, eta borrokaren aintzindariak espetxean sartuta 1.634`an Loraila`ren 24`an, espetxean bertan eta garrote-bil`ean il ebazan: lizentzidun Morga eta Sarabia; de la Puente eta Urtusaustegi`tar Juan; eta Otxoa ta Ojarabide`tar Martin Señorío`koak. Beste irurak: Larrabaster eta Amuñari`tar Juan; Bizkaigana`tar Juan eta Domingo anaiak, erriko enparantzan gargailez ito edo urkatu ebezan.

Eta Aberri baten judas edo saltzailleak beti egoten diran lez, oraingoa: Juan Alonso de Idiaquez eusko-mazal edo zalduna (caballero) zana, erregeak Ciudad Real`eko Duque`aren aundiki-izenagaz jantzi ebana zan, espetxe ta ilketa orrein aurretik ibili zana.

Lasa eta Apalategi`tar Jose`k beren liburuan esaten dauan lez: “Euren gorputzak illobian eustuta egongo dira, baiña euren izpirituak gure artean bizi-bizirik dagoz”.

3.18. – Lau urteko jaun-gaia eta onen ama Mariana nortzuk dira: V Felipe.

Sorgindutako II Karlos`ek 1.665`an errege-aulkira igon ebanean lau urtegaz bakarrik, beren ama Mariana de Austria`k artzen dau gobernuaren ordetza, 1.675`an D. Juan de Austria`k gobernua aolkulari lez artu arte, eta II Karlos`ek ez ebalako ondorengorik euki, bere arreba nagusia Frantzia`ko XIV Luis`egaz (rey Sol) eskonduta egon zan bir-semearen V Felipe Borboien eskuetan erregetza itzi eban. Austria`tarren errege-leiñua amaituta.

V Felipe onek, agintaritzan eta banakuntzaren eratan beste irudi barri-bat ekarri eban, erdira-naien absolutismu edo al-osokerizko eta berdinzalea izan zana.

Onegaz sortzen diran arazoak, ez dira Austriakaz Fuero`en gora-beran adostasunezko neurrian euki genduzan zalantzak, ez! Onegaz..., jokoan egon ziranak, gure Euskal izatearen Foruak, Nortasuna, Jabetasuna eta Askatasunak izan ziralako.

V Felipe 1.700`ean, Espainia`ko errege-aulkira ondorengoaren edo “sucesion” gudaren bidez igon eban, 1.714`an Irailla`ren 11`n Bartzelona artu eben orduan amaitu zan gudea.

Guda orren ankerkeria zelakoa izan zan jakiteko..., ezta besterik, Katalanak "DIADA" izenagaz zer ospatzen daben ikustea baiño.

1.936'ko Franko'ren guda ostetik Katalanak debekatuta euki eben egun ori ospatzea. 1.977'an emon eutseen baimena ospatzeko.

Eta "Irudi Barri" (Nueva Planta) baten erabakiaz Aragoi eta Kataluña'ko fue-roak kendu ebazan.

3.19. – Mugen edo Aduana`ren arazoa: itxasoan ala Ibero ibaian?

Euskaldunak, Kataluñan gertatutakoa ikusita, belarriak tente euki ebezan arrazoi guztiaz, gurera laster etorriko zala bildurragaz. Eta bereala agertu zan, gure zerga-mugak (aduanas) barrutik itsaso'ko mugara eroan ebazalako.

Eritarren artean, ikaragarrizko arrabots, zalaparta eta istillu "MATXINADA"ren izenagaz gogoratzen doguna egin zan, Begoña'tik asi ta Bilbora beratuta. Uribe eta Busturia'ko merindadeen errepublika askok artukizun aundia euki eben MATXINADA orretan.

Billa'tan gauza asko apurtu ziran sarraski aundiak eginda, Bilbao`n, jauntxoen jauregietan eta batera edo erdirakoi lez aipatuta egon ziran etxeetan.

Ez zan il ta zauritu bako Matxinada, Bermion Udaletzeko bakoitik gizon esku-bidedun aundi bat plazara bota eben; Bermion eta Portugaleten agintarien serbitzuko kabarra edo gabarra erre egin eben; Otxandion Bergaratik igeska etorri ziran Rokaberde'ko markesa eta beren laguna il ebezan; baita gitxien merezi ebanak olako azkena emotea, Bizkaï'ko ordezkari nagusia izan zan Arana'tar Enrike be.

V Felipe'k atzera eginda, zerga-mugak ostera be beren lekuetan ipini ebazan, baiña matxinadako buru izan ziranai auzi-bideak zabaldu jakiezan, eta 1.719'an Urtarrilla'ren 18'an espetxeratuta, Bilbao'ko espetxean il ebazan 15 Bizkaitar eta Eskoriatza'ko bat, gero Plaza-Barrira ekarrita, buruak moztu eutsoezan señorio'ko ainbat lekutan zikaletan (picas) buru orreik sartuta, Euskalerriko seme-ala-bak ikusi daiezan.

3.20. – Soldaduzkaren arazoa eta V Felipe.

1.734'an Urtarrilla'ren 31'n, V Felipe'k Espaina'ren lurralde guztietarako naita-naiezko soldautza agindu eban, Euskal lurraldeak izan ezik, euren erriaren jabetasunezko legeak euki ebezalako eta orregaitik Euskalerriak bear ebanerako bakarrik soldauzka egiten ebalako.

3.21. – Zamakolada zeri deritxo?

Zamakola`ren arazoak:

Gure Fueroen aurka, XVIII.n. `go gizaldi guztian eten-bako auzitaldi liskarza-learen ekintza bat izan zan Gernika'ko batzarrak Bizkaia'ren Jauna'gaz euki ebena, Fuero`aren kilikolotasunak orekan iraun dagian.

1.804'an Zamakolada aipatzekoa da, baiña bakarrik esango dot Zamakola'tar Simon Bernardo, Dimatarra bera, eta Arratia'ko merindadearen Fuero'ko Alkatea zana, jakituri aundiko gizona eta Euskal-Abertzale aundia izan zala.

3.22. – Napoleon`ek zelako artu-emonak izan ebazan gure askatasunaren bide luzean?

Napoleon 1.789'an, Frantzia'ko iraultza asi-ta, Versailles`en Dagonilla'ren 4'an lege-gaiaren autapena egin zan, eta onek gure Iparraldeko foruak ezereztu egin ebazan.

Frantzia`ko lurralde`en jauna izatetik, Frantzia`ko errege izatera aldatu ziran, erri berezi guztiak iruntsi ta menperatuz, Frantzes izkuntzara danok beartuta.

Esan bearrekoa da, Euskaldunak ez genduzala jakin Napoleon`ek guretzako euki ebazan egin-naiak, beren asmakizuna Euskalherri guztia batera eukitea zala-ko.

Garat Senatoreak Napoleon`eri bigaldu eutson idaz-saio bat, Frantziagaz bildu daitezcan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa, Euskaldunen artean babes-lurra osotu dagien "NOUVELLE PHÈNICIE" deituko zana.

Or euki gendun Euskaldunak parebako aukera ederra lurrak eta senitasuna batera agertzeko.

Baiña beste aldetik 1, 790-1.791`n gogor asi ziren zigortzen Euskal gizon/emakume, apaiz, gotzain`ari gillotinatuz lepoak mozten eleizak erretan eta lapurretan, 1794`an izu-ikara negargarri au goi-maillakua egin arte. Orregaitik Euskalherria beren apaiz eta erritar`ekin Inghlaterra`ren aldetik kokatu zan.

3.23. – Ondorengo ekintzak Espaina`gaz eta Frantzia`gaz.

Ortik aurrera Euskalherriko zazpi lurraldeak Espaina ta Frantziatarrak euki ebazan borroka guztietan sartuta egon gara. Eta gerra bilduma orren artetik aurrerantza gure nortasunari egindako erasoak: aundiak, zitalak eta etenbakoak izan ziran Euskadi`ren izaera desagertu daiten, Espainol ta Frantzez biurtzeko.

Baiña Espainola`kaz be 1.808`ko Uztaila`ren 7`an, negargarriko eginkizun bat sortu jakun Euskaldunai: VII Fernando`k beren aita IV Karlos`i erregetza emoten dautsonean eta onek Napoleon`eri, Euskaldunak Baiona`ko batzarrera itun-ordezkarria bialdu eben, eta onek Espaina`ren beste probintzi edo eskualdeko ordezkariakaz batera, an egin zen araudi barria apur-bategaitik ez eben on-artu, bai beren baimena emon be 1.808`ko Uztaila`ren 7`an egin zan konstituzio barri orreri.

Gure ordezkariaren jardun-aldi ori, bada-ezbadakoa edo zalantza andian ezartzekoa bai beintzat izan bear zan, Frantzesakaz berak egin bear ebana, gure señoarioaren jauntza eskeintzea izan zalako beti danik egin zan lez, Gernika`ko batzarrak eta beste Euskal batzarrak agintzen eben antzera, gure legegintzaren eta askatasunaren eskubideak babesteko, Espaina`ko gorteetan Euskaldunak sekula ez ebelako euki ordezenik eta Euskalherrian euren erregeak jaun lez, beti izan diralako ordezkoak bakarrik.

Lau lurraldeko Euskaldun-ordezkoak, sekula ez eben joan bear Baiona`ko batzar orretara, gero Espainol ordezkariak ez ebelako iñungo tiramenik on-artuko, euren gogamenean gure Fueroak Espaina`ren erregeak emonak zirala uste ebelako.

Baiña zorionez, gure lau lurraldeko ordezkariak bereala konturatu ziran egiteko egon ziran astokeriagaz, eta Napoleon ta erregea`ri euren eskaerak bideratuta, erabaki-au artu eben: gure Foruak ikertu edo azterkatuak izan daitezcala leenengo batzarretan, lurralde onein eskubideai erabagiak egokitzeko. Eta ekin-tza orregaz desegin ebazan, bertan egon ziran leenengo asmoak.

Napoleon`en etorkizunean, gure foruen aurka ibili ziranai beste aukera eder bat agertu jakien gure legeak espainola`kaz naaztu egiteko: 1.809`ko Epailla`n, Bizkaia`tik Franzisko Antonio Amoros agertu zan Jose erregeak Espaina guztientzako egin ebazan legeak ezartzeko, baiña "oiz besteko edo neurriz-gaiñeko errudun-batzarra" k ezarri ebazan legeak, Euskal legearen guztiz aurkakoak ziran.

Kadiz`ko Korteak:

3.24. – Kadiz`ko korteetan zer kendu euskuen?

Euskalerrientzat berraro agertzen dira mamuak edo txakur ametsak: 1.812`an Epaila`ren 18`an Euskalerraren aurka eta beren sumin edo asarraldi osoan, Bizkaia`ko ordezkariak Kadiz`eko gorte edo batzarretan agertu ziran Euskal jabetasunaren aurkako legeak zifinatuteko.

Batzar onetan, argi ikusten da gudaloztea erregearen gaitetik ezartzen dala, eta erdi ugarte onen barruan dagozan lurraldeak eta erriak, gura nai-ez, lege orren barruan sartzen dabezala 1.809`an Epaila`ren 19`an, Euskal lau lurraldeko batzarrak ezereztuta.

Argi ikusten da au be: Euskal eskuma`ko giza-semeak zelan ibiltzen ziran Euskal-etxearen kalterako, gure Nortasuna desagertu daiten. Konturatuko ziran. . . , euren Euskal-izaera il daiten alegiñetan ibili zirala?

1.812`ko Dagonillan, Mendizabal gudal-buruak Frantzesen gudaloztea kanporatu egin ebanean, batzarrak batu ebazan aurki guztietan Euskalerriko askatasunaren aurkakoak ezarrita, Kadiz`ko batzarretan zifinatu zanari, bir-baietza emoteko.

Euskal-etsaiak gauza onekaz gura ebana: euren esanak “Bizkaia`k on artuta euki ebazala Espaina`ko iraspenna” eta “Espaina`ko gudalozteagaitik bir-eskuratua izan zala”, danon gogamenetan betirako on artua izan daiten.

Ori gura eben eurak, baiña..., nai-ta Espaina guztian Kadiz`ko batzarrai ikaragarritzko amurrua euki, 1.808`an Uztaila`ren 26`an erregeak Frantzitik agindu bat oiuzkatu eban, eta nai-ta bera ez-baiezko agindua izan, Kadiz`ko gorteetan egin ziranak ezereztuta geratu ziran.

Euskaldunak Fuegoak bir-eskuratuta, erregeak 1.814`an Uztaila`ren 29`an Fuegoak zinpetu eta baieztu egin ebazan.

Bizkaia`k une orretatik beren askatasunak berrezkuratu ebazan, eta Bidasoai-baian egon ziran zerga-mugak (aduanak) ostera be Ebro-ibaian kokatu ziran. Baiña laterri-lege orretan artu gendun lenengo “provincias vascongadas” izen baragarria.

3.25. – Foruak eta lege-eskubidea kentzen.

Baiña Euskalerraren aurkako arazoak ez dira amaitzen emen, asi baiño ez diralako egiten.

1.819`an: Euskal-lurraldeetan berriztutako batzarra, errege-aldeko diru-arduradunak egiten ebezan geikeriaren aurka, eta Fernando berak eraiki ebana ta egite-ebazan itaunak guri begira, argi ikusten da gure Fuegoaren aurka alde-biko eginkizunak betetan zirala ekintza orreitan: gure zergak eta gudaloztearen legeak ezereztu edo aldatuaz alde batetik, eta Euskal-legeak egiteko euki gendun jabetasuna kendu edo aienatu bestetik.

Mugak, ostera be aldatu ziran itsasora eta Auñamendietara Kadiz`ko Laterri-lege nagusiak agindu eban lez, eta Rafael de Riego gudal-buru nagusiaren matxinadaren bidez, 1.820`an gure Foruak ezereztu.

Euskaldunak emendik aurrera, alderdikertzko naaztetasun eta borroka aundietan sartu giñan, 1.820`tik 1.823`ko bitartean, eta Frantzesak Nafarroan sartuta geienagaitik askatzaille lez eta gitxiengaitik etsai lez artuta, bakeak lortu ziran.

San Luis`en 100.000 semeen eraso-aldi onek, liberalkeriaren aurkako yaurpide edo gobernu bat ezarri eban, eta 1.823`an Foruak ostera be bir-eskuratuta

genduzan. Baiña VII Fernando 1.833`an Irailla`ren 29`an il zanean, Karlistadaren borrokak asi ziran, ortik aurrera gure ondamendia sortuta.

3.26. – Karlostarren gudak ondamendirako bidea eta Iparraldeko erasoak.

Euskalerrian Karlistadako guda aituteko, Frantziko iraultketak politikako zentzuan zabaldu ebazan bide biak kontuan euki bear dira. Bata: erregearen muga-gabeko aginduan, jaurkintzan aundikiak egon zirala elizagaz batera beti lez; eta bestea: aurrerakoia zana esaten eben lez, agindua errian ezartzen ebana, errege edo errepublikako jaurbide bategaz eta eleizagaz guztiz bananduta.

Leenengo ezarpen au, guztiz okerrekoa izan zan, bai Euskaldunentzat eta bai Europa`ko erri berezi guztientzat, lege bakar baten menpean sartzen genduzalako, erri berezien nortasunak, izkuntzak, jabetasunaren eskubideak eta oiturak ezereztuta. Eta bigarrena be bai, 1.789`ko urte orretan gure Euskal Iparrerean dagozan Benafarroa, Laburdi eta Ziberotarrai bardintzailezko lege orrekaz Foruak kendu eutsoezalako.

3.27. – “Ley Sàlica” eta Euskaldunak. Karlostarren gudak zer ekarri eben?

VII Fernando il edo zendu zanean, semerik ez ebalako euki guda sortu zan, liberalak II Isabel`en aldekoak batetik, eta antziñatar (tradicionalistas)`en aldekoak bestetik V Karlos errege izendatu gurean.

Euskalerrian liberaltarren alboan egon ziranak: gure irudizko eta dirudun gizon/emakuneak, ta batez be sal-erosle-arloan aundikiak ziranak, zerga-arauzko mugak amurratu egiten ebezalako, eta Napoleon`en aurka borrokatu ziran euskal gudaiburu geienak.

Antziñ-zaletasunezkoen edo Tradizionalisten alderdian: erriko apaiz geienak, ospetsu ziran gizon/emakume batzuk ta Napoleon`en aurka borrokatu ziran gudaiburu batzuk, Zumalakarregi artean zala, eta erriaren gizon/emakume geienak, V Karlos`en aldetik gure Foruen babesak euki gendulako borrokatu giñan.

Gure lau lurraldeko Foru-Aldundiak, Madril`eko liberal-jaurkintzaren alde egon ziran “FUEROAK eta KONSTITUZIOA bardiñak zirala esaten ebanak”. Eta erriak, apaiz ta buruzagi gutxi batzuen aolkuari erantzun da “ANTZIÑ-ZALETASUNEZKOAK (TRADIZIONALISTAK) edo KARLISTAK, JAINKOA eta LEGE-ZARRA`ri besarkatuta egon ziran”en artean, ikaragarriko borroka bi sortu ziran: 1.833-1.839 eta 1.872-1.876`arteko urteetan.

1.837`an Irailla`ren 11`n Madril`eko jaurkintzak esaten eban: “EUSKALERRIKO IRU LURRALDE ta NAFARROA`ko FORUAK BAIESTATUTEN DIRA, baiña! ERREGETZAREN BATASUNEZKO-JAURGOARI KALTE EGIN GABE”. Lege onegaz, gure Foruen jabetasuna ezereztuta geratu zan.

3.28. – Ondorenak.

1.841`an Urrilla`ren 29`an Espartero`k gure babesle nagusia izango zala esaten ebanak Euskalerriko lau lurraldeen Batzar-Nagusia debekatu ebazan, Espainia`ko lurraldeen neurrira beratuta.

1.843`an Espartero`ren gobernuak jausita, 1.844`ko Uztaila`ren 4`an Foruaren lege batzuk berrezkuratu egiten doguz, baiña zerga-mugak itsasoan eta Auñamendietan geratuta.

1.848`an Madril`eko gobernuaren agiri batek Euskalerriko Alkateak, eurak izendatuta izan bear zirala agindu eban.

1.853`an Iparagirre`k, Madril`en “Gernika`ko Arbola” abestu eban, eta denbo-

ra gitxi barru erdira-naieko gobernuak galbidezkoa zala-ta Portugal'era erbeste-ratu eban. Gero Ameriketara joan zan.

1.860'an Uztailla'ren 7'ko aginduagaz, gure batzarrak egiteko, erki-jaur-larien edo bardiña zana guda-jaur-larien baimenagaz bete bear zirala agindu eban.

1.864'an Espaina'ko lege-biltzarrean, gure Egaña'tar Pedro'k bere itzaldia egin eban orduan eta "NACIONALIDAD VASCA" esan ebanean, an egon zira-nen artean gorputz-ikara aundia sartu eban.

3.29. – Arana ta Goiri'tar Sabino'ren jaiotza.

Eta borroka bi onen bitartean, Euskalerrarentzat zoragarrizko egun aundi bat: "1.865'ean Urtarrilla'ren 26'an ARANA eta GOIRI'tar SABINO jaio zan EGUNA".

3.30. – II Isabel erregiña potolak zelan jokatu eban? Amadeo de Saboya. 1º Errepublikea.

1.868'an erregetzaren gobernu aipu-galtze edo malda-berako osoan egon zalako, II Isabel beren alderdiko liberalak erregetzatik kendu eban, eta 1.870'ean Azilla'ren 19'an I Amadeo de Saboya izendatu. Errege onegaz 1.872'an Jorrailla'ren 21'an Nafarroan asita bigarren Karlisten borroka asten da eta erregetzatik 1.873'ko Otsailla'ren 11'n kendu eban egun orretan, Errepublik-a sortu zan.

3.31. – XII Alfonso'k Somorrostro'n zer esan eban?

1.874'an Abendua'ren 31'n, gudalozteak errepublika kendu eban gobernutik eta XII Alfonso Borboia erregetzan ezarri, 1.875'an Urtarrilla'ren 1'ean izenduta.

1.876'an Otsailla'ren 28'an borroka amaitu zan, eta 1.876'an Epailla'ko 13'an Somorrostro'ra etorrita, gudaloztea berba onekaz biztu eban XII Alfonso'k: "Fundada por vuestro heroismo la unidad constitucional de España, hasta las màs remotas generaciones llegaràn el fruto y las bendiciones de vuestra victoria". Jorrailla'ren 6'an Euskal Aldundia'k Madrillen batzartu ebazan gudal keiña-duragaz esateko: Espainol-gudalozteak borroka irabazi ebala "sin pactos ni concesiones previas".

3.32. – 1.876 urte negargarria: zergaitik? Sagarminga'tar Fidel. Nafarroan zer?

1.876'an Uztailla'ren 21'an gure foruak ezereztu egin ebazan, Euskaldunak Espainol biurtuta. Sagarminga'tar Fidel'ek lege onen aurka urten eban beste Foru'ko alderdi- barri bategaz "GUZTIA edo EZER-EZ" esaten ebana, baiña dana alperrik izan zan. Lege oneik Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa'ri dagokiozanak bakarr-rik ziran, Nafartarrak 1.841'eko "ley paccionada"gaz beratuta egon ziralako. Egun orretan euren aldeko Kastela'ek esan eban: "Algo grande muere hoy en España".

3.33. – Lenengo deia soldaduzkarako.

1.877'an, gure edesti guztian, Euskal-gazteak beartuta, leenengoz deitu jakien soldauzka beteteko.

3.34. – "Ekonomi itunak ezarri ziran?"

1.878`an Otsaila`ren 28`an zenbateko diru-kopurua ordaindu bear eben Euskal-lurralde bakoitzak “conciertos econòmicos” ezarri ziran, leenengoetan zortzi urterako ziranak.

3.35. – Gureak egin dau? Larrazabal`en itxaropena.

Eta gureak..., ia ia egin ebanean, Arana eta Goir`tar Sabino Larrazabal`eko irrintziaz Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa`ko abertzaletasuna bizkortzen asi jakun, Nafarroan Kanpion`tar Arturo`k bardiña eginda. Berton eta guraso bi onekaz batera aipatzekoak dira Iturralde eta Sui`tar Juan, Aranzadi, Oloriz, Etxaide eta Ansoleaga.

BIGARREN ZATIA

1.0. – Gamazada`n zer egin eben abertzaleak?

Bizkaiian sortu baiño ez zan egin abertzaletasunaren ekitaldia Nafarroako Fueristakaz batu ziranean, Gamazada deritxon ekitaldean. Bilbao`n eta Gernika`n batzarrak eginda, ostean Espainol ikurriña erreta, Donostia`n Sagasta`ren aurrean Euskal asarrea gogor agertu eben eta Gazteiz`en izkanbil gogorrak egon ziran.

Onen ondorioz, Iruña`ko abes-batzagaz Gernika`ko Arbola`ri zin-egitera etorri ziran, Euskaldunak alkartzeko naian. Eta onen berotasunagaz 1.893-1.895 “-BIZKAITARRA” asteroko aldizkaria argitaratu zan, eta “ BIZKAI BURU BATZARRA” irasi eben.

Sabino`k Euskaldun guztien buruzagi-lez artuta 1.897`an “EL PARTIDO CARLISTA Y LOS FUEROS VASCO-NAVARROS” argitaratu eban.

1.1. – Euskaldunak, nora arte jausita egozan?

Ondo konturatu gaitezkan, norarte izan zan gure Nortasunaren berakada eta naaztetasuna, gure agintari, jakitun ta dirudunen gizon-emekumeen artean beintzat, ulerpide au ipiniko dautsuet; Bizkai`ko Foru-Aldundian zortzi talde-politiko`en artean osotzen zan jaurkintza: Katolikuak iru talde. – karlistak, integristak eta fueristak; monarkiko liberalak bi. – gordetzailleak eta fusionistak; eta iru errepublika zaleak. – radikalak, federalak eta posibilistak. BAT! bera esanda be ez ziran izan Euskaldunak, danak! ziralako espainolistak.

Geien igartzen dan Euskal-beerakada au, Sabinok Arantzadi`tar Ingartziri 1.901`an Urtarrilla`ren 5`an idazten dautson eskutitzan dago. Amaieran olan diño: “Euskalerrriak Gaur arte egin dauana, ara ez da eldu oraindik arazo-aldia, bere duintasuna, bere lotsagizuna eta zintzotasunak izan dira. Alan ba, bera begituten badogu, erri ber-bera esan leike nai-ta naiez iltzeko bidean dagoela. Baiña JAINKOA`ren eskuari begitzen badautsagu, BERA da eutsi dautsona, Nor-Berak itauna egiten dau...: JAINKOA IZANGO OTE DA... ... AU DESAGERTZEA GURA EZ DAUANA?

1.2. – Guda-artean eta geroago zer?

Emendik 1.936`era, gora doa Eusko-abertzaletasunaren indarra, ezin beste-ko lotsagizun aundiko ekintza baten, baiña Europa guztian espatakaz ezarritako Laterriak urduritu egiten dira, Madrille`n gorri-mamuaren aitzakiagaz erasoan

asita, eta nai-ta Frankotarrak eleizagaz batera iltzaille-fazista aundiak izan, Europa, Amerika eta Afrika'ko laguntza guztia euki eben Euskalerrria dan Berezitasunezko ikurriña menperatzeko. Berezitasunezkoai ez dautsielako itziten Mundu onen bearrezko ekintzak ordezeko-berezian eroaten, "eurak dana jan-gura dabelako". Lur guzti au... Zerura eroateko naian?".

1.978'an egindako Espainol konstituzio barrian, gudal-indarra euren eskuetan keiñuka dagoala, legedi barria sinatu barik egoala eta esan leike era-bat Euskaldunen alde; oraindiño ikusten dodaz Irujo ta Ajuriagerra'ren aurpegiak, Abril Martorel bien aurrean agertuta esan ebanean: "PERO TODO DENTRO DE LA CONSTITUCIÓN ESPAÑOLA". Irujo ta Ajuriagerra'ren ostean PP'ko Olarra eta Ugartemendia'tar Luis egon zan, eta onek esan eutson: "D. Manuel, aqui puede haber un camino", eta Irujo'tar on-Manuel'ek alakobat esan eutson: "haber, haber chaval dõnde lo encuentras".

Konstituzio edo Espaina'ko Laterri-lege nagusi ori Euskaldunak ez gendun on-artu, eta eurak PP'koak, gure autonomia edo askatasuna be, ez!

Olan gagoz oraindiño, eurak gudal-indarra keiñuka eskuetan daukiela, eta gu menperatuta noz askatuko.

Gaur, beste gauza bat da, Ondorioan eta gure Lendakaria'ren Esondapean ikusiko dogun lez.

Gernika'ko Lenengo Araudi edo Estatutoa:

1.3. – Gernika'ko lenengo Araudia zelan gertatu zan? (Agirre'tar Jose Antonio)

Leenengo araudi onen zeaztasunak, gaur Euskalerrriko seme-alaba guztiak irakurri bear-eben liburutik artuta dagoz "ENTRE LA LIBERTAD Y LA REVOLUCIÓN" gure gogoetan beti euki bear dogun leenengo Euskal-Leendakari AGIRRE ta LEKUBE'tar JOSE ANTONIO'k, ager-toki berean, bero-berotan eta zeaztasun guztian idatzita dagoena.

Liburu onetan eta Espainol'aren aurpegira botata dira beren azkenetako berba oneik: "Ezer ez edo gutxi dakie Euskalerrriko seme/alabak JAINKOA'gan daukien sinismenean eta zuzentasunezko bizi-bidean abertzaletasunaren garbitasuna, begirune ta zintzotasunagaz; 1.931'ko urtea eurentzat jazarpenekoa izan bazan be, ez ziran izan gutziagokoak 1.932, 1.933 eta 1.934'koak, euren betiko eginkizunak duintasunezko demokrazi baten egiñak ziralako; gaur bizi garan Mundu onetan gogoratuak merezi dabenen etsaiak, demokrazian, sekula be ez eben euki eurakaz alderatzekorik edo berdinketarik".

Gureak, Larrinaga'ko espetxeari denbora onetan "BIZKAIKO BATZOKIA" zala esaten eutsoen.

Beti danik oraiñarte eta gaur ikusten dogun lez, JAINKOA'gan eta berezitasunezko DEMOKRAZIA'n daukagun sinismena apurtu ta naastatu gure dabe, euren dogmazko sasi-jainkoa eta jauntxo-arauzko menperatzaille-demokrazi baten ezartzeko beti lez. Baiña Euskalerrriaren sinismena beti danik ederra ta sendoa da, deabruaren ikasle oneik Euskal-buruak makurtzeko.

1.4. – Bigaren Errepublika'k zelan jokatu eban gure askatasun-bidean? Udalen agiria.

1.931'n Jorrailla'ren 14'an, Espaina'n Errepublika ezarri zan. Getxo'n egun onetan: 1.839'an Espaina'n ezarri ziran gure Foruaren aurkako legearen ezeztaztea eskatu zan; 15'ean ontzat artu genduna eta 16'rako Batzar-Nagusiak deitu

ziran 17`an beteteko.

Egun orretan Gernika ta beren inguruak, beldurra sartzekotan gudalozte ta guardia-zibilla toki berezietan azkar-izkilluak inguratuta agertu ziran.

Baiña a ta guzti eta al eben eran: Udalerrikoaren eskubidedunak idatzi eben agiria onartu zan, eta 18`an zabaldu.

Bizkaitarrendandik eta Euskalerra guztiagaitik agiri-ori berotasun guztiaz onartu zan, eta ez eutsoen euki beldurrik Espainaren Errepublikako gobernuak azaldu eben guda-keiñuari.

1.5. – Udal-etxeen ordezkariak zelan asi eben lana. Erantzuna.

1.931`ko 19`an Bizkaiko Udaletxearen ordezkariak esaten eben: agiri orrek, balio izan bear ebala, “Euskalerra osoa beren oiñarrizko sinismenaren inguruan alkartzeko”, gure demokrazizko borondateari alegintzen dautzagunean, JAINKOA ta askatasunaren gogo-ametsak elburu-lez gure begi-aurrean kokatu daitezcan. Agiria, Euskalerra guztiko Udaletxetan zabaldu eta bereala erantzuna izan zan eta oitu-gabeko gorputz ta indarra artu eban.

Jorrailla`ren 21`erako, Bizkaia`tik bakarrik ba-eukan 60 onespen baiño geiago, eta ainbat Gipuzkoa`n. Gero Azpeitia`ko Udaletxean egin zan Agiriaren baieztatza, Gipuzkoa`ko Udaletxe guztiak ekarri ebezan baietzara.

Eta Udaletxeak zergaitik izan ziran? Euskadin, demokraziaren oiñarria eta Euskalerra guztiaren ordezkotza izan zalako antolamendu ori. Bestela, alderdikidearen eskuetan itxi ez-gero, autsi-osoak edo desberdintzak baieztuta gertuko ziralako.

Jorrailla`ren 29`an, Bizkaia`ko erki-jauriariagaz “Sr. Martinez de Aragon” batzartu ziran, eta oneri eskatu eutsoen: Euskalerriko lurralde bakotzetan, Udaletxeak batzartu daitezcala, gure Laterri-zarren Batzar-Nagusiak berriztu daitezcan, eta gure askatasunaren yaurpidea edo Estatutoaren legeak ezarrita, Errepublikako gobernuan agert-arazteko.

Agintariak, goi-bultzarekin on-artu eben gogamen ori, baiña beti, berari itzeman gendunen eskaintza barruan.

1.6. – Bilbao`n zer egin eban Erkoreka alkateak?

Bigarren ikusketa, Bilbao`ko Udala`ren Alkate zan Erkorekari egin jakon, eta onek, ezer ez eban ontzat artu.

1.7. – Eta Donostia`koak?

Lorrailla`ren 1`ean, Donostia`ko Alkate zan Sasiain`egaz bidez buru egin eben, eta au-be guztiz aurka agertu zan.

1.8. – Eta Gazteiz`koa? Eta Araba`rarak?

Gazteiz`eko Alkate zan Ortiz de Zarat`gana joan ziran Alkateak, eta onek gogo beroz artu ebazan.

Araba`ko erki-jauriari izan zan “Sr Martinez de Aragon`gana (Bizkaia`ko erki-jauriariaren Aita zana) joan ziran, eta onek, alkateen beroak gogotu ebazan, euki eben ekiñaldiagaz aurrera egiteko esanda. Onen borondatea ikusita, Alkateak berai eskatu eutsoen: Bilbao eta Gipuzkoa`ko Alkateakaz bitartetza bete dagiala.

1.9. – Eta Nafarroan zer?

Loraila'ren 2'an Nafarroa'ko erki-jaurleri zanagaz egon ziran, eta oneri euki eben agerbidea aurkeztu eutsoen.

Iruña'ko Alkatea Bilbaon' egon zan Loraila'ren 2'a ospatzen, Indalezio'tar Prieto'k baietz antzeko itzaldia emon eban lekuan.

1.10. – Alkateen idazkia Naparrai.

Alkateak, Noain'eko zubi gaiñetik aldatu ziranean, Iruña'ra urrut-idazki au bialdu eben: Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa'ko erri-zaleak Noain'eko zubitik aldatu egi-ten diranean, Nafarroa'ren kalte-ordaiñean itz-ematen dabe "Nafarroa'ren barruraino sartuko dabezala Arana eta Goiri'tar Sabino'ren irakatsiak, gizaldiaren irau-
nean iñoz ez daitezcan gertatu 1.512'an gertatu ziranak arbasoen erruagaitik.

Nafarroa'rentzat 1.931'ko Loraila'ren 2'a, Alkatea'ren eginkizuna garrantzi aundi-koa izan zan, Nafarro'ko erri guztian sutauts'en antzera zabaldu zalako Alkate'n egin-bidea, Euskalerrriaren aldeko zaletasuna, unetxoetan indar-berrituta.

1.11. – Lau uri nagusietako Alkateen eta Aldundien azken erantzuna zein izan zan.

Lau Uri-Nausien Alkateak, gure aurkako leian, negargarrizko eginbearra irudi-tu eben, baiña erriaren Udaletxeak alkartasunezko mokor aundia osotzen joan ziran lez, 1.931'n Jorrala'ren 21'an lau Aldunditan izendatu ziran arduradunak eta gure aurka gogotsu alegintzen ziranen egin bearretan ezereztuten joan ziran. Gaiñera, nausitzar-aldian sinatu ziran alkargoa zapaldu ta apurtzen joan ziran.

Gizon oneintzat, Euskal-Araudia orduz-kanpoko gaur esaten daben antzera eskabidea izan zan, Espainol'aren jauntxokeriagaz morroi lez lotuta egon ziralako.

Ala ere, Araba'ko erki-jaurleria "Sr. Martinez de Aragon ta Urbistondo" zinegotzien gogoak berotzeko alegiñetan ibili zan, gure Foruen adostasunean bildu daitezcan, anaidien (cofradias) arduratsua izendatuta gero.

Loraila'ren 8'an, Udal-Etxe'en Alkateak, lau Aldundi'ko arduradunen ordezkari-tza erabat aginte-gabea utzi eben.

1.12. – Alkate guztien agiriak zer iñoan?

Loraila'ren 9'an Alkate guztiak on-artutako agiri-bat idatzi eben oneik, bertatik ateraten dodan lerroaldi au adibidez: "Euskal Ikaskuntzaren Bazkunari eskatutako araudia artu dagiela, datorren Domekan Donostian, Euskal Lurraldean diran erdi ordezko arduradunak (subcomisiones) idatzi dagien Nafarroa, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia'ren buruz bakoitzaren araudiak, gero, euren arteko alkaradostasunetik Euskal-Araudiari (Estatuto Basco) eraikitako". Ekintza orregaz Aldundien arduradunak aginte-gabea itzi ziran.

Kontuan euki bear dogu, len Euskal-Ezkerrekoakaz batera Euskal-Araudiaren aurka alegintzen ziranarekin, gaur edesti bardiñean egertzen garala. A ta guzti! Euskadi, aberriaren larritasunezko dardarian alegintzen zan. Balekite, sekula ez dala egin ainbeste lan eta ainbesteko gogo-berogaz.

1.13. – "Principe de Viana"n zer egin eben Alkateak?

Loraila'ren 27'an arratsaldeko 4'retan, Nafarroa'ko Aldundia'ren Principe de Biana'ko gela nagusian, lau Lurraldeko Alkateak batzartu ziran, izendatutako Alkate zaarrenaren (Elorrio'ko Ariño'tar Julian) mai-buru-pean, orduko Nafarta-

rrren Forua ao-jakintzan eskatzen eban lez, Loraila`ren 28`an beteko ziran Araudi-Batzarretan (cortes constituyentes) aurkezteko.

1.14. – Nok idatzi bear eban Araudia?

Loraila`ren 29`an Alkateak, lau Aldundi`ko arduradunakaz batzartu ziran, eta aurkeztu ziran asmo-agiri guztiak baztartuak izan ziran, Aldundiko arduradunak eurentzat gordetzen ebelako beren eginkizuna, arratsaldean zabaldu eben au esaten eban agiria: “Euren ardura zala Euskal-Araudia idaztea, Eta ardura ori beteteko eurak adi-eraziko ebezala beren idatziaren txostenak”.

Loraila`ren 31`an, Euskal Ikaskuntzaren Bazkuna`k Alkateai emon eutsen Euskal-Araudia, gero “Estatuto General del Pueblo Basco” deituko zana. Bagilla`ren 1`an irarri ta Alkateen artean banandu zana.

1.15. – Lizarra`n zer erabagi eban E. A. J. `k?

Lizarra`n, Euskal-Udaletxe guztien Batzar-Nagusia ospatzeko 8 egun geratzen ziranean, E. A. J`ak lenengoetatik artu eban erabagia beren ardurazko egin-bearrak aurrera erroteko, 1.931`an Bagilla`ren 7`rako, beren Batzar-Nagusirako deitu eutsen Udaletxetako arduradun guztiai, E. B. B. aurrean dala.

Batzar orren ardura, Euskal-Araudiaren aurrean Euskal-Abertzaletasunaren kokamena zan, eta artu ziran erabagiak oneik ziran: 1^a. – Alderdia, beren oiñarriko erri-yaurgoan legeztatzen dala: “Euskadi`ren jabetasun osoa bere jabetasunerako”. 2ⁿ. – Orren buru-bidearen zintzotasuna zainduta: “on-artzen dabezala Euskal Ikaskuntzaren Bazkuna`k egindako asmo aurrea (anteproyecto) lerro-orokorrak”. 3ⁿ. – Guztiengaitik onartuta datozen lau zuzentasunak: a). – Euskal-izatasuna artzeko dagokiona: “arroztasunetik etorritako guraso ta seme/alabak, gaur bear daben urte-bi`ko auzotasunetik, amar urteko epera zabaltzen dala”. b). – Euskalerrriaren jabetasunai dagokiona: “Espaina`ko Laterriari bere borondatez emon ez dautson gauza guztiaren jabetasuna”. d). – Irakaspenaren izkuntzai dagokiona: “Euskera edo Gastelera ibiliko dala, umea edo gaztearen arauz bata edo bestea izaten ba-dira beren ama-izkuntzak. Jakin-gai lez ezarrita ikaslearen ama-izkuntza ez dana”. e). – Eleiza eta Euskal-Laterriaren artu-emonai dagokiona adieraziko-da: “Espaina`ko Laterriaren ardurapean ez dirala itziten, ostera bestela, Euskalerrriai gauza guztietan datorkiona, Euskal-Laterriak berentzat gordetzen dabela”. Eta Euskalerrriaren batasunagaitik beti begituta, oarkizun zorrotz-bat egin eben, E. A. J`ko arduradunak gogoan euki bear ebena. 4ⁿ. – Ala ere, eta erriaren batasunari begituta, alderdiak adikortasunean begituko dabezala, Bagilla`ren 14`an Iruña`ko Batzar-Nagusira joaten diran Euskal-Udaletako Alkate guztiak, eta ango unetxoaren gora-berak ikusita, bai beste alderdiakaz ariñagoko adostasunean jarrita: “on-artu dagiezala batasunezko-araudira doazen erabagiak, Euskalerrriari emon dagioen bear dauan batasuna”. Beti lan egiten eben tinkotasunezko erabagiakaz, baiña batera biguintasunean.

1.16. – Zar-zaleak edo Tradizionalistak zer diñoe?

Bagilla`ren 10`an, lau Lurraldetako Antziñatar edo Tradizio-Zaleen buruzagiak Donostin batzartu ziran, eta onein erabagiak berdiñ-antzekoak ziran: “1.837, 1.839, 1.841 eta 1.876`ko Espainol legeak, Euskal-Askatasuna espataren indarez oinpetu egiten ebenak ezereztu gura ebelazako, au esanda: “foru`en itzul-

aldia bear dan ondorioagaz ez bada lortzen, tradiziño-zaleak ez dirala aldendu-ko Euskal Ikaskuntzaren Bazkunak egin dauan Euskal-Arauditik”.

1.17. – Orduko Sozialistak zer?

Sozialistak, Bagilla`ren 7`an “ Federaciòn Socialista Vasco-Navarra “biltzar-orokorrean batzartu ziran, eta onein eritziak oneik ziran: 1^a. – Euskal-Araudi`ren gogoari lagundu egin bear jako, Errepublikari`ren garaipenak ez ikututen dauzan bitartean. 2ⁿ. – Euskal Ikaskuntza Baskuna`ren xede-gai`en aurka: “nai-ta, Euskalerriko lau Lurraldeak politikan ta erlijijiñoan oitura bardiña euki, euren ustez arauak, Lurralde bakoitzarena izan bear dauala, Lurralde bakotzak Espaina`ko Laterriagaz itzarmenak eginda”. 3ⁿ. – “Txostenlaritza gai onetan, ontzat artzen dau Euskal Ikaskuntza Bazkunak asmatu dauana, kontuan eukita euren artean banatuta egon da-be, beti batuko dirala bizitasunezko alkar batasun baten. 4ⁿ. – Sozialistak araudiaren asmo-aurrean (anteproyecto) aurkitu dabena, esku-zabaleko irizpide baten eginda dagoala, orregaitik uste dabela “Federaciòn Socialista Vasco Navarra”ri aolkua emotea datozaan aldaketetan, legearen langilleak eta erri-ikasteko antolamentuan egiña “ulertzen dabela. Arlo ori Espaina`ko Laterriari egokitzen jakola”. Beste zuzenbideak ardura gutxiagokoak dirala, eta geiago dagozela izentasun batzuen eratara edo araudiaren barruan doan itunera (composiciòn).

1.18. – A. N. V. `k zer iñoan?

Euskal Abertzaletasunen Ekintza`koak (Acciòn Nacionalista Vasca), Madrillen zer gertatzen zanaigaitik, oso asarre agertu ziran eta errege-jatorriaren aurkako alderdi ziranai eskatu eutsen, Euskal Ikaskuntza Bazkuna`ren asmo-egitamu osoa artu bear ebela, ezker-aldeko alderdiak, A. N. V. , eurakaz batera joatea gura ba`eben. Oneri ezer esan barik Madrillen Sozialistak artu eben erabagiakaz.

1.19. – Beste alderdi Espainatarrak zer? Ezker eta eskoia batera.

Espaina`ko beste alderdi Errepublikano guztiak, ez eben jakin-gura ezer Euskadiri dagokionagaz.

Adigarri ikustea da, len bezela gaur-be, ezkerralde ta eskumaldeko alderdiak zelan batzen diran gudu-antzez Euskal Askatasunaren izan-gaitasunak apurtzeko.

1.20. – Iruña`ko batzar nagusia: Irujo`k zer egin eban. Giroa eta erabagiak.

Iruñan, Bagilla`en 14`an egin bear zan Batzar aundiari, judaskeri bidez egozki edo utstuazo egin jakon Antziña`tar edo Tradizio-zaleen eta Diario de Nabarra`ren kidegotasunagaitik. Eta emen A. N. V`koak konturatu ziran, zelan saldu-ta geratuko ziran P. N. V`k esaten eutsoen lez.

Baiña bereala konturatu ziran, eta Bagilla`ren 12`an Gobernu-zibillaren baimena artuta, Irujo`tar Manuel`ek beren azkartasunagaz Lizarra`ra joanda Udaltxeen baimenak eskuratuz, antzoki nagusi ta zezen-tokien itz-artuta Lizarra`n Bagilla`ren 14`an Batzar Nagusia ospatu al izateko.

Lizarra`n 1.931`an Bagilla`ren 14`an Batzar-Nagusia egin zan jakiña zan lez.

Eta ikusgarrizko Eleiz-biraren antzera, gazte ta zaar txistuaren alaitasunagaz abestuten “Askatasun-Eguzkia basotik urtenda – beren argia edonun zabaltzen

da”, joan ziran Lizarrara, ainbat berebil txiki ta aunditan.

Batzarra, 12`ak ogei minutu gutxiago ziranean asi zan, eta bere sar-arazleak, Lizarra`ko Alkatea Agirre`tar Fortunato eta Getxo`koa Agirre`tar Jose Antonio ziran.

Legediaren gai geienak on-artuak izan ziran, 2`n gaien bakarrik zuzentasun bat ezarrita: “bereiztu edo banatu al izango dira, adostasunera batu diran era berdiñean”.

Irugarren gai`an, politikako eskubideari dagokionean, Azpeiti`ko Alkateak, danak ontzat artuta adierazi eban: “errian berezko ta kanpokoak diranentzat, eskubide oneik amar urtean bertan bizitzeaz irabazi bear dirala”.

8`n gaien, Euskadi`ren Leendakaria`ri dagokiona eta erriak aukeratutako 80 arduradunak izendatuta izan bear dauana. Azpeiti`ko Alkateak danak ontzat artuta adierazi eban: “leenengo Lendakaria Nafartarra, bigarrena Bizkaitarra, irugarrena Gipuzkoarra eta laugarrena Arabarra izan bear zirala, araudiak esate eban ordez”.

9`n gaien, danoen baimenagaz aukeratu zan, Iruñan kokatuta egon bear zala ekintza-agintea. Baiña Zangotza`ko Alkateak, bere ustez larregi zala Nafarroa`ri egiten jakon begirarena, adierazi eban: “ekintz-aginte ori Lurraldeetan txandakatu egin bear zala” eta Batzarrak ez eban onartu.

Altube`tar Sebero Gernika`ko Alkateak adierazi eban: “Gipuzkoa`ri esker oneko eskeintza egitea Azpeiti`ko Batzarrean Nafar`tarrentzat euki eben senidetasunezko biotz-aldikoagaitik, danon artean on-artuta beren armarritik kañoiak kentzea erabagi ebelako Belate`n izandako anai-arteko guda ain odoltsua gogoratuten ebalako”. Sebero`k adierazi ebana, Batzar-kide guztiak zutituta txalokada aundi baten artu eban.

14n. gaien on-artu zan: “gaizkin-auzitako gelatan, lege-gizonak Euskeraz jakin bear ebela”.

15n. gaien, Azpeiti`ko Alkateak adierazi eban: “Euzkadi izan bear zala arduradun bakarra Eliz-itun bidez Batikano`gaz alkartzeko”.

Ondoren, Soraluze`ko Alkateak Euskadi`ko Laterriarentzat eskatzen dauz: “sindikato- eskubideak”. Maien Lendakariak erantzun eban: “Espaina`ko Laterriak bermatuta dagola, eta Euskal Laterriak neurtua izango dala”.

16 ta 17n. gaiak, izkuntzaren arloan berba egiten dabe eta Mallabi`ko Alkateak adierazi eban, bitarteko Gobernuai bialtzea urrut-idazki bat, irakaskintza ele-bikoa izan daiten eskatzeko.

18 eta 19n. gaiak on-artuak izan ziran eztaibada barik. Leenengoa, Euskal-errian Espaina`ko gobernuak daukan ordezkotzagaitik, Euskal Aolku-Orokoreko Lendakariak emendik aurrera eroango ebana, eta neurri-emaille bigarrena: bitariko taldea (comisiòn mixta) Errepublikako lendakariak bideratua izango zala, Euskal-Laterriaren ta Errepublikaren bitarteko arazoak zuzendu daitazan.

20, 21 eta 22n. gaiak eta beren bein-beiñeko erabagiak (disposiciones transitorias) on-artuak izan ziran.

Basterretxea Bermio`ko Alkate jaunak berbea eskatuta, au adierazi eban: Batzarrak on-artu daiela “sort-araudi onek ez dauzala betetan Euskal naikundeen elburuak, Euskadi`ren eskubideak aske itzita Foruen lengoratzerañño, 1.839`ko espataren-legeak eta beste areik Euskalerriko eskubideen askatasunak oinkapetu dabezanak kenduta”. Gero, on-artua izanda, Arau-legediaren buruan ipinteko eskatu zan.

Gernika`ko Alkateak, Euskalerriko Udal guztiai ots egin edo deituta adierazi eban: “Euskal Araudiaren ospakizuna, bere eguna eltzen danean, Gernika`ko Zugaitz-Santuaren azpian ospatuko dogula. Danon txalo-zarta aundi batekin

artua izan zan.

1.21. – Batzar aundi ta luze ori bazkaldu bagerik? Gero erri-batzarra.

Agintarien-bazkaria, Lizarra`ko Udaletxearen batzartegian egin zan, danon alaitasunezko-irakin aldi baten. Eta arratsaldeko 4`retan asiera emon jakon erriaren-batzarrari Lizarra`ko zezen-tokian. Au guztiz txikerra izan zan 12.000 gizon/emakume bakarrik sartzen ziralako bere barruan, eta beste 18.000 kanpotik kide izatea al- izan zan, megafono`ren antolamendu on-bateri esker.

Lizarra`ko Alkateak emon eutson asiera, Batzarraren erabagiak irakurrita. Gero Zangotza`ko Alkatea Blanco Armentia Jaunak, bere itzaldi aberatsa.

Urrengo Andoain`eko Alkatea Euskeraz Gipuztarren izenean. Audio`ko Alkatea izan zan ostean Araba`tarren izenean.

Gero Getxo`ko Alkatea Agirre`tar Jose Antonio, Bizkaitarren eta Euskalerriko Alkateen buru ziran arduradunen orde. Euskeraz asita, Euskalerraren batasunerako eta Euskadirentzako egun garrantzitsua dala bere nortasun berezian, bere ikur aundienetariko bat izanda berak berba egiten dauan izkuntza. Goizeko Batzarra gogoratuz, beren gogapenak, egaz egiten ebala esan eban antziñako askatasunezko batzarretara.

1.22. – Egun aundi onen azkena zelan izan zan?

Askenez, Euskal Ikaskuntza Batza`ren leendakaria eta Gipuzkoa`ko Aldundia`ren buru izenekoa Elortza`tar Julian`ek berba egin eban, eta itzaldiaren amaieran au esan eban: “Euskadi`ko Lurraldeak zutik! gure araudiagaitik, gure amaigabeko Foruak eta legearen ikurragaitik JAUNGOIKO ta LEGE ZARREAN” GORA EUSKADI!! Lizarra`ko ekitaldia amaituta Gernika`ko Arbola ta Eusko Abendaren Ereserkia abestu ziran.

1.23. – Euskalerrria Gernika`ko zugazpean eta plazan: nortzuk berba?

1.931`n Uztaila`ren 12`an, Euskalerrria bere Zuaitz Santu-pean batu zan, bere ordezkari zaintzailleak agurtzeko.

Gernika`ko Udaletxean goizeko 10`etan asi zan gorteko Aldundiak ta Alkate guztien buru ziranaren artzea, Udaletxeko Uri-Batzar osoagaitik beren Alkate Altube`tar Sebero aurrean dala, eta berba oneik esanda: “Gaurko egunetan olangoko egintza-ederrak bear geunkez, JAUNGOIKOA eta ABERRIARI ainbeste maitasun eskeiñita”.

Gertakizun-eder orretan, 5.000 Euskal seme/alaba egon ziran gitxi gora-bera eta bertan, Agirre`tar Jose Antonio`ri Gernika`ko Alkatea zen Altube`tar Sebero`k agintaritzaren makilla emon eutson, Euskadi`ko Alkate ta Abertzale guztien izenean.

Mitin edo biltzarra, arratzaldeko 4`retan asi zan, Elorrio`koa zan Alkate zaarrenak zabaldu eban. Gero Azpeiti`ko Alkateak berba egin eban Euskalerriko Alkate-talde arduraduranaren, buru zalako.

Orexa`tar Martzeliño mintzatu zan Euskeraz Bizkaia`ko diputaduen orde, Euskal endaren arimari abestuta JAINKOIA`ren eta LEGE ZAARRAREN barruan.

Oriol jauna gero Araba`ren orde, Itzaldi argitsu bategaz.

Pildain`tar Antonio, Gazteiz`ko Eliz-nagusiaren eleiz-gizona eta Gipuzkoa`tik aldun aukeratua zanak berba egin eban.

Nafarroa`ren orde, Rodezno`ko Kondea.

Urrengo, Altzeta`k iztokira igon eban. Au, Euskeraz izen aundiko Iztaria ta Gipuz-

koa'ko mendigoizaleen antolatzailea zan, eta gazteri guztia irikitan ipini eban.

Ta askenez, Agirre'tar Jose Antonio'k, itzaldi taldea amaitu eban eta gero AGUR JAUNAK abestu zan.

Ekitaldi onegaz amaitu zan garrantzi aundienetariko leenengo aldia, JAUNGOIKOA eta Mundu onen aurrean, gure arduradunak barkaeziñezko arrazoiakaz beteta, Espainola'k daukiezan maltzurkerien aurka borrokatu zirala.

1.24. – Araudia Madrid`ek korteetara.

1.931`n Uztaila`ren 15`ean, II errepublika`ko lege-nausirako batzarrak zabaldu ziran, eta gure talde txikiak euren ezar-lekuetan ezarri ziran. Gure arduradunak ez eben itzik artu Uztaila`ren 29`rarte. Beunza, taldeko buru zanak, itzaldi ederra egin eban.

1.25. – Iruña Euskadi`ren uriburua?

Dagonilla`ren 10`an, Beunza`ren itzaldi ostean, Euskalerriko Udaletxeen ordezkari guztiak Nafarroako jauretxean batzartu ziran, eta bertan Beunza, Aizpun, Kuntxillos eta Oroz, txoztenlaritzako (ponencia) ordezkariak ziranak, egon ziran.

Txoztelaritzak, Euskal Ikaskuntza Bazkuna`ren xede-gaia ontzat artu eben eta batzarrean eztabaidan ipinita, geienak ontzat artu eben. Iruña aukeratu zan Euskadiren Uri-nausitzat. Andik aurrera danak batera joanda, Euskal Araudia edo "Estatuto Basco-Nabarro"ren askatasuna lortzeko.

1.26. – Sozialistak zergaitik aurka?

Errepublikatarrak eta Sozialistak espataren bidez lortutako eskubideak legeztu gura ebezan, eta ori da gaur sozialistak daukien doñua. Beti jaurgortiarrai edo konstituzional menperatzaillai, demokraziaren izena emon gura. Ezker aldeko demokrazia? Ori alderdikeriari demokrazia emotea da, ez zekula! izatearen lotsagizunari.

Euskalduna errepublikar-demokratikoa da, "baiña Euskalduna!!" ez dakigula aztu sekula ori.

EUSKALERRIKO ALKATEAK MADRILLERA:

1.27. – Alkateak Madrid`era zertarako?

Ez eban beste zentzurik, Euskadi`ko alkateak baimendu eben sort-araua Espainol Errepublikako agintarien aurrean aurkeztutea baiño, Euskalerriak erri-eritzi edo erreferendun bidez onartuta gero.

Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroatik 420 Alkate ziran su-gurdian Madrillera joan ziranak, erria ago batez aupaka.

1.28. – Agirre ta Alkala Zamora: Baztartuak!!!

Getxo`ko Alkate zan Agirre'tar Jose Antonio'k, Alkala Zamorai irakurri eutson 1.931`n Irailla`ren 22`an idatzi zan eguneko arau-agirian ekarren esaria. Onek artu eutson arau-agiria, Euskalerraren iriz-kidetasunean eginda egon zana,

Espainaren Errepublikako gobernu aurrean aurkezteko, eta ez eban on-artu. Baztartua izan zan.

1.29. – Geroko ekinaldiak zertarako?

Urrilla-ren 6'an Espainaren gobernuaz, Euskalerrriaren lau Lurraldeko aldun (gestoras) arduradunak, oneik euki eben lengo gogoaldiaren egoera aldatuta Euskalerrriaren alde, Madariaga jaunari esker.

Urrilla-ren 7'an Madrillen Euskal talde txikia ziranak batzartu ziran eta erabagi garrantzizkoak artu ebezan.

Urrilla-ren 15'an, gutxiengoko Euskal-Nafarrak Espainako lege-biltzarrean, lege-etxe ori jazarraldian bertan itzita alde eben bertan egon ziran katoliko ordezkariekin, konstituziko 26'n gaia guztiz alderdikerizkoa izan zana onartu zalako. Euskal katolikoentzat gaitzi-arazle edo gogai-eragille izan zana eta apaiz, erlijio ta lekaidegoen jazartzaillea zana, eta erriak eskubide oneik ez ebalala ezagutzen iñoana.

1.30. – Araudia amar ataletan zergaitik?

Abendua-ren 8'an Espainako gobernuak Manuel Azaña buru zala eta Santiago Casares Quiroga gobernari zala, agintza bat emon eban, Euskal-Araudia 10 ataletan egiteko.

1.31. – Aldundien batzarrean zer esan eben?

Abendua-ren 15'n, Garrantzi aundiko batzarra egin zan Aldundian. Lau Aldundiko arduradunak eta ia Euskalerrriko Alkateen buru ziran guztiak batu ziran. Bertan artutako erabagiak: alkateen artetik iru ordezkari aukeratu ziran eta lau aldundiaren aldetik, lau eta bat geiago banakaren aldetik, danon artean azkeneko Euskal-araudia apaintzeko, gero Udaletxe guztien baimena artu dagian.

Asken baten, euren egin bearra, Euskal Ikaskuntza Bazkuna-ren egitasmoa egokitzea baiño ez zan izan.

1.32. – Referendun edo eritzi-batzea Euskalerrrian?

1.932'an Urtarrilla-ren 31'n izan zan eguna, lau Lurraldeetan Euskalerrriaren eritzia-artu orduko itauna egiteko, Euskal-Araudia Euskalerrri osorako izan bear zala ala Lurralde bakoitzarentzat bakarrik. Eta 1.930'ko autarki-errodan artuta 1.236.709 boz-emaille ziranetik, Euskalerrri osorako izan daiten, 1.100.000 autezlek baietza emon eben. Zalantza barik itzita eben, Euskaldun guztientzat oiñarrizko-legedi bat gura ebalala, nai-ta Lurralde bakoitza beren eskukotasunagaz zuzendu ta Udaletxearen askatasuna ezarri.

Emen ez doguna aztu bear, Lizarra'ko araudia (estatuto), Euskalerrrian esku-maldeko espainolista ziran guztiak on-artua izan zala.

1.33. – Sozialistak zergaitik pozik?

1.932'an Joraila-ren 18'an, sozialistak Euskal-araudia irakurri ebenean, Bas-terretxea ta Madariaga'k aurkeztuta, arrituta esan eben: "Au gure irakaspideta da ba'ta!!".

1.34. – Gaiarre antzokian batzarra.

1.932`an Bagilla`ren 19`an goizeko 11`k ta erdietan Gayarre antzokian batzar-
tu ziran, eta Aldundiaren arduradunak Udal arduradunai aurkeztu eutsen Eus-
kal-araudia on-artu dagien.

Lan asko egin eben nai-ta ain gutxi izan Bergara`ko saldukeria egin eben
ondorengoak, Euskadi`ko seme/alaben Aberriagaitik euki eben maitasuna apur-
tzeko edo beintzat era bat lotu egiteko. Orregaitik Nafartarrak ez ziran egon an,
Nafarroa Euskalerrriaren sorterrria dalako. An egon ziranak Nafartarren gezur-ize-
nekoak ziran, Nafarrarentzat ezer onik gura ez ebenak, ez eta Euskadirentzat
be. Orregaitik itxaron eben batzarra egin orduko egun-bi ariñagoarte, kalteak
aundiagoak izan daitezkan Nafartarrai Euskaldun izateak eta askatasunezko
bideak moztuteko.

1.35. – Agertutako eritxiak.

Bizkaia, Araba ta Gipuzkoa`n alde aundiagaitik irabazi eben autezkundea,
baiña Nafarroan azpikeri onein bitartez: Euskal-araudiaren alde 109 eta aurka
123, 35 autarki utsak egonda. Eta len geienak baimendua izan ba`zan be, Nafa-
rroaren aldetik zoritzar-lez artu zan.

Egia ez zana guztiz, gero jakin zalako zelan Nafar Alkate batzuk guztiz ipar-
galduta ibili ziran eta naaste zikin orreitan euren aginduaren aurkako bozka
eman eben. Bestela autezpena olan geratuko zan: 127 Euskal-araudiaren alde
eta 115 aurka.

1.36. – Oriol Araba`n: bildurkeria.

8 egun beranduago Oriol`ek Araban berba egin eban, eta zoritxarren aurrean
beren elburua, aurrerako antolamendu bat egokitzea zan. Baiña erakutsi ebana,
beren bildurkeria izan zan, Batzarra babesteko ez zalako joan. Gitxi baiño ez
ziran eta Nafar-zoro, maltzur ta saltzailleen eskuetan itzi eben.

1.37. – Kataluña`ri baietza, baiña euskaldanai itxaropenaren poza.

1.932`an Irailla`ren 9`an Espaina`ko gobernua Kataluña`ko Araudiari baietza
emon eutsen.

Espaina`ko gobernua erabaki eban, bere lendakaria Euskalerrira joan daite-
la eta bertan, Gipuzkoa`ko Aldundian Kataluña`ko Araudia sinatu dagien
1.932`an Irailla`ren 15`an.

Irailla`ren 14`an, Katalan`ak arrera garaitsuaz on-artuak izan ziran, erria eziñ-
esaneko zoramenagaz pozaren-pozez, askatasunaren arloan garrantzitsua zan
zati ori lortzeagaitik. Orregaitik, Karner Katalana eta orduan gobernuko erri-dirua-
ren ministru izan zanak esate eban: “Lege-araudi au ez da bakarrik Katalana, Eus-
kalduna be badalako eta onen atzetik etorriko diran beste araudi-lege batzuen
be bai”. Uste dot Katalana`k eta Euskalduna`k pozik egon bear geunkela.

Araudi-agiria, Alkala Zamora eta de Macia`ren ordeiz Gassols`ek sinatu eban,
ostean danok eta Donostiko abes-batzak lagun zale “Gernika`ko Arbola” abes-
tu zan. Azkenean Katalunña ta Euskadi`ko ereserkiak abestu ziran. Prieto ez
egoan oituratuta beren ikurriñari olango omenaldiak egiteaz , ainbeste bider
zapalduta, Euskal ikurriña ta Katalan ikurriña esku bietan artuta, biak erabilia
alde batetik bestera kurutzatu ebazan.

1.38. – Iru Lurraldeen batzarra nai Nafartarrak: zertarako?

1.933`an Uztailla`ren 23`an Arabako arduradunak batzartuta, iru Lurraldeen batzarrerako dei egitea erabagitu eben, Dagonilla`ren 6`an bizibideko ikaste-txean ospatu zana, Araba`ko Aldundiak ez ebalako lekurik.

Iru Lurraldeetan guztiz 282 Udaletxe ziran, eta an egon ziranak 271 eta iru Lurraldeen Aldundiak ordezkariek.

Nafarrokoa be joan zan, eta Gazteizko batzarrean danokaz bat ez ba eban egin, iru Lurraldeen artean erabagi zan: Nafarroa gertu egon arte danakaz bat egiteko, sei lege-ataleko geigarri (disposición adicional) bat egitea.

1.39. – Autaketa aundia: “Plebiscito”.

Udaletxeen batzarrean aukeratutako 18 ordezkariek, bereala asi ziran lanean Euskalerriko-autaketa aundia antolatzeke, Euskal-araudiaren alde 1.933`an Urrilla`ren 15`an ospatuko zana.

Ikaragarrizko lan ara ta onako mugi-aldian egin ta gero, 18`ko batzordeak Azaro`ko 5`erarte atzeratu eban autarketa (plebiscito) aundi ori, Urrilla`ren 15`a gauza batzuen gora-beran lar ariña izan zalako.

Itaun bat aurkeztu zan: “Ezkertiarrak zer ziran?”. Ba... urte bi terdiko batzar eta luzapen erabagiei be eldu jakien ordua.

Abertzaleak aitu eben, euren ordua be eldu zala, eta Azaro`aren 5`ean danak ezagutuko zirala, gero garbitasun aundiagoaz lan egiteke. Erriak danon egikerai garbitasuna eskatzen eutsen, marro ziri, azpikeri, iruzur ta maltzurkeriakaz goraiño beteta egon zalako.

Azaroa`ren 5`eko erri-autarketan (plebiscito) Euskal-Araudiaren alde 459.255 baiezko iritziak egon ziran, eta 14.196 aurka. Emen leenengoz, emakumeak autatu eben edo autesleak izan ziran.

1.933`an Azaroa`ren 5`an, Euskalerraren koroatzea zan, urte-bi terdian eten-bako lana, egoarri ta neke-bako alegiña, Erriak goi-bultzarekin saritu ebana.

1.40. – Gernika`ko batzar nagusia: autarkien zenbaketa.

Gernika`ko batzar nausiko gelan, Azaroa`ren 15`ean Erri-autarkiaren boz-azterketa ospatu zan. 18 arduradunen artean erabakita, Errepublikako Uri nagusira joatea, Euskal-Araudia, euren agintariak emoteko.

Azaroa`ren 19`an, Euskal-Abertzaleak Aldundiko ordezkariek auteskudentan, aldi aundiz irabazi eben, aurkako alderdi guztien beste ordezkariek atara ebelako Nafarroa be artean sartuta. Bilbao izanda arrigarriena, Azaña ta Prieto`ren feudo edo jaunpekoa izan zalako, euren izendapenak gitxigandik lortuta.

1.41. – Kortetako lendakariagaz eta geroago ezetza.

Abendua`ren 21`an gorteetako lendakarien gelan, Espaina`ko lege-biltzarri Euskal-Araudiaren eskuratzea egin jakon, eta urrengoko egunean, Errepublikako lendakaria zan Niceto Alcala Zamora`ri Euskal-Araudiaren idatzia.

1.931`ko Dagonilla`n, Errepublikako lendakaria Niceto Alcala Zamora`ri, Euskalerriko Alkateak, Lizarra`n sinatu zan Euskalerriko geienak onartutako Euskal-Araudia eskuratu eutsoen. 1.933`an ainbeste eguneko berriak, lan eta ara ta ona ibili beren askatasunezko eskaeran, Niceto Alcala Zamora`ri beste Euskal-Araudiaren idatzi bat emon jakon, Laterri-legearen (constitucionales) legeak bete dirala agertzeke, alan eskatzen ebalako biotz-gabe beartutako lege onek.

Eta emen da, marrokeriaz, gezur eta erdi-egiakaz gaurko egunetan gertatzen

dan antzera, Araba beren izatasunezko etxetik atara gure dabela, eta Euskaldunei geien iraki-erazi eutsena: euskaldun saltzailleak izatea eraso amorratuakin egiten ebena: Oriol, Goikoetxea eta abar.

1.42. – Katalanakaz Madrid`era: zertarako?

Baiña geiago dago, 1.934`an Bagilla`ren 12`an Kataluña ta Euskal ordezkari-tza Madrillera joan ziran, Katalunña`ko eskubideak zalantzan ipinten asi ziralako eta Espaina`ko lege-biltzarra bertan izteko prest egon ziran.

Eta Euskaldunak gogoratzen eben urrengoak eurenak izango zirala, gauza bardiñak izan zirelako, diruzko-onguneari (concierto economico egin eutsoen antzera.

Lurraldearen aldun-arduradunaren laguntzaz. Udaletxeak asarratuta 1.934`an Uztaila`ren 5`erako Batzarrera deitu eben, danak joanda, iñoz baiño geiago Euskalerraren eskubideagaitik arduratuta, eta danak erabakita, Espainā`ren gobernuko jauntxokeriaren aurka joatea erabagi eben, eta aundikiro mintzatu ziran: “onek (Espainā`k) ez dala aurkitzen bai-emaille naikorik gobernua izendatzen dauzan Aldundiko ordezkarietan, Erriaren borondateetik urrun dagozelako”.

1.43. – Poliziak eta soldaduak Euskalerrian.

Euskadi, polizia eta gudaloztegaz artua izan ta gero, Udaletxeko arduradunak asarre ta goretsita, Nafarroako arduradunak errepublikako lendakariari urrut-idazki bat bialdu eutsoen gogoā adieraziteko: “Fuero`en aurka egiten ba`ziran zikinkeriak zigor-gabe (irabazi`en zergak, apainkeriai, ardo, antolamentuan eta osasunerako zergak eta abar), gobernua ipinitako Aldundiko arduradunak kentzea eskatzen (exigiendo) ebela”.

Baiña..., gudalosteak lau Lurraldeetan gaizki egiñako astokerietan, Alkateak eta zinegotziak bai erri askotako Udaletxe osoak espetxeratuta 100.000 pzta zigorrakaz eta 500.000 pzta Euskadi ta La Tarde aldizkariak, errientzako on-alegiñetan batzartu egiten ziralako erabagi oneik artzeko, eta bere gogoz beste gobernua egiten eban lau aizetara zabalkundeagaz Dagonilla`ren 12`ko Batzarrera ez zala egin, Udaleko arduradunak al izan eben lekuetan batzartuta 100 Udaletxe baiño geiagok Dagonilla`ren 12 – 18`ren bitartean bialdu ebezan agiriak baieztuta.

Orren ordezkotza azkenean 451.603 biztanleak alde izan zirenak eta 30.945 aurkakoak, azken baten autoeskundeā atzeratu egin ziranen kopurua izan zana. Udaletxearen adierazpena gogo bat egin da baieztu zan.

1.44. – Zumarraga`ko batzarra katalanakaz. Ondorenak: dimisiñoa Udaletxeetan espetxeratua.

A ta guzti be, gobernuko ordezkariak batzarra ez zala egin esaten eban.

Garrantzi aundikoa izan zan 1.934`an Iraila`ren 2`an Zumarraga`n egin zan batzarra, nai-ta gobernu aldetik gudalozteak jendartean eten bako erasoak egin. Katalan arduradunak etorrita, sarreran eta agurtzeā eziñ-esaneko poza-zen pozez egin zan batzarra.

Geiago, ainbeste astokerizko ertz-bideak (metodos represivos) eginda Suka-rieta eta Gernika`n jendarte pilloak urten eban Katalunña eta Euskadi`ko arduradunak agurtzen, oneik be ertsaldi orretan sartuta, 1.934`an Iraila`ren 4`an

Udaletxeko arduradunak batzartuta, lau gaien erabagi bat zabaldu eben Euskadi-ren Udaletxe guztien itzieragaz (dimisiòn).

Ez ziran geratu pozik egin ebazan astokeriakaz, eta ia 1.500 Udaleko zinegotzi diruagaz zigortu ta espetxeratuak izan ziran. Bilbao`ko zinegotziak, geien izan da, 11`n Larrinaga`ko espetxean sartu ebezan eta 18`an Igandè`ko gabardian kamioietan Burgo`sèko espetxera ebezan.

1.934`ko iraultza Euskadi`n:

1.45. – Errepublika marxtarra sortu zanean zer?

Espainia`ko errepublikan Marxista`ren iraultza 1.934`an Urrilla`ren 5`an leertu egin zan, eta Espainia`n greba-orokorreraño eldu zan, ikaragarritzko ondorioetara igonda Asturias`en antzera, borroka latz, odolti ta basatia egin zalako.

Bizkaia`ko erki-jaurleri Balerdi`ri eta guda-legearen aurretik, elkarte, batzoki eta gizon/emakume ta ume abertzaleen erakundeak itxitea agindu eutsoen, itz-gaizto zakarren artean, itxaroten eta ia sinestuta Bilbo`tarrak asarre bizian goikoak eta bekoak joten itzuliko zirala, euren osteko eginkizunak santutzeko.

Baiña erri-eldu bat aurkitu eben, eta onek zentzu aundiagaz, euki eban asmakuntza guztia deseginda geratu zan.

Nai-ta mendekatuak ta espetxeratuak izan, abertzale asko ezeren garbitasun gabe.

Or! zergaitik Euskadi`n Marx`en mugi-aldiak ez eban euki ezeren ondoriorik. Nai-ta 6`an Mondrago`n Orexa ta Elosegi`tar Martzelino Rezusta`gaz izkillatuta il eta gauza guztien errua, gaur egiten daben antzera, abertzaleai bota.

Eta Agirre, Azkue`gaz ukarai-burdiñakaz lotuta joan ziranean esaten eben: “gizon/emakumeai makurtuazo egingo dautse, baiña Erriari sekula ez! Berak egunen baten irabaziko dau.

1.46. – Kataluñako Araudia ezereztu?

1.935`a be meatxua asi zan, argitaratu egiten diralako, Kataluñako Araudia (estatuto) ezereztu egiten daben legeak.

1.47. – Araudia onartua.

1.936`an Otsailla`ko auteskundetean baiño ariñago egin zan zabalkundea ikaragarritzko gogorkerian egin zan, urte orren zenbakia izendatuta “garratz ta gorri” lez.

Euskal abertzaletasunak, legeez... Espainia`n sortu zan gobernuari lagundu eutson, eta beragaz beartuta, 1.936`an Urrilla`ren batean askatasunezko Euskal-Araudia on-artu zan.

1.48. – Ezkerrak irabazi ezker, Araudia kendu?

Eta emen kontuan euki bear dogu, ezkerraldeko gudalozteak irabazi ba eben, bigarren ekitaldia Euskalerriko Abertzaletasunaren aurka izango zala. P. N. V`ko alderdikide asko, oso-osoan sinestuta egon ziran eritzi orregaz . Nai ezkerraldekoak nai eskumakoak, berezko izatasunaren aurka, guztiz beretu-koak izan ziralako. Kaizar domutsuak izan ziralako argi esanda.

1.49. – Erri bereziren aurrerakuntza ebagita.

Emen, ebagi zan indarka aurrerakuntza bat. Izadi berezi onetan landarak nabaritasunean aziten diran lez, indar berriztuten joan zana alde bat eta beste-ko menperatzailleen moral-arauz izugarritzko beerakadan joan ziranen aurka, egiagaz eta sinismen aundiagaz demokrazia on baten itxaropenagaz, danoen artean erkidetu bear doguna. Baiña, ekin-aldi orrek, menperatzaillea ezereztu egiten dauan lez, erromatarrengandik gaur arte egin daben antzera, indarragaz ebagi eben ekintza eder ori. Gaur, 67 urte geroago, ikaspide ori berriz-egin bear dogu, garaipenaren arrazoiak, euren garaitzaren ostetik, irakatsi ustel emoten dabelako.

Gaurko Euskal seme/alaba ondo jaioa, gure atzoko arbasoen antzera, gazteak ikas-jantzi ederrakaz soiñekotu bear doguz gure askatasunak lortzeko, gaur gure izar ta elburua dan Ibarretxe`tar Juan Jose beren esondapenagaz “Euskal-lerria, Laterria ta Europa alkartu gaitazan, Euskal JABETZA GALDU BARIK”.

1.50. – Gaur, Ibarretxe`ren Esondapena zer da?

“EUSKALERRIA TA LATERRIA ALKARTU, BAIÑA GURE JABETZA GALDU BARIK, GURE NORTASUNA ONDO ZAINDUTA ETA ASKATZEKO AUKEREAGAZ”.

Euskalerriak gaur arte, erromatarrengandik asita, beti euki dau borroka bakarra, beren berezko izatearen Nortasuna JAINKOA`ren sinismenean zaintzea. Euskalerria dalako arduradun bakarra beren ager-tokian.

Beste aldetik, kaizar-jauntzaren atzean dabizanak ez dabiz JAINKOA`ren ardurapean, eurak, euren eratara asmatzen dabezelako sasi-jainkoak JAINKOA`ren izenagaz mozorrotuta, mundu onetan aundikerian bizitzeko.

Euskalerria ia lortu eben gudal indarragaz menperatzea, 1.839`an eta 1.876`an gure Foruak ezereztuta, Gaztelarrak edo Espaina`k euki eben “fuero juzgo” bisigotikoak sartuta gure Euskal-izatasuna ezereztuteko desagertu gaitazan.

Baiña Euskalerria sinismen aundikoa dalako, indartsu, zangar eta aurrerakoia da, orregaitik ez da edozelako azur! nolanai birrindu leikena, nai indar aundia eukinda be. Ori ikusten da nor dan sinesduna.

Euskaldunak, beren izatearen arrazoiaren burua sekula ez dau makurtu, eta errepublika denboran zutitzen asita 1.936`an Franko`ren guda latzagaz oster a be meperatuta geratu giñan, baiña mundu`ko beldurgarritzko bigarren guda nagusiegandik aurrera konturatu ziran, Mundu onetan JAINKOA`ren arrazoizko giza-semeen arteko bizitza ezin leikela aurrera eroan azkeneko bi gizaldi-odoltsu onein antzera.

Orregaitik beste era-bateko antzoki baten agertzen gara, borrokak arrazoiaren bidez argitu bear diralako eta ori “DEMOKRAZIA”ren itzagaz izendatu dogu.

DEMOKRAZIAK erritarren jabetasuna esan gura dau, eta olako berbakaz bizitzaren ekintzak neurtzen ba-doguz, IZATASUNAREN NORTASUNA dala-ta berba egiten dogu, arlo orretan BEREZITASUNAREN NEURRIAN mintzatzen garalako, MUNDU onetan BEREZKOA dan bizi guztia JAINKOA`ren legetik ardurazko zor-eskubidedun bakarra dan lekua dalako.

Euskalerria demokraziaren bidez, buru gaiñean daukazan espatai bultz egin-da, oster a be zutitu da, Mundu, Europa, Espaina ta Frantzesen aurrean beren izatasunezko Nortasuna argi ta bizi-bizirik ikusi dagien, eta konturatu daitezan ez dogula eskatzen geiagorik gure bizitzaren arduradunak izatea baiño, JAINKOA`k emonda gureak diralako daukaguzan zor-eskubide guztiak.

Ori da gure leendakari dan Ibarretxe`tar Juan Jose`k argitara azaldu dauan

esondapena.

Ibarretxe jauna`k eskatzen dauana, gure izatasunaren nortasuna da, EUSKAL-NORTASUNA, bizi diran beste gogamen ezberdiñakaz: Katalan, Fran-tzez, Galiziar, Espainol, Irlandar, Ingelez eta abarrekaz, ardura aundiz zentzu-nezko itzarmenak egiteko, gure errietan ta Europa onetan betirako PAKEA lortu daigun.

Eta ori da... BEREIZTIAR (separatista) IZATEA?

Norberaren edo bizi dan edozein gogamenen ASKATASUNA`k ez dau gura esan BEREIZTIAR izatea, Nor-Beraren biziko ardurapean dagozan zor-eskubi-deen egille izatea baiño, jaiotzak berak jazten gaitulako jantzi orreikaz.

Eurak esaten dabelako gu BEREIZTIARRAK garela kikildu egin bear gara?

Eurak, guzur utsarekin dabiz, ez daukielako ezeren arrazoirik, kaizar amets orreik, berezko edo JAINKOA`ren legea zapaldu egiten dabelako. Noren baime-narekin eskuratzen dabe gure ardura guztia? Orrein asmakuntzan... ..., klonazioa ez dago urrun!

Orreri aurre egiteko gagozan demokraziaren alegiñetan, gure lendakariak jaurkintzagaz eta erriagaz batera, etxean eta erbestean dagozan Euskaldun guztiak, beren esondapenaren ulermenagaz ezagutza osoan ipini bear ditu, bera dalako bide bakarra. Gogamen-lez bizirik iraun bear dauanak eriotzaren aurka jokatu bear daualako.

Eta beste ainbeste Mundu onek daukazan erri guztiakaz, Europa, Amerika`ko laterriak eta bai O. N. U. be ondo adi-erazota.

Ezkerraldeko abertzaletasunari, Euskal-Askatasunari bidean arri-koskorrak ipini barik, Euskadi elburu eukita, benetako politika egin, danon indarrakaz, ez dagolako indarrik Euskalerrria geratzeko.

Alderdi Espainatarren erantzuna oso gogorra izango da, beste gauzarik ez badabe aitzen, baiña beti geratuko dira agirian, guzur aundi baten gaiñean zal-dikatuta dabizelako. Ez dira izango gutxiagokoak mundu guztiaren begiratzeak eta aserreko zentzaldiak.

Kontuan eukinda, Ibarretxe`ren esondapena Europa`ko laterrietan ezaguna dala eta Europa`n erritarrengantik ia onartuta dagoala demokrazian beste bide-rik ez dagolako, Euskaldunak zuurtasun ta zentzutasunezko neurri aundiz joku-tu bear dogu, European eta Munduan Euskalerrria dalako izarrik aundiena edes-tiari begiratuta.

Gure lege-biltzarrak ez dau eukiko arazorik erriak babestu egiten ba dau.

8`gn. – ONDORIOA:

Demokrazia..., berezitasunezko izatasunean oiñarritzen da, eta ori da Euska-lerria bere “JAINKOA eta LEGE-ZAARRA”rekin, berez demokratikoa dana, iza-tasuna berezitasunezko ikaskizunean oiñarritu dauana.

Asieratik edo erromatarrak sartu ziranetik, eten-bako ari menperatzaille bat ikusten dogu goitik beeraño datorrela, gure errian gero ta astunagoa egiten jakuna, gure artean erri-nauskeria ez dalako izan euki dogun borroka nagusia erria egokitzeke, nai-ta oligarkia beti izan gure demokraziaren etsairik aundiena.

Menperatzaillearen astuntasuna, gure Jauntasuna Espaina`ko erregearen eskue-tan itziten dogunean asten da sendotzen, gure ordezkariak apainkeriaren lilluragarri-tasunezko sareetan jausten diralako, gorteko arlo guztien dirdirak erakarrita.

Onek esan gura dauana, zentzunezko gauza bat ezeztutea askoz errezagoa dala, gauzak bear daben lan onagaz egitea baiño, edozein gogamen on baten bizitza orekan zaintzeko, gorteetan erdirakoien arrokeriakaz aundikerizko lillura-

tasun zirikada aundiak diralako. Ez erritartean, Euskalabriaren Nortasunezko askatasunean sinismen aundiakoak ziralako, eta alan eskatzen eutsolako len eta gaur euren ta gure arbasoen oiñordezkoak izatea.

Euskalduna bere izaeraren sinismenean zentzun aundiako izan eta dalako, amurru-gabekoa (ingenuo) izan da beti bere edertasunean, berentzat emandako itza sakratua dalako. Baiña Espainol`akin berba egitea gure arazozen goraberan argi dago, sinisgaitzekoa izan da be! labur geratzen zarala.

Orregaitik, benetan ikusten doguna, menperatzaille alderdikeri orreik zelán asten diran sendotzen eta zelako maltzurkeriakaz ibiltzen diran daukiezan oinpetasunaren asmoak lortzeko.

1.981`ean Espaina`ko errege dan I Juan Karlos`ek Gernika`ko zugazpean esan eban: "Euskalabriaren arazo guztien iturria da, Espaina`ren erregetzak ez ebalá ta dauala beteten bere itzarmeneko antolakuntza". Euskalabriko laterriak euren jabetasunezko lege egillearen eskubide bakarra euki ebalako, erregea Euskalabrián antolatzaile bat bakarrik izan zalako.

Orregaitik, Frantzia`n egin zan 1.789`ko iraultzaren ondorioak ustelezko emaitzak emon dauzalako, gaurko laterri menperatzaileak guztiz legez kanpokoak dira, giza berezidunaren ardurak esku gutxi batzuegan batuta dagozelako eta ekintza ori arazo guztien iturria dalako. Mundu onen bigarren guda-nagusiaaren ostean ikusi zan lez, eta erabagia artu! andik aurrera demokrazian ezarríta, Ludi onen berezko legean arazoak epaituko dirala.

Eta orregaitik gure gaur eguneko Euskalabri onetan, espata ta izkillurik ez da erabili bear, legez kanpoko tramankuluak diralako eta legez-kampoan itziten dabelako erabilten dauana.

Euskalabriak gaur egunear bear dauana, zentzutasun edo zuurtza ta neurri aundiak dira beren seme-alabengan, eta nai-ta alderdietan bananduta egon, senitasunezko kidegotasunean billur barik jokatu askatasuna lortzeko.

Aurrerantzean eta askatasuna lortuta, esker-eskumako gogamen orreik ez daukielako zentzurik, demokraziaren benetako legean edo ordezkariaren zentzuzko ardurapean jokatu bear dogu, gure JAINKOA eta LEGE-ZAARRAREN irakasbidean guztiz sartuta, ori dalako berezko berezitasunean JAINKOA`k bakoitzari emoten dauskun bizi onetan erabil bearrezko tresnak ordezeko arduratarako, demokrazia oiñarria dala.

Atitxa`tar Paul

EUSKALERRIKO ELEIZ-BARRUTIAK

Gure edestia ezagutzeko bear-bearrekoa dogu gure eleiz-barruti edo gotzainlurren barria jakitea.

Erdi-aroaren azkenerako dana dago eratuta baiña gure lurra eleiz-barruti onein artean banatu izan da.

Valpuerta	Oloron
Armentia	Baiona
Oka	Dax
Burgos	Pamplona
Tarazona	Kalaorra

Gotzaiñak ez ziran toki guztietan onartuak. Bizkaia'n abadeak eta laikoak gotzaiñaren aurka agertzen dira eta ez jakon izten gotzaiñari lur onetara sartzen. Toki batzutan gogoratzen dira il ebezan gotzaiñak be, esaterako Elorrio'n. Orren iturria Jauntxoak amarrenak artesa da.

EUSKEREA TA EUSKALKIAK

Itaun bat: euskerea bat izan zan eta gero sortu euskalkiak ala euskalkiak dira lenengoak eta gero dator euskerea?

Ez da erreza erantzuna, baiña A. Irigarai'k diñoana artzen dot kontuan:

Zize'koa dan Ohienart askoz erre-zago ulertzen da gaurko suletarak baiño; Bizkai'ko Mikoleta erre-zago ulertzen da gaurko bizkaiera baiño eta aurreko gizaldietako giputzai erre-zago ulertzen jake gaurkoai baiño.

Or ba-dagoala egia dirudi, baiña ez daigun aitzu, etorkizunari begira, gaur euskerea batzeko indar aundi bi dagozela, irrati-telebista eta erri-arte-ko artu-emon ugariagoak. Batua BEREZ DOA GAUR EGITEN; BAIÑA LENAGO; BEAR BA DA; EUSKALKIAK ALKARRENGADIK URRINTZEN JOAN ZIRAN.

IZTEGIRIK ZARRENA

Amabigarrenen gizaldian agertzen dan iztegi bat, gaur be orandiño erabilteko lakoa da.

Frantziar bat joian erromes Euskalerrria-zear Konpostela'ra. IMERY Picaud zan bere izena.

Bere ibillaldiko barriak emoten dauz eta euskaldunak eta naparrak oso ankerrak zirala diño. Eta euren oiturak oso basatiak, esaterako eskuakaz jan. Beste gauza lotsagarri batzuk be badiñoz. Izan leite-ke emendik igaroten ziranai euskaldunak dirua eskatzen eutselako.

Baiña liburu orretan orduko itz batzuk dakaz eta itz oneik gaur be erabilten dira geienak: Urcia/Jaungoikoa, Andrea, Maria, Orgui/ogia, ardu/ardua, aragi, arraiñ, echea/etxea, iaona/jauna, andrea, elicera, belattera/presbitero, (pulcra terra), garia, uric, erregia, Santum Jacobun/iaona domine jacue.

LEGE ZARRA

Alege zarra diñogunean gauza bi esan gura doguz: Euskalerrriak bere edestian egin ditual legeak.

Lege zar au asieran oiturak ziran baiña gero gizaldi bitan idatzi egin zan eta oraintsu Puxana'tar Pedro arabarrak euskeratu egin dau.

Ogeita amabost ataletan banatuta dagoz lege orreitan agertzen diran gaiak oneik: Bizkaiaren lege bereziak, "esana egin baiña ez bete" legea, epaikariak, gorajoteak, auziak, zigorrak, ezkutatzailleak, espetxeak, igeslariak, irau-legeak, ezkon-sariak, zin egiteak, emoitzak eta egin-bear-rak, salketak, trukeak, baikuntzak, ezkon-irabaziak, ilburukoak, adinbakoien ondasunak, gurasoen eta aitita amamen janaria, zugatzen frutuak, ordaindu-bear-rak, bideak eta errege-bideak, oletarako sugarriak eta meatzak, urietan atxillotuak, eizaketa non, monastegien atxillotuak, zigorrak eta kal-teak, erri-jokoak eta pekatuak, eun milla marairen zorra dauken etxeak.

Olazar'tar Martin'ek

ERBESTEKO EUSKERAZALEAK

Zergaitik ete da munduko jakitun asko eta asko ain euskerazaleak izatea?
Humbolt, esaterako, España'ko jatorria aztertzeke euskerea artu ebanean, zerk erakarri ete eban?

Aleman jakitun orreri zor dautsagu, Astarloa'k Durango'ko bizileku baketsua itzi eta Madrid'era joan eta ainbesteko lana gure euskerearen alde egin izatea.

Aztertu daigun erbestetar oneik egin daberen euskerearen aldeko lana, orretarako iru gizon ospetsu artuta: Louis Luzien Bonaparte, Biktor Stempf, eta Edward S. Dogson.



Bonaparte da geien agiri jakuna:

Gaur ain ezagun dogun "Ebanjelioen liburuak" argitaratu ebazan, amar edo amaika ale baiño ez.

Azkue aundiak esana da: " Nik ez neban egingo besterik, neure aitaren antzera bertsoak egin baiño, azterketa oneik egiteko Bonaparte aundiak lagundu ez ba'leust"

Garrantzi aundikoa izan da ba, Bonaparte'ren eragiña.

Berau il zanean, alargunak salgai ipiñi ebazan esku-idazkiak, Londres'en Laterri-ordezkarri zan Mandas dukeak, Azkue'k eraginda, lortu eban iru aldundien artean lan orreik erostea, 350 libra ordainduta, dirutza aundia, baiña Karmelo Erxegarai'ren ustez , eralketa ona benetan.

Esku-idazki orreik iru moltzotan banatzen dira: 1)Euskalkia buruz diranak, 2) euskerearen arazoak aztertzen dabezenak, 3)beste izkuntza batzui dagokiezarak. Gaur egun iru aldundien liburutegietan dagoz.

Eusko-ikaskuntzak eskatu ebazan 1933n. urtean eta aldundiak baietza emon eutson.

Geienak argitaratu bagerik dagoz eta erririk erri Bonaparte berak batuak dira.

Gipuzkoa'ri dagokiozenen artean, Bibliaren itzulpenak dagoz. Anton D'Abbadie'ri egin eutson eskutitzean diño berak, tamala izan zala gipuzkoerara biblia itzultzeko iñor ez aurkitu izatea. Eta orregaitik eskatu eutsola Markiña'ko Aita Uriarte'ri lan ori egiteko

Ez zan bera poz-pozik geratu itzulpen orregaz eta Aita Aspiazu'ri eskatu eutson beste bat egiteko, baiña ezetza artu eban.

Itun zarreko lenengo iru liburuak 1859n. urtean agertu ziran London'en eta ordurako itzulita egozan Apokalipsis eta Abesti nagusia.



Iñok ez daki zelan Julien Vinson'ek Paris'en jaioa, Indostan'en azia eta zugasti-aztertzailea izanda, astia atera eban euskerea ainbeste lantzeko: Indoeuropear izkuntzak ezagurzen ebazan eta ortik bidea aurkitu eban "Euskeraren liburutegiaren saioa" argitaratzeko. (1891)

Eta urte batzuk geroago zuzendu ta osotu egiteko. Lenago, 1882n. urtean argitaratu ebazan izparringietan lanak euskerea argitzeko eta gero orain arte daukagun bibliografi-libururik onena argitaratu eban.



Biktor Stempf Baden dukaterrian jaio zan 1841n. urteko epaillaren 7n. eguanean. eta Bodele'ra etorri zan bizi izaten. Biarritz'era egin eban ostera baten eza-gutu eban euskerea eta bizi-bizi arduratu zan.

Iru arlotan banatzen dira beronen lanak: 1) Iberoen idazkiak ulertzeko lanak euskerea bide dala. 2) Detxepare, Oihenart eta Iztueta'ren liburuak. 3) Euskal-aditzaren azterketa. Euskereak aditz igarokor edo transitibo'rik ez daukala diño.

Vinson'egaz batera San Julian de Antiokia "pastorala" argitaratu eban Bodele'ko liburutegian artuta.

...

Edward S. Dogson Bilbao'n bizi zan gastetarik eta Bizkaia'n lenengo liburua argitaratu eban : Ripalda'ren Kristiñau-ikasbidea.

Biotz onekoa zan eta errez sartu zan Botxo'ko bizitzara. Azkenean bere liburuak Bilbao'ko Bazkunari emon eutsozan.

Iztegi bereizi bat argitaratu eban "Noruego-vasco-espanol". eta Bilbao'ko esaera asko agertzen ebazan, baiña 36'ko gudaldian galdu zan liburu ori.

Mendiburu'ren "Jesus'en Biotzaren debozioa" eta Kardaberaz'en "Eusque-rearen barri onak" barriri argitaratu eban Oihenart'en "Proverbios" zabaldu eban.



Erbesteko euskerazale oneikaz batera San Remo'ko bakarzale zarra dan Van Eys gogoratu bear dogu. Onek gure izkuntzaren gramatika bat eta iztegi bat argitaratu ebazan eta "Refranes y sentencias" zabaldu.

Eta ez dogu aitzuta itzi bearko beste atzerritar eta euskerazale aundi bat: Schuchard. . Ainbat liburu idatzi ebazan euskereari buruz eta Leizarraga'ren lanak ederto argitaratu.

Oraindiño gogoratu daiguzan Ribary euskerearen gramatika bereizi bat argitaratu ebana, Babaritarra dan Uhlenbeck Amasterdan'eko ikastetxe nagusiko irakaslea eta euskalkien aboskigintza gai dauan liburu ederra argitaratu ebana, "Revista de estudios vascos"en idazle ugaria.

(Urkijo'tar Ignazio'k Zumarraga adizkariak argitaratutako lanetik artua)

Olazar'tar Martin'ek

ZESAR BORJIA NAPARROA'N

Eleizearen edestian ezaguna dogu Borjia sendia, españatarra, eta senideen artean VI Alexander aitasantua. Ospetsua da au Ameriketako lurak españatarren eta portugaldarren artean banatzeko. Inter caetera buldea emon ebalako. Orretan txalogarria da, baiña bere etxe-bizitza ez zan aitasantu bateri egokiona, lotsagarria baiño.

Aitasantuaren semea zan Zesar eta kardinal egin eban aitak eta beste irabazbide ta itulo asko emon be bai. Baiña lotsatu egiten zan aita baiño geitxuago eta bere eleiz-ardura guztiak albo batera itzi ebazan, kardenaltza bera be bai.

Euskalerriko gauzak nastean agertzen doguzan arlo onetan Zesar Borjia ospetsu au gogoratzen dogu, Naparroa'gaz zer-ikusi aundia daukalako.



Zesar'en koñatua Juan de Albrit zan errege Naparroa'n eta pozik artu eban erreñuan Zesar ospetsua eta "gure printzea" esaten eutson.

Zeregin asko eukazan aurrean Borjia'k, baiña beste guztiak alboratu eta auxe artu eban: Luis Beaumont Lerin'go kondea bideratu, Naparroa barruan Juan de Albrit erregarenak ziran zergak eskuratzen ebazalako eta Errege Katolikuari lagunduz erriak guda-bidez eskuratzen ebazalako, orregaitik dirutza aundiak eta Hueskar'eko markestza eskuratzen ebala.

Biana zan orduan guda-leku aukerakoa, orma aundiak eukazalako eta, gaiñera urigoien edo "ciudadela" ondo zaindua.

Biana erria zintzoa izan zan beti Albrit'en aurrean baiña urigoiena Lerin'goaren eskuetan egoan. Zesar'ek urigoien edo "ciudadela" ori gudaz artzea erabagi eban eta gudariz inguratu be bai.



1507n. urteko martiaren 11n. eguneko gaba zan, gau ekaitzez josia ta bildurgarria eta euritea ikaragarria. Gudariak Biana-barrura sartu ziran eta onura ori artu eben Beaumod'tarrak inguratuai janariak eroateko.

Urrengo goizean jakin eban ori Zesar'ek eta asarre bizitan jarri eta zaldia artu eta ekarleen atzean joan zan, baiña oneik Mendabia'rantza iges egin eben.

Bakar-leku baten, "Aterpe gazia"n aurkitu ebazan eta norgeiagora atera ebazan banaka naiz amarka bere aurka.

Lerin'go kondeak iru kapitai bialdu eta burruka ikaragarria sortu zan eta Zesar'ek iruren aurka jo bear eban une baten, Agreda'ko Gartzia eritxonak astamakillea jaso eban eta besapean alde batetik bestera sartu eutson Zesar'eri. Antxe bertan il zan gure Zesar agotik odola eriola. Ogeta amairu urtekoa zan.



Gorpuari izkilluak eta jantziak kendu eutsoezan eta bertan itzi eben arik eta Albrit'en gudariak urreratu arte. Eta oneik Biana'ko Andra Mari parrokira eroan eben.

Zesar'en arrebea zan Lukrezia ospetsuak entzun ebazan barri itun oneik eta zorabiatu egin zan. Urtebetegarrenan ume illa izan eban.

Lukrezia'k agindu eban arrizko kutxa bat egiteko bere nebearen gorpuarentzat eta antxe sartu eben gorpua, gaiñen idazki au ebala (euskeratu egingo dot):

Emen datza lur meean
bildurgarri izanik
lur osoaren jabea;
arrizko kutxa onetan dago
gudaldietan bakea
eskuetan eukana.
Goragarri-billa zoazena!
onena goratzen ba'dozu,
geldi emen zure bidaldia,
ez jarraitu aurrera!



Bein baten Mondoñedo'ko gotzaiña zan Gebara'ko Antonio jakitunak, illobi-gaiñe ori aztertu eban eta bere liburu baten argitaratu be bai.

Illobi-kutxa eder ori ebanjelio-aldeko eleizatxu baten ipiñi eben eta urteak geroago ara urreratu zan Kalagurri'ko gotzaiña eta , bertako gotzaiña zan lez, asarrea agertu eban Zesar zan lako fede-ukatzaille bat eleizan illobiratuta egoalako eta kalean illobiratzeko agindua emon eban, bere erruen parkamenerako gizakiak eta aberekiak zapaldu egien. Olantxe egin zan eta ber-jaiotza tankerazko illobi-kutxa betiko galdu zan.

Lau gizaldi geroago, Zesar ondo zapaldua izan ondoren, 1945n. urtean, naikoa zapaldua zala uste izanik, Biktoriano Juaristi'k eta Antonio J. Onieba' k egoera ori aldatzea erabagi eben eta Biana urreratuta, , non dagoan jakin nai izan eben. Ingu-ruko zarrenak esan eban 1866n. urtean asi zirala gorpuzkiñak ateraten, alkatearen aginduz. Billatzen ebena Zesar'en azta-makilea zan, gorpuagaz egongo zalakoan baiña ez egoan an eta dana itzi eben len lez.

Juaristi'k Lerin'go kondeari eskutitza egin eutson duintasunezko illobi bat gizon ospetsu arentzat eskatuz, eralketa berak ordaintzekotan.



Azkenean, 1945n. urteko agustuaren 27n. egunean, billatzaille asko aurrean zirala, asi ziran billaketa egiten.

Ezari ziran baldintzak onartu ziran eta bost orduko lana egin ondoren, arratsaldeko ordu ta erdietan, uts-zaratea entzun zan, illobi ori azpian egoan ezaugarria eta laster aurkitu ziran azurrak.

Neurriak artu ebezan. 1'82 m. Eta ori zala Zesar neurria jakiñik ziurtatu zan berarenak izan zeitekezela, gero erail ebanak egindako zuloa be aukitu eben eta ez egoan zalantzarik Zesar Borja'ren gorpuzkiñen aurrean egozala.

Ekintzaren agiria idatzi eta azurrak gotiku-tankerako kutxa batera eroan ziran eta au Iruña'ko Aldundira, arik eta Alba'ko Dukeak, Lerin'go Kondearen izenean eskiñi eban illobi ederra egin arte.

Olazar'tar Martin'ek

ERDI-AROKO EKONOMIA EUSKALERRIAN

Gure ekonomia'ren ardatza baserria izan da, erdi-aroa ezker eta baserriaren ardurea, bear dauan guztia lortzea da: Janariak soloetan eta zugaiztetan, abereen artean beiak, astoa, eta, batez, txarria. Onek urte guztirako janriak emoten ebazan, pernilla eta urdaia eta lukainak. Urdaia zaintzeko gazunaska. Baserriari laguntzeko, oleak eta oneik bear daben meatza ekartzeko karreteruak eta burdiñea aterateko ikatza txondorretan.

Liñua be ba-egoan izarak-eta etxean goruetan eginda eukiteko eta abere txikien ondorena, illaskoak eta arrautzak, azokara erooten ziran, ordez azukareta ekarteko.

Olagizonak eta euren oleak garrantzi aundikoak izan dira Euskalerrian eta Europa guztira saldu dogu burdiñea. Ori dana laba aundian egin ziranean amaitu zan eta gero, meatzak saldu eta laba aundiak egin ziran. Azkenean dana galdu da, baserriko gauzen balioa be bai eta gure baserriarrak lantegietan lan egiten dabe, etxeok lagunduta base-txeari eusten jakola.

EUSKALDUNAK/ FRANKOAK/ BISIGODOAK/ ARABIARRAK

Erromatarraz izan genduzan artu-emonak onak izan ziran, baiña ez iñoiz be onak iparraldean frankoakaz eta egoaldean bizigotakaz.

Frankoakazko artu-emonak agertzeko elebarri ederra ta laburra da Auñamendi'ko lorea deritxona, gure elebarrigillerik omen da Txomin Agirre'k idatzia. Ez da osteria ain egokia Nabarro Billosla'rena, onek urtebidea euskaldunak eta bizigodoak alkartzean jarten dau.

Bizigoten errege guztiak esaten dabe euren kroniken azkenean "domuit vascones", baiña egia izan ezker eta egoan ainbestetan esan-bearrik.

Arabiarrakaz izan genduzan artu-emonak, ezkontza-bidez be bai, baiña eurak ez ziran gure artera sartu, Muskaria edo Tuterara baiño.

EUSKALERRIA: ZAZPI LURRALDEAK

Euskaldunak iñoz ez gara izan laterri bakar bat, beti bizi izan gara sei edo zazpi laterritan baiña guztiok garala euskaldunak jakiñik. Biziera oneri gure Latiegi'tar Bixente'k bere billaketan aurkitu dauanaren arabera, "Afiktionia" esaten dautso. Eta orrelan iraun dogu bizirik erri lez. Orain bat izan gura dogu, ez ete da izango eriotzarako bidea?

Zazpi lurralde oneik erdi-erotik datoz. VIII gizaldian agertzen dira, arerioak, arabiarak eta bizigotoak aurka datozenean. Asturiarrak be bai, bizigoten ondoren. Baiña XIII gizaldira arte ez dira agertzen ondo zeaztuta. Erdi-aroaren azkenean agertzen da jaurketarako erakunderen bat. Bizkaia'n XV gizaldian artzen da Gernika batzarrak egiteko: "So el arbol". Asieran Bizkaia zan eta gero gaiñeratu ziran Enkarterria ta Durango alde.

Gipuzkoa'n batzarrak ez ziran erri baten beti egiten.

ERROMATARRAK EUSKALERRIAN

Erromatarraz gure artera etorri ziranean, emen enda ezbaridiñak bizi ziran: bazkoiak, jazetaniarrak, beroiak, barduliarrak, karistiarrak, autrigoiak...

Euskalerria izan zan erromatarraz iñoz menperatu ez eben lurralde bakarra. Eta bere izkuntza be zaindu eban.

Erromatarraz emen inguruetan ibilli ziran lurraldeak menperatzen k. a. 'ko II gizalditik.

Erromatarraz artu-emonak euki genduzan, naizta asieran ain onak izan ez: euskaldun asko joiazan gudari erromatarren aginterrira, emendik ara eta andik ona ugari ebiltzazan salerosleak, ango oiturak artu genduzan, esaterako illarriak, eta ango ertlanak be ba-daukaguz, esaterako Naparroa'ko museoan dagoan mosaiko ederra, k. a. IV gizaldikoa, Lodosa'ko ur-bidea (acueducto).

Erromatarren bideak edo kaltzadak be badagoz Euskalerrian: Tarragona'tik Leon'era doana, Burdeos'tik Asturias'erakoa, Zaragoza'tik Somport'era edo Oiartzun'era eta bitarteetan bide txiki asko eta asko.

Bide orreitatik sartu zan kristiñautzea gure errira, lenengo Narbora-ondora eta an antxiñatik Eluza'ko goi-gotzaiña, eta gero Kalagurri'tik.

Olazar'tar Martin'ek

MILIA LASTUR'KO

Milia Lastur'koren endetxa edo illeta-koplea gure elertian zarrenetarikoa eta oso gogoragarria dogu.

Lastur Deba'ko auzoa da, mendiarte ederra eta antxe bizi zan bere gaztaroan Milia.

Arrasate'ko Peru Gartzia'gaz ezkondu zan eta onen errira joan zan bizi izatera eta andra gaztea zala, erdikuntzan edo umea izakeran il egin zan.

Gorpua oraindiño aurrean eukela, Peru Gartzia barrero ezkondu zan Arrazola'ko Marina'gaz eta ain arin ezkontze ori ez eben ontzat artu Milia'ren senideak.

Orixe da koplaren onen gaia.



Gaia obeto ulertzeko, artu daiguzan kontuan Euskalerra'n eta illeta inguruan oso antxiñakoak diran oiturak, gaur batez be bi: Gorpua dagon etxean egiten izan zan gaubela: senideak eta auzokoak batzen ziran eta otoitz egin illaren alde, eta Milian'en etxean, oitureari jarraituz, bertsoak abestu be bai, gaia ildakoaren bizitza dala, endetxea erderaz esaten jaken bertsoak. Jan eta edan be egiten zan, gaba, izan be , luzea da, batez be neguan, itxarrik igaroteko.



Emen bertsolari edo koplalariak emakumeak dira: Miliaren aitzak eta Peru Gartzia'ren arrebea dan Santxa.

Eresaldiak lau lerroko zortzi aapaladi dauz:

Milia'ren aizearenak lau: Milia ez dau onartu Peru, 'k , betor Lastur'era gorpua.

Santxa'ren iru aapaldi: Peru'ri emaztea gazte zala il jakon, ez dau Peru'k orren errurik.

Milia'ren aizeak barrero iru aapaladi: Zerura mezua eta gorrotoa lurrean.

Gai bereizi batzuk: Andra erdituari sagar errea eta arda zuria emoten jakoz. Baiña orren orde z Milia'ri azpian lur otza eta gaiñean arria.

Milia'ren aita eta ama bizi dira eta aitzak dakaz ardiak basotik eta amak apaintzen dau ibia illetarako. Ara bear dozu Milia!

Jazokizun arrigarri bat: Zerutik arria jausi da eta apurtu dau Lastur'ko torrea eta antxe il ziran Milia'ren aita ta ama.

Arrazola'ko Peru Garzia'k ariñegi aurkitu dau emazte barria. Len be zerbait ba-egoan maitemin-bide orretan. Ezkon bekio, bere ideia dauko.

Peru'ren arrebea dan Santxa'k be ba-dauko zer-esanik: Peru'ri zori txar aundia etorri jako. Milia zoriontsu egin eban Peru'k: atearte zabalean eta giltzaporra aundiaren jabe zan eta onra aundia eukan.

Bigarren endetxan Milia'ren arrebeak ainbat gauza diñoz: mezulari gaiztoa, zerutik jausi zan arriak Lastur'ko torrea apurtu eta aita eta ama il dauz. Emon daiskuela Milia eskatu dautsagu zeruari eskutitz baten. Eta gorrotoa artu dautsagu Arrasate'ri andra giputzak ain txarto artu dauzalako: Balda'ko Maria, Gabiola'ko Otxanda eta Erribaleko Milia.

Olazar'tar Martin'ek

EUSKERA ORAIN 2.000 URTEKO ARLOSETAN

Laburpena

Erri baten historia bi bidetik aurkitu genezake, gutxienez: arkeolojiaren bidetik eta etnolojiarenatik. Arkeolojia eta Etnología, orra bi bide.

Etnolojia: orain 2.000 urteko erriaren pentsakera dirau gaurko oitura eta pentsakeretan. Bide au da biziaren bidea.

Arkeolojia: orduko biziaren zati bat dirau arlosetan gogortuta. Bide au da, illen bidea.

Etnoloji bizidunak argi egiten dio arkeologiari ildako arri-pentsakera oieri bizia emateko.

Arkeolojiak euskeraz 2.000 urteko itzetan arlosetan esaten diguna, Etnolojiak argitzen digu.

Arlosek Euskal jainko txikiei buruz esaten dutena, Etnolojiak Mari eta bere menpekoei buruz esaten duenakin argitzen da zearo.

Noizkoak geran

Euskalduna Pirenee-mendietan millaka urte asko bizi izan dala, ziur dakigu Arkeolojiak erakutsita. Erri onen gauzarik arrigarriena auxe da: beti iraun duala erri bezela eta izkera bezela... Urteetan zear gauza asko aldatu bazaizkio ere, erria, izkuntza eta erri-moldea guregañaño eldu da... sustraia, mamia, guna aldatzeke.

Artu-eman ugariak izan ditu beti bere inguruetako erriekin eta gauza asko artu ditu bere ingurutik; baña, artu dituen oiek bere erara artu ditu, bere zerki berezia galdu gabe.

Euskera bere ere, ingurutik itzak artu arren, beti euskera gelditu da: bere iza-keran, bere joskeran eta muñetan, aldakuntza aundirik bere animan aldatu gabe... Oro bat gertatu zaio Euskalerrari bestelako kultura-gaietan be. Jan eta edan egiten degunean, gure odol eta aragi biurtzen dituguz eta asko janagaitik ez degu gure nortsuna galtzen. Berdin gertatu zaio Euskalerrari, jakintsuen arrigarirako.

Geroztiko Paleolitikoa eta gaurko Euskaldunak

Geroztiko-Paleolitiko-Arotik asi gindezke orduko erri bateri Euskaldun izena ezartzen eta gaurkoak ordutik datozte. Euskalerriko kultura berezia, biotz-muñeko etenik gabea, ez legoke esplikatzerik, erri au, urteetan zear, bat izan ez balitz gaurdaño...

Gaurko Euskaldunok orduko Euskalerraren senide generala esateko, eskubide osoa daukagu. Garai artakoak gera: 12.000 urtetik gorakoak... Arrezkero gaude Auñamendiaren inguruan, Pirenee-mendien babesean...

Odol berezi, kalabera-egur berezi, mintzaira berezi... Erri berezi. Ez ohea, ez txarragoa; baña, berezia.

Franko-Kantauri-Kultura

Gure aurrekoen aurrekoek Auñamenditik gorago eta beerago ere bizi izan dira: gora, Garona eta Dordoña ibaieraiño; beera, Kantabria eta Asturiaseraíño. Gaurko Euskalerrriak egoak galdu ditu eta murriztu egin da; baña, leku aien ardatz biurtu da.

Inguru oietan daude 100 baño leize-zulo geiago, marrazkiz beterik. Zer marrazki? Mamut illeduna, elefante, reno, leoi, artz, bisonte, zezen, otso, axari, basautz, basurde eta abar. Txoriak ere bai: arrano, kurrillo, eper, atta, belabeltz... Sareak, giza-eskuak, arraiñak, eta arbolaren bat...

XX'garren eunkian aurkitu dituzte eta jakintsuen eskuetatik pasa dira guztiak. Iñork ez zekien zirenik ere; baña, irudi oien erraiñuz beteta euki du bere burua euskaldunak... Emen dago Etnolojiaren lana: buru euskaldun ori aztertzea. Leizeak aztertzearen lana Arkeolojiak jaso du.

Mundu orren orduko arrastoak aurkitzen dira Auñamendiko erromatarren garaiko arlosetan. Eta arlosa oiek dira gure lan onen zioa. Arkeolojiak aztertu ditu arlosa oiek; baña, guk Etnología ere irabilliko degu arlosa oiek argitzeko.

Etnolojiaren bideak

Mari, sorgin guztien Erregiña

Leize eta arlosa oien munduak euskaldunen buruan iraun du gaur arte, gure errian eten osorik izan ez dalako. Don Jose Miel Barandiaran murgildu zan Euskal buru oietan, bere etxetik eta bere erritik(Ataun'dik) asita. Arkeolijari ere eman zion bere lana, izugarritzko lana; baña, berak Etnolójian egindako lanari ematen zion garrantzi geiago. Etnologoa izan zan, arkeologo ez ezik; berak, ordea, etnólogo izan nai zuan, arkeologo baño lenago. Bizidunei ematen zion ildako arrien baño garrantzi aundiagoa.

Eta berari jarraituko diogu Etnoloji arazo onetan.

Aztiak eta sorgiñak

Zer dute biak alkarren antzeko? Biak dute indar berezi bat, adurra. Adurraren aalmenez majia egiten diote irudiari. Aztiak, mozorroz jantzita, leize-zuloetako animaliei majia egiten zien, adurraren bitartez. Zertarako? Irudia iltzeko. Irudia il ezkeru, animalia berbera be ilda zegoen. Aztiak egiten zuen lan ori eizera erria irten baño lenago. Aztikeri orrek moral aundia ematen zien eiztariei.

Indar berezi ori, adurra, sorgiñak ere badu; baña, ez guztiak. Akelarretara joaten ziran guztiak ziran sorgiñak, adurrik ez bazuten be. . Baña, orain benetakoko sorgiñekin ari gera.

Belagille eta Sorgain dira sorgiñen beste izenak. Sorgainek umeen jaiotza du bere ardurapean; baita sorgiñenganako sinistea gordetzea ere.

Bela-beltz, txerri, asto, elbi, txindurri eta, batez be, katu beltzaren irudia artzeko almena omen dute sorgiñek eta aztiak.

Sorgin eta aztien animali biurtze onek, leize-zuloetako aztiak dakarzkigu burura. An ere, aztiak animalien antz-irudian agertzen dira: mamorro eta zomorroz jantzita animalien antzeko

Leize-zulo barruetako sorgiñak

Barruko illunpe oietan bizi ziran espirituak omen ziran Sorgiñak. Gau-erditik asi eta eta ollarrak jo arte irauten omen zion indarrak aspiritu arri. Gauaren jabetasuna bere esku eukan. "Gauekoak gauekoentzat" esan oi zuten gure aurrekoek...

Baña, espiritu sorgin oiek beti egon dira Mari'ren menpeko. Bera, Mari, egon da sorgin guztien gañetik eta auek egindako lanak, Mari'ren aginpidean egin dituzte.

Mari, Anboto'ko sorgiña, ezaguna da Euskalerra osoan eta, sorgin guztien buru agertzen zaigu histori zaarretan. Bera be, sorgin askoren antzera, leize-zulo batean bizi da, animala itxuran. Leize-atakan dagoenean, batzuetan, andre ederra da, naiz-eta auntzen oñak eraman. Tarteka, berriz, zaldi, zezen, ari, suge, putre edo beste piztien itxura osoak artzen ditu.

Mari, ordea, ez da Anboto'n bakarrik bizi; beste etxe-bizitza asko ditu Bizkaia'n bezela Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Lapurdi eta Xubero'an.

Bere bizi-lekuak, lur-azpian; lur-azpitik kanpora irteteko, leize-zuloak

Leize batetik bestera joateko illargi, sua, itaia, arbola edo garoa sutan eta gurdi zalapartsuak... Geienetan suz inguratutik.

Leizetik kanpora, garo eta arbola, itaia eta illargia, , sua... Leize-atarian, emakumea eta barrurago, animala guztien itxura... Orra zenbat gauza dan Mari.

Zaldiak, zezenak, basautzak eta abar, leize-zuloetako marrazkietan;

Zaldiak, zezenak, ariak, akerrak, gure gaurko euskaldunen buruetan, eta auek ere leize-zuloetan bizi diranak... Euskaldun prehistorikoak egindako marrazkiak, ara berriro emen, euskaldunen gaurko buruetan... Ez al da au arritzeko?

Atarrabi eta Mikelatz

Biak dira Mari'ren semeak: Bata ona, Atarrabi, eta gaiztoa, Mikelatz. Bata onaren iturri eta bestea, txarrarena. Biak, Ona eta Txarra, iturri batetik baletoz bezela. Mari bera ere ongille da eta gaizkille izaten da... Erriak esan oi du Anboto'ko Sorgiña gaiztoa dala eta Murumendi'ko Damea berriz, ona...

Mari'ren etxe-bizitza sakratua da.

Baldin konsultaren bat egiteko, leize-zulora sartu bear baldin ba'dezu, ondo kontuan artu, zertzuk egin bear dituzun: Lenengo ta bat "ika" itz egin Mari'ri; bigarrenez, zutik egon beti, sekulan ezergatik eseri barik; irugarrenez, sartu bezela irten, atzeko alderik eman gabe Mari'ri...

Aginduak ere baditu:

Gezuraren kontrakoa da;

Lapurretarik, ez;

Arrokeririk, ez;

Emandako itza bete bear da;

Gizakumeari begirunea sor zaio;

Gizartean alkarri lagundu...

Orra Mari'ren zenbait agindu. Gizadi-barnean agintzeko ausardia badu Mari'k, jainkosa baten antzera, eta pekatarietara zigorra emateko ere bai.

Mari'ren zigorrak

Gai oneri buruz gai bakar bat agertu nai degu, eredu bezela.

Gezur, arrokeri, lapurkeriaren gaia artzen du Mari'k, pekataria zigortzeko. Ukatu dezuna (eduki arren) ala geitu dezuna, (ez izan arren), gezurra, kendu

egingo dizu Mari'k... Orregaitik esan oi da "ezagaz" eta "baiagaz" bizi dala Mari.

Bein galdetu zioten Mari'ri ia nun zebiltzan bere menpekoak:

– Elgoibarren ezaren billa.

Eun ardi zituan artzaiak, berrogeitamar zituela esan zuelako, amar ardi kendu zizkion "ezagatik". Arrokeriz, eun da amar zituela esan ba'lu, orduan ere amar kenduko zizkion "baiezkoagaitik"...

"Ezari emanak" ez da gezurragaitik bakarrik esaten; esaten da, baita ere, auzo arteko bear dan laguntzarik ematen ez dalako.

Zubillaga'ko olagizona Anboto'ra joan zan, bere olak zergaitik gelditu ziran jakiteko. Koban sartzekin batera onela galdetu zuan:

– Emengo nagusia nun da?

– Zubillaga'n dabil "ezartuak" banatzen. (Erantzun zion Anboto'ko Damiak).

"Ezartuak" eta "Ezari emanak" alkarren arteko zer-ikusia ba dute. "Ezartuak", arri-jasa da, kastigua, "ezari eman zaiolako".

Mari'k galderak jasotzen ditu eta erantzun be bai,

Ondo dakigu esaera auek ez dirala bein ere gertatu. Alan be, euskaldun askok sinisten dituzten gauzak dira; eta, sinisten zutela, egia da... Eta gertatuak izan ez arren, egia da gauza oiek beuren buru eta gogoetan zirala orain arte. Eta buruan zituzten siniste oiek eragiten zieten euskaldun askori; eta erligioren antzeko zerbaitean, eragin ere...

Orregaitik egiten zizkieten konjuroak gure euskaldun kristauek be... Ekaitzak agertzen ziranean egiten zioten konjuroa, tximista edo oñeztarria Mari'ren esku-tik datorrelako... Oñeztari ori arrizko (eta galtzairuzko) aizkora omen da... . Leize-usai galantza daragite gauza auek.

Konjuroak egiteko erdera erabili oi dute euskaldunek, berbeta arrotza, eta misterioso. Ona bi ale:

"Carga la Izarraitz,
descarga la Ernio,
guarda la Altzola,
endemas Semeola".

Eta beste au:

"Carga Murumendi,
pasar Oredaindi
descarga Gorrimendi".

Bi itzetan esanda

Arkeolojiak, Eskalerriko aitz-zuloetan, eta Etnolojiak, Euskalerra bizi-bizian, erakusten digutena, elkarren antzeko bi gauza dira; paralelismo baten itxura dute. Bata besteakin ondo datoztenak.

Gauza arrigarria da; baña, egia da.

Euskalerra, erri bera da Historia-aurretik onera.

Erri ori ez da oso aldatu arrezkero; barne-muñeko mami eta espirituak irauntzen dio oraindik... Orra zergaitik duen gure Euskalerriak ainbeste balore eta garrantzi Europa'ren sustraiak ezagutzeko.

Gure Erriari gertatu zaiona (ordutik onera irautea), ez zaio Europa'ko beste erri bateri gertatu... Gurearen antzekorik ez dago arazo onetan, beste bat emen...

Euskalerrria galtzeak (bere oitura, izarea, pentsakera, mintzaira galtzeak), Europa'ko Yakintzari kalterik asko ekarriko lioke.

Erremediorik gabeko kaltea.

Leizeetako marrazkiak

An daude animalien irudiak marrazkietan, arrak zauriak dituztela biotz-
parean, bestelakoak zauri gabeak eta mozorroz jantzitako giza-irudiak. Aien
aurrean egin oi zituzten aztikeri eta sorginkeriak.

Leize oietan bizi da gaurko Mari eta animali antza du berak ere, andrea izan
arren. Bada beste irudirik be koba-zuloetan: arbolak, esate baterako.

Mari bera be ez da animali itxurakin bakarrik konformatzen; baditu beste
antz-irudiak: zugaitz, aize-borron-dara, laño zuri, illetargi, eta su. Tximista eta
ekaitza bere eskuetan ditu...

Mundu guztiaren indar-bilduma ez ba'da Mari, indar oiek, beintzat, bere
mende ditu, Ama Lurraren gogo eta espiritu ba'liz bezela.

Mari-inguruko siniste-oiturak, guztiak daude naaste batean eta ez da gauza
erreza, bakoitza berari dagokion maillatan ipintzea.

Mari eta leizeak

Mari leize-barruetan bizi da; marrazkiak dauden leizeetan ere bai. Munduko
indarren jabe da; galderak jasotzen ditu eta erantzunak eman galdera gutzietan;
konjuroak egiten zaizkio eta meza eta txanpon-diruak eskeintzen...

Eraman ditzagun siniste oiek orain 10.000 urteko euskaldunen artera eta
orduko bizi-bidearekin bat baño geiago ondo etorriko lirazke...

Dudarik gabe, gaurko gauza auek, ordukoak argitzen laguntzen digute. Alka-
rren arteko antza geiegi daukete jatorri beretik ez etortzeko.

Marik azti-papera egiten diardu eta bere inguruan egiten diranak, orduko
leize-elizetan ere egiten zituzten euskaldunek... . Baña, leizetik kanpora be edu-
kiko zuten beste yainkoaren bat, guk ori ez ba'dakigu ere. Gogoratu bear degu
Mari'ren indarrak agertzen dirala kobetatik at be. Ama Lurraren antzekoak ditu-
zu, aztikerien aurrekoak.

Lurreko indarren mailla izango zan estratorik zaarrena; gerora sortuko zan
aztikeri eta sorginkeri maila. Oien ondorengo estratoak ere badituguz: ez da
Euskalerrriaren ertzetik kulturarik pasa, bertan bere kutsua laga ez duenik...

Estrato oien arrastoak lausotuta daude; alkarren artean korapillotuta eta naa-
sian... Nork argituko ditu, korapillo oek askatuz? Etnólogo askoek bildu dituzte
gure arteko siniskeri eta ipuiak. Baztarretan oraindik ere geldituko dira biltzeke
eta oiek jasotzea izanen litzake lenengo lana, gure aurrekoen aztarnak galtzeko
arrisku bizian gaude-ta... Bide orretatik atera diteke gure aurrekoen bizi-moldea,
guregan bizi izan bait dira oraindik ere... Noiz arte?

Mari'en menpekoak

Mari erregiñak baditu bere menpean morroi eta neskameak, espiritu gaizto
eta on, animali itxuran. Berbera naasten da zenbaitetan menpeko oien artean.

Bere menpekoak, eta bera berbera, agertzen dira animali auen itxuran:

Bei gorritxo, Zezen edo Irisko gorri, Aari eta Aker, Zaldi zuri, Sugarra eta
Iraunsuge, Lamiña eta Ireltxo, Gaueko eta Prakagorri, Basajaun eta Mikolasak...

Mari bera yainkosa da eta menpekoak ere yainkotasun orren partaide dira. Gauza auek gure Euskal buruetan bizi izan dira. Ara zer zion 90 urteko gizon batek D. Jose Miel'eri 1943'nean:

“ Gizonak badu lur bat, bertan bizitzeko, eta bertan iltzeko. . Baña andik aruntz ez du ez aalmenik, ez aalik. Odeiak, gizonen baimenik gabe dabilta gañetik. Lurrazpiko eremuetan, berriz, deabruak dira nagusi.

Deabruak lur gañera ateratzen dira, animaliez jantzita eta animali gisan: Bei gorri, zaldi zuri, aker beltz, zerri xuri, aari eta suge.

Lengo mendeetan nagusituak zebiltzen munduan; orain gutxiago, elizak eta ermitak egiñak diran ezkeroz. ”

Bei gorritxo

Agertu ditzagun emen bi ipui gai oneri buruz D. Jose Miel Barandiaran'ek jaso zituen bezela:

“Bei-zai zegoan Irari'ko alabea.

Eta gero, bei-paltan, etorri omen zan etxera. Birao egin zion uezamak: etzala geiago etxean sartuko beirik gabe.

Gero, iñularrean, , bei billa joan zan, ta billatu zuan bere beien pigura gorri-gorrie. Eta eldu zion isetsetik. Gero, pigura berarekin, zulora sartu zan. Etzan neska azaldu aldi batean.

Eta, zulo orren atakan, illea orrazten ikusi zuten artzaiek. Gero etxera deitu zioten gurasoei artzaiek, neska nun zegoan. Eta neskak txerri gorri txiki bat zuan aldamenean. Eta, ura esnatzen baldin ba'zan, galduko zituala esan zion gurasoai, ta alde egiteko. ”

Ona beste orren antzeko ipui bat:

“Neska bat joan zala, esaten dute, Aizkorri mendira bere bei baten billa. Ikusi zuela bei gorritxu bat, eta, berea zualakoan, artu zuala adarretatik. Orduan beia sutu zala, eta neska berekin zuala, leize batean sartu zala. ”

Bei gorriaren leloa maiz entzuten da gure esaera zaarretan eta bei gorria dan bezela, zezen gorri edo irisko esan oi da beste gertaera batzuetan. Ipui auetan Mari'ren izenik ez da aitatzen, baña susmoa bai artzen zaio. Mari'ren etxera eramaten ditu bei gorriak, neskatxak.

Zaldi zuri

Zaldi zuriari buruzko ipuiña, Barandiaran'ek bildutako itzetan:

“Bi mutiko mendigañeruntz zijozan; bat meza entzunik eta bestea, ez. Eta Ahusi'ko ibar-soroan ikusten dute zamari xuri eder bat. Mutiko bat (meza entzun zuana) igo zitzaion gañera:

– Arri. . !

Eta ez zitzaion ibiltzen zamaria. Bestea igo zan:

– Arri, deabrua!

Zamari xuria aideratu zan. Mutikoa gañean juan zan Lexarrigibeleko kobarat buruz. Eta beste mutikoak entzun zuan:

– Eramak ori ere!

– Eztiat aal! Orrek entzun dik Meza

Zamari gañean joan zan mutikoa ezpaizan agertzen, jentiek juan ziran billatzera. Eta Lexarrigibelekoleizean ikusi zuten illik... ”

Aari eta Aker

Zegama'n esaten dute Aketegi'ko zuloan Mari agertzen dala aari baten gañean... Mari aari batekin bizi dala bere koban eta aari duela eser-leku eta buruko, esan oi dute...

Aari ori ez da Mari baña berarekin bizi da.

Akerra, berriz, akelarretako jaun da jabe da eta ara joaten diranen yainko-txoa.

Euskal siniskerietan akerrak gordetzen ditu baserrietako ikullu eta kortak, gaitz eta espiritu txarretatik libratuz...

“Auza'ko mendian ba omen da leize bat, eta leize aren barnean urrea ageri. Suge aundi bat urrearen ondoan eta aker bat...”

Sugarra eta Maju

Sugarrak “suge-arra” esan nai omen du. Gauza batzuetan Mari'ren antzekoa da, Mari berbera ez ba'da...

Leize-zuloan bizi da bera ere lurpeko eremuetan; baña, andik kanpora susko itai baten antzera agertzen da, Mari'ren antzera... Ori gertatzen danean, ekaitza datorren señailea... Itaia, berriz, illargi berria ere izan liteke. Gurasoen esanak betetzen ez dituen, zigorra ematen die...

Askotan Sugar eta Maju'k berdin jokutzen dute; antzekoak dira eta biak, arak... Azkoiti'ko partean Maju Mari'ren senarra da; baña, senarra izan arren, Mari'ren menpeko...

Badira baztarretan Sugarra'k botatako arri aundiak. Ataun'en bada arkaitz bat: “Muski'ko koba'gañeko aitzeei kenduta, Sugarra'k botea dala esan oi zigiten zaarrek...”

Iraunsugea

Sugarra'ren antzekoa da. Aldiz buru bakarra; aldiz zazpi buru dituen. Ona beste bere izen batuzek:

Erensuge, Errensuge, Hensuge, Edensuge, Egansuge, Sierpe, Dragoi eta Lerensuge. Au ere koba-zulo barruetan bizi da. Aralar'ko leizean bizi zan, San Migel'ek, Teodosio'ren eskarira, zazpi buruak ebagi zizkion arte...

Ona Xuberoa'n zer zioten:

“Ahusi partean da Azalegi'ko koba, Eta an bazan lehen Hensugia. Zazpi buruko sugia omen zen. Bere atsarekin (arnasarekin) erakartzen zituan mendiko piztiak eta jaten. Alzai-Zaro'ko konde baten semeak ill omen zuan...”

Lamiñak eta Maide

Zuloetakoak dira auek be. Lamia da emeen izena; arrena, berriz, Maide. Persona txikiak dirala esan oi dute, ongi egitekoak, geienetan beintzat.

Gernika inguruko lamiak, gerritik gorakoa, andreena dute eta berakoa, arraiena... Bizkaitarrak dituguz, Gipuzko, Araba eta Naparro'an gutxi aitatzen dira sorgin auek.

Bada Bizkaia'n Lamiñarrieta izeneko ibai-bazter bat, arri zabal aundiak ugari dituen eta an egoten omen dira lamiak beuren illeak orrazten...

Bein Baltzola'ko koban neskatz batzuek bizi omen ziran eta artzaiek ikusten omen zituzten neska auek, beren buruak orrazten, arri baten gañean... Errome-

rira jeisten omen ziran, bañan, oiñak ondo estalita, ollo-ankak bait zituzten... Mari'k ere baditu putreen anakak...

Etxegintzan be iaioak omen dira sorgin auek: etxe, jauregi, zubi...

Arrosa'ko zubia egiten ari zirala, (zubia egitea gau bateko lana izaten zan), aizkeneko arria jartzeko zegoela, ollarrak jo omen zuan. Lanari utzi eta laisterka alde egin bear izan zuten: ez, orratio, ollarra madarikatu gabe: "Martzoko ollar gorria, madarika ikala mihia..."

Baserritar batzuek jatekoa uzten omen zuten beren soroetan lamientzako; lamiak, berriz, gauez etorri eta jan... Lamiak, beuren esker ona erakusteko, soroak lantzen zituzten gauez.

Lamin batek, gauero, sukaldera sartuta, ardatzean zegoan andreari ogia koi-peatan buztia eskatzen omen zion...

Bein batean koba-zuloan lamiña erditzeko miñetan zegoala, beste lamin bat joan omen zan Oxa zelaiko baserrira etxekoandreaken laguntza-billa. Etxekoandreak lagundu zien arazo artan; bai pozik gelditu ere lamiak, Oxa'ko etxekoandreaken lanarekin. Esker ona agertzeko sekulako bazkari on bat eman zioten... Jatekorik ederrena, ogi zuri goxoa...

Etxekoandreak mantelpean gorde zuan pusketa bat, gero etxera eramateko asmoz. Bazkalondoan jeikitzen asi zanean, ezin zuan bere bururik jaso... Lamiñek esan zioten, baimenik gabe zer-edo-zer artuko zuela kobatik... Bere pekatua aitortu eta ogia bere lekuan utzi zanean, etorri zitzaion jeikitze almena... Orduan lamiñak ogi osoa erregalatu zioten etxerako.

Ireltxo

Ieltxu, Iditxu, Idittu... Ona emen laminen antzeko beste sorgin-izakiak. Batzuek esaten dute egaztiak dirala; beste batzuek, berriz, suskoak dituztela gorputzak. Irugarrenek diote, txoriak izan arren, aotik sua dariotela... Txerri txikien antzeko ere egiten dituzte...

Ez dira gaizkille.

Jendea ikaratzea izango da euren okerrik aundiarena.

Jokabide au, batez ere, ikaratiak direnekin erabili oi dute...

Gaueko

Gauaren jaun-da jabe, animalien gisan dabil. Gaueko apostuak eta illargitan egindako lanak debekatzen eta zigortzen ditu.

"Ikazkin bat ikatza egiten zebillela, gauero amabiak inguruan, txondarrari begiratzera joaten ei zan. Gau batean, lan onetara zijoala, ganadu bat, bei antzekoa, bidean etzanda topatu ei zuan:

– Altza!

Esan zion; baña, beiak ez ei eban ikararik egiten:

– Altza!

Berriz ere, eta berdin.

Irugarrenen aldiz Altza! esan zionean, jeiki ei zan eta arran txiki bat txilin-txilin joaz, ikazkiñari begiratu eta itz auek esan ei zizkion:

– Gaba gabekoentzat eta eguna egunezkoentzat.

Ikazkiña zearo bildurtuta etxerat joan ei zan, eta geiago ez ei zuan mendira joaterik nai izan... ”

Prakagorri

Galtxagorri, Mamarroak, Fameriyelak, Beste-mutillak, Bearreztanak, Aideta-koak... Ona zenbat izan dituzten Prakagorriak.

Animali, mozerro eta gizontxoeren antza omen dute. Galtxa gorriekin. Beurok ematen diete indarra sorgin eta aztiei. Jostorraz-ontzi batean sartzen dira pillo oso bat. Sanjuan besperan biltzen omen dira, jostorraz-ontzia irikita ustea, besterik gabe. Baiona'n ere saltzen omen ziran.

Ongille eta laguntzaille dituguz.

Ona Kortezubi'n (Santimamiñe koba) gizon bateri gertatua:

"Gizon batek erosi zituan Fameriyelak, lana soroan egiteko. Jostorraz-ontzi batean zeuzkan. Agindu zien lana egiteko. Lan ura amaitu eta etorri zitzaizkion berriro lan-eske. Eman zien beste bihar bat. Akabau eben. Beste bat... eta orre-la lau aldiz. Bosgarrenean etorri ziran berriro:

– Zer lan egingo degu?

Ez zekien zer lan eman, beriala amaitzen bait zituzten denak.

Ordu artan agindu zien ekartzeko ura galbaian. Asi ziran lanean Fameriyelak, baña egin-alak eginda ere, ezin zuten urik ekarri. Gelditu ziran azkenik, agindurik bete ezin zutela...

Familiarrak baño gizon on baten jakituria geiago zalako, Fameriyelak joan ziran atzera... "

Gai oneri buruz ona emen beste ipui bat:

"Aizpuru'ko apaizak (Orozko'n) Familiarrak zeuzkan etxean, eta neskameak onela esan omen zion:

– A. . ! Zein ederki juango nintzaken, gaur arratsaldean, Madril'go zezenetara. . !

Eta apaizak erantzun:

– Ba, nai ba'dezu, gura ba'dezu, juango gera <oiekin>...

Ta, mamarroak artuta, bazkaria jan ondoren, Madril'go zezenetara joan ei ziran. . "

Mikolasak

Deabruak ei dira.

Bada Larrabezua'n, Atxispe'ko mendian, bost Mikolasen artean botatako arkaitz bat.

Basajauna

Illez ondo ornitutako gorputz aundia omen du Basajaunak. Indar aundiak omen ditu soñeko illeak bezela. Ibiltzen oso bizkorra... Mendi-oianetan basozkonetan bizi ei da... Makilla aundi bat darama eskuan...

Artaldeak mendian diranean, esne-lapurretan ere ikusi omen dute... Bildurgaria eta "Elurretako Gizon Ikarragariaren" antzeko...

Ona zer dioten Ataun'en:

"Denbora batean, Muski'ko koban, Basajaunak bizi omen zien. An ingurueta-ko lurrek erabillita, sekulako gariek biltzen omen zituzten. Beealdeko lurretan kristauek bizi omen zien eta artean ez omen zuen garirik ereiten, gal-azirik ez da.

Bein, Sanmartintxiki, botin aundi batzuek jantzita, igo omen zan Muski'ko kobara: ango gari-pillak ikusita, zeñek saltoka ariñago pasatu, Basajaunekin apostu egin zun.

Baita Basajaunek berealdiko erreztasunez pasatu omen zuten; Sanmartintxi-ki, gari-pillaren erdian erori omen zan; baña, baita botin guziak gal-alez bete ere...

Kristauek ez omen zekien garie noiz erein; baña, olako batean, Basajaun bateri aitua omen zion nola algaraz esaten zion:

– Ja, jai. . ! Balekie, artuko likenea:

Or-irtete, arto ereite;

Or-erorte, gari ereite...

Ordutik zabaldu omen zan garia erri danetan...”

Jentillak

Jentillak eta Basajaunak biak alkarren antzekoak dira: gizonen itxurazko, garia badute, koba-zuloetan bizi dira, indar aundiak dituzte, arri aundekin pelotan ibiltzen dira eta aberatsak. Euren azkena kristautasunak ekarri zien...

Sanson-arri

Badira Euskal-erriañ Sanson´ek mendi batetik bestera botatko arri aundiak... Jentillen antzera, au ere pelotari...

Sansonék egindakoa Erroldan frantsezak egindakoak badituz...

Basajaunak asi ziran lenengo arrika; gero, Jentillak jarrai zieten; ondoren Sanson´ek eta aizkenik, Erroldan´ek.

Orra gauza batentzat, zenbat persona-aldi...

Orrenbeste gertatu zan Jentillen eta Mairu edo Moroen artean: Jentillek egindako zenbait gauza, Moroei erantsi eta biak naastu; Jentil-baratza Ataun´en eta Mairu-baratza Oiartzun´en...

Izenak aldatzen dira; baña, sinisteak berdintsu diraute... Auek ez dira aldatzen.

Mari´rekin asi gera eta koba-zulotik atera ez. Mari´ren inguruan ikusi dituguz beigorritxo, zaldizuri, aker, aari, iraunsuge, lamin, ireltxo, prakagorri, basajaun, jentil, Sansón, Erroldan, mairuak... Denak Mari´ren kutsurik galdu ez dutenak.

Zenbait gauzetan, antzeko... Guztiak naasian...

Baña, euskaldun biotz-gogoetan oraindi bizirik diranak.

ERROMATAR ALDARE EUSKALDUNAK

Nun daude?

Akitania aldeko Pirene-mendietan. Akitania da Euskalerrañ ifar-aldeko zati bat. Garona ibai Pirenee-gallurrean sortzen da eta bere izenak, Gar-ona, mendia agertzen digu. Gar itzak mendi-gaña adierazten digu: Gar-mendia, Gar-ate, Etxe-gar-ate...

Akitania´ko Marignac errian bada Gar mendi zorrotz bat eta Rue du Pic du Gar, kalea. Gar-ona ere mendia da, mendi gallur ona. Zergatik dan ona? Ur asko duelako. Zazpi errekatxok sortzen dute mendiaren izena artzen duen Garona ibaia.

Garona ibaiak, Pirenee-menditik Burdeos errira mako aundi bat markatzen du eta mako orren barruan gordetzen da Akitania euskalduna. Adur da beste ibai bat Pirenee-mendietan sortu eta Baionañ amaitzen dana.

Ibai oien sorrera eta inguruan daude arlosa eta aldare geienak.

Ego-aldeko Euskalerra Aragoitik aurrera Lleida-raiño zabaltzen zan eta an daukadu Leida'n Aran izeneko arana menditik Frantzi-aldera jeisten dana. Izena euskalduna eta andik onera dauden erromatar arlosa asko euskaldunak. Aien billa gabiltza.

Arlosa eta aldara oiek, danak ez ba' dira ere, Toulous'eko Museoa gordetzen dira. Billatu zituztenak ez zieten antzik ematen euskerarik erabilli ez zutelako. Baña, euskaldun garbiak dira.

Erromatarren garaikoak dira. Batzuek euren jainkoeri eskeñiak; beste batzuek ango jainko eta emengoei, bai batera; eta. azkenik. emengo jainko euskaldunei soilki; esate baterako auei: Asto Illuno, Aker Beltze, Aritxo, Beigorritxo... Auek emengoak dira eta ez kanpotik etorritakoak, euskeraz daudelako eta emengo denborekin egokitzen diranak, naiz aurrekoekin, naiz ondorengoe-kin.

Arri auek idatzi zituztenak latin izkuntzakoak ziran eta latin-arauera idazten dituzte. O itz baten amaiera arra da eta A emea, orregaitik edo Asto itzari Illuno ipiñiko diote eta ez Illuna; euskaraz, ordea, Illuna bearko luke eta ez Illuno. Beste arlosa bat bada Araba-aldean Illuna itzakin; baña ura Socra da (amagiarreba latiñez) eta ez Asto. Jokabide ori eramango dute idazteko jokabide guztietan. Jokaera ori latiña da eta ez euskalduna.

Arri bakoitzari zenbaki bat ipiñiko diogu, Toulouseko Moseoaren Katalogotik artuta, eta eta orrialde bat, pajina bat, Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. ESTUDIOS, Epoca Romana, Auñamendi'k ateratakoa, 1982 eta bertan dakar Toulouse'ko Museoaren Katalogoa. Beraz, bi zenbaki: bat Catalogoarena eta bestea Enciclopediarena.

Lenengo arriakin asiko gera:

BEIGORRITXO DEO

Gai oneri buruzko arlosa edo altara zenbait daude izen auekin: Baicorrixo Deo, Baicorriso, Baigorritzco, Baigorrix, Buaicorrrix, Buaiorrix... Gaia Garona mendi gañekoa da eta menditik beera Toulouse-raiño zabaltzen da eta jeistera orretan izena aldaketa batzuek ditu; baña, antz ematen zaio izena berbera dala...

Beigorrixo izena Baigorrixo... Bei da Bai. "Al formar palabras por sufijación o por unión de dos vocablos, pueden ocurrir algunas modificaciones. B) Cambio 1: Apofonía o cambio de vocal: Maite-kunde = Maita-kunde..." Esto es lo que ha ocurrido en Bei por Bai. 11 orrialde "El Lenguaje Vasco" Nicolás Orixe eta Martín Oyarzabal'ena. "Impreso en Gráficas Izarra. San Sebastián. 1963".

N. 145

Pag. 509

BAICORRIXO DEO
NANNAXUS
AI IHONIS Fil.
V. S. L. M.

Garona goian, Jainkoaren izena ondo irakurtzen da. Irugarren lerroa ez dago garbi.

N. 144

Pag. 509

DEO / BUAI / CORRIX
ANDOS / PIANDOS / IGIANII
V. S. L. M.

Comminges inguruan. Toki zeatzik esan ezin. Aizke-neko lerroa, ondo, ez.

N. 182
Pag. 515 ABELIONI Zipo borobilla da, 0'75 gora eta 0'30 lodi.
MINITIA Aulon'en aurkitzen zan, Noue ballaran.
JUSTA Jainko oneri jaso zioten aldara asko;
bera da zabalena
V. S. L. M. eta ondoren dator Beigorritxo.

Abel izenari, Ona erantsi diote eta beste 2 ii tatean itzak alkartzeko eta nori eskeintzen dan altara jakitzeko. Eta latinez ari danez eskriba latinista ori, ala bear du izan.

N. 126
Pag. 506 ABELIONI Sait- Beat'en aurkitua, Garona ballaran
DEO gune estu batean:
TETULIA-HO ABEL-ON JAINKOARI
MULLI-F TETULIAK HOMULLI'REN
V. S. L. M. ALABAK...

N. 130
Pag. 507 ABELIONI / DEO JAINKO ABEL-Onri
SABINUS BARKO zen SABINOK
BARHOSIS Sain Beat'eko ermitaren orman sartuta.
V. S. L. M.

Sacaze jaunak dionez:

ABELIONI Saint-Pe-d'Ares ermitatik dator,
SEX IUL PRO FABAS errian. (Garona-goikoa)
PIUQUUS Abel-On, zezen eta bei dira; baña
ROMAL-LIANOS baita ere ardi eta auntz. Abel-etxek
V. S. L. M. ori esan nait baidu (Azkue) gaurko
egunez Zubero'an. Dana dala Abel-On
Ganadu-On ere esan lezake.

ABERRI-ABELGORRI

ABELGORRI erabiltzen da zezen, bai, idi eta irisko esateko. Abel eta Gorri itzek osatzen dute. Gorriak dira Pirenetko zezen-beiak Bei-gorritxo ere sazaguna degu eta Abel-ona be bai. Garona goian aurkitzen dituguz Baicorrixo, Aher Belste; Adur'raren iturrietan, berriz, Garonatik gertu, Asto Illuno eta Arixo. Garonatik beera daude Avelino eta beeraxeago ABERRI.

23ABERRI ori ABELGORRI'ren murrizketa bat da. . Don Manuel'ek esaten zuen euskaldunak itz luzeak iru silabetara mozten zituztela. Jose Migel Barandiaran'ek ere Joxemiel esaten zion bere buruaria... Ori dana, aoskatzea errez-teagaitik.

ABELGORRI, ABERRI biurtu da. Abel eta Bei alkarrekin ezagutu dituguz eta biak dira ganadu.

ERGE DEO

ERGE DEO

Sacaze jaunak dionez, Garona garaiko Neste ballaran dago gai au. ERGI itzak oraindik ere irisko esan nai du. Zezena mitologi guztietan garrantzidun gaia da. Emen Abel eta Beien artean agertzea normala da.

DEO IDIATE

Garonatik beera dago, Sacaze jaunak dionez, Saint-Pé-d'Arde inguruan. IDI gaia ERGE-ren inguruan. IDI eta ATE edo ATHE, Idi-taldea euskeraz. Dula erderaz esaten dan antzera.

ELE DEO

Sacaze jauna, berriro: bera ibilli zan emen atzera eta aurrera billaketa lanean... Pireetako jainkoa da, dio. Eta, emen berriro, ELE itzak taldea esan nai du, ganadu taldea. Erderaz ko Dula.

Ardi eta Auntz gaiak falta dira emen; baña, ELE onetan izkutatuta egon litzazke. ELE eta ATE gaiak dauzkagu ondoren datorren gaiakin alkarrekin lotuta.

EDELATE DEO

N. 123.

Pag. 505

EDELAT(i)

DEO

Sex. Min.

APRILIS- ET

ALSIMS-f.

ELEATE JAINKOARI

Sexto Minuzio'k, Aprilis eta

Alcimius'en Semeak.

Comminges'ko Saint- Bertran'go

Santuaren Soruan. Marmolezko

Aldara 0'57 gorakoa.

Iru gai daude emen alkarrekin: EDE-ELE-ATE. Aizkeneko bi auek Ele eta Ate, ezagunak dituguz, erderazko Dula.

EDE da berria eta euskaldun utsa. Eta zaldiak izaten dira EDE-DUN (beiak eta lotzeko larrukiak dira eta larruki oiekin eusten zaio zaldiari, gizakiaren borondata. EDELATE, ezitako salidi-taldeen jainkoa.

ERDIT ETA ERDITZE

Sacaze jaunak dionez, Toulouse inguruan zeudeen bi idatzi auek. Unai eta artzaientzak garrantzi aundiakoa erditze ori.

N. 114

Pag. 502

BAESERTE

DEO

HARBELE

HARSi-F

Baeserte jainkoari

Harbele

Harsiren Semeak.

Mermolezko aldara, 0'70 gorakoa

Aldamen batean Anfora bat dauka eta bestean, basurde bat korrika.

Arri ori aurkitu zan HUOS ballarak, BASERT du izen. Toulous'ko Katalogoak dienez, auzo ori BASURDEARI eskeiñita zegoen.

BAESEK BASA dala dirudi eta RTE orrek, (U)RDE'ren antza badu. Dana dala, Basurdearen irudiak argitzen du arazoa osoa. Basurdea eta txerri-emea, bizak izan dira beti ugaltasunaren irudiak; ERDITZE ugaria, alegia.

Eskeintzen duena Harbele(x) da: Arbel-lezea, Hartsí , ARTZa'en semea. Orra bi izan euskaldun. ARAN ballarako azken erria Lex da, Leze...

FANO / HERAUSCORRICTS / HE SACRUM

Santa Magdalena Arannhe'ko ermitan zegoen Tardets (Atarratze)n. Inguruko mendi-gallur batean.

FANO da goi-arnasa edo goi-erantzuna eta SACRUM da altara.

HERAUSCORRITECHE, altara eskeintzen zaion jainkoa da.

Bi jainko izan litezke: H'a oskatzen bada K bezela, ona zer agertzen dan: KERA-UTS-GORRISKA edo ASTO-AUTS-GORRISKA. Leendik

ASTO ILLUNO ezagutzen degu. Onek auts-kolore gorriska izango luke.

KERArean esan-naia ASTO ere bada.

Baña, asierako Ha oskatzen ez ba'da (eta ori ere gertatzen da), era orretara KERAUTS-GORRIZKA izanen litzake. KERRAUTX (B, N,) URDE ARRA da.

Aurrerago aitatu degun jainkoa BAS-URDEA zan. Oaingo au ez da basatia, exeko URDEA, baizik.

ASTO edo URDE, orra bi abere-jainko ezagunak.

Bere aotik ematen du jaikoak bere erantzunak: FANO.

Zenbat abere artzen zituzten jainkotzat gure aurrekoek; geienak Mari'ren menpekoak, Mari bera ez ba'dira. Mari'k, ordea, badu illargiarekin zer ikusirik.

ILLARGIA

Gai onekin asterako aitatu dezagun Juan Thalamas Labandibar gure Seminario-garaiko eskola-maixua, oar bat: "Cultura Pirenaica", Kardaberaz-bilduma, 20'garren liburuan, 226-228 orrialdeetan, onela dio:

ILLUNUS – ILLUNES, divinidad selénica fue la que tuvo más extensión entre los pirenaicos con ABELION... ILLUNBERRI, ILLUNBERRIXUS, significa en euskera Luna Nueva".

Thalamas jaunak ILLUNUS eta ILLUBERRIXUS izen utsak ba'lira bezela idazten ditu, nominatiboan, baña latinezko idazleak, aldarak norentzako diran idazten du; beraz, bear du esan ILLUNO eta ILLUNBERRIXO, dekilabidean datibo diralako.

ILLUNO DEO

Auñamendi Enciclopedia dio: "Nombre de divinidad, inscripción latina (Valle de Layrisse, Comminges", ... "Jainko Illunari". Baña, asierako IL ori, Illargia da. Beraz, Illargi Berria danean, Illuna da. ILLUNO ori ILLARGI BERRIA da illuna dagoenean eta orretatik dator

ILLUNBERRI

Saint-Beat'en (Comminges) billatutako arlosa bat. Eta Aran ballarako Escuñaou errian aurkitu zan

ILLUNBERRIXO

Illargi-berritxoari eskeiñia.

ILLUNBERRIXO / ANDEREXO

Arri oneri buruz onela dio Aita Fita'k 1863'aren Ekainaren 1'an: "Mi docto amigo M. Maurice Gourdon ha tenido la bondad de remitirme... la fotografía de otro mármol insigne que halló en la iglesia del pueblo de Escuñaou. Por deagracia no está completa la inscripción a causa de la rotura de la piedra, bien que sus dos palabras ILLUNBERRIXO ANDEREXO compensan asaz este defecto por ser enteramente vascongadas. La segunda es nombre de mujer, derivada de ANDERE (señora ama de la casa) conforme lo ha demostrado M. Luchaire". (Auñamendi ... Estudios... Epoca Romana". Pag. 41). Izen onen aldaketa bat beste au:

ILLUNBERRIXON

Izen onek ON itza erantsi dio: Illargi Berritxo jaikosa Onari. Batzuetan gaiztoak ere izaten dira, Mari beraren antzerá. Beste jainkosa au, aurrekoaren laburpena ere bada:

ILLURBE

"Deidad ente el Adur y el Garona. Entra en composición en el nombre ILUNBERRIX(o), ILLUNBER(ri)..." Aurrerago aitatutako

Enciclopedia'n. Gai au berriro errepikatzen da itz auetan

ILURO, ILURON

"Nombre de divinidad, inscrición latina (Mondulan- Comminges). Nombre relacionado con ILURBERRIXO". Murriztu egin dute: ILUR(Berri)O eta ILUR-ON.

Gaia uek danak ILLARGI BERRIKOAK, guztietan ILLUN itza agertzen dala-ko. Baña bada beste mito bat II itzakin asten dana, U barik:

ILIXO, ILLIXON

Itz onetan bi zerki auek daude IL eta XO. Eta bigarreanean gañera beste au ON = ILLARGI-TXO-ON. Izki bi daude ortartean dago (bi ii) berba ori errezteko ILL-e-BETE bezela. Toulouse'ko Katalogoak (Auñamendi. Enciclopediak dionez) bere 151'eko orrialdean dio: Bagneres de Luchon'en 1764'garren urtean lur aztarketak egin zirala eta monumento pillo bat aurkitu zala eta Termes'etako eskuetan gelditu zirala. 1778'an beste orrenbeste egin zutela eta marmolezko arlosak jaso zituztela eta aietako bat au zala.

LIXIONI / DEO / FAB FESTA.
V. S. L. M.

Chartres'eko canonigo zan Seguin apaizak eraman zuela. 1880'ean, berriro arlo-
sa eta aldara zatiak eta gaur geienak galduta daudela. "Catalogoa" argitaratu zute-
nean 1856'ean aurkitakoak oraindi ere Bañu-etxean zeudela eta aietako bat au zala:

N. 162 Pag. 512	ILIXIONI DEO SECUNDI NUS- VE RECUNDI	Illargitxo Onari Sekundo Verecundo'ren Semeak. Ballara osoak LIXON (LUCHON) izena jasotzeko, señalea zan ango Jainkoa. Benetako izna ILIXON da.
--------------------	--------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

MENDIAK

Ballara orretan bazan, kanpotikk etorritako beste izen au ere:
MONTINI (MENDIAK), Auñamendik dionez. DII (JAINKOAK) itza falta da.
Baña, euskeraz ere topa degu mendi-izen ori:

GARRI DEO (GAR JAINKOARI).

Au dio Auñamendi Enciclopediak: "GARR divinidad en Comminges, H. Garo-
na y en valle de Layrisse. Se le ddican dos aras romanas... Hay en la zona un
pico GAR..."

N. 158 Pag. 511.	CARRI GEMIN US SER UT SLM T PROG ON SER.	Marmolezko zipo bat, goitik zatitua. Galud elizako orman aurkitu zuten Saint Beat'tik 4 kilometrorra Pique ibaiaren eskubi aldera. Gorago esan degun inguruan, Riviere ballaran dago Beste arri bat CAR izenakin. CAR ori GAR da eta GAR da GARA, mendi-gaña: Gara-mendi, Garai, Gar-mendia...
---------------------	---------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Larysse ibarreña, Marignac errian, dago kale bat izen onekin: Rue du Pic du
Gar eta bertan dago mendi zorrotza izen orrekin
Iri-2

MONTES, SILVANUS ET DIANA

N. 134 P. 507	SILVANO DEO ET Montibus Numidis Q. JULIANUS et PUBLICI US CRESCENTINUS qui Primi hinc columnas VI CENTENARIAS CELAVERUNT ET EXPORTAVERUNT,	Marmolezko aldara ederra 0^90 gora. Marignac'eko elizan zegoen. Badago bertan marmolezko arrobia ere. Quinto Julianok eta Publi- ciano Crescentinok, emen
------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Lenengoz zutabe luzeak, 6 metrokoak, egin zituztenak SILBANO (Basajaun) eta ITZAL AUNDIKO MENDI EZEAI.

Marmolgiñak agertzen dira emen.

N. 177

P. 514. Dis, Mont Mendiak, Basajauna eta Diana
 Et SILVANO eiztaria datoz emen Barouse'ko
 Et DIANA ballaran (Comminges).
 I-AR V. S. L. M. Lenengo mendiak baso oparoekin

Animali ugarien egoitza eta bertako Basajaunarekin Diana eiztaria. Diana onek, eiztai izan aurretik, illargiarekin zer-ikusia bazuen. Naiz eiztari, naiz illargi, ango jendearekin egokitzen da. Izena latinezko, baña gai egokiak pirenee-euskaldunentat. Tarteka jainko euskaldunen izenak beste oiekin naasten dira.

FONTES-ITURRIAK

Mendiekin batera agertzen dira iturriak.

(Auñamendi Enciclopedia... Diccionario FORTI-GALLET, pág. 241). Onela dio: "Muchas fuentes en el País Vasco se hallan vinculadas en la mente popular a diversos genios o seres míticos, también a santos cristianos que en numerosos casos han sustituido a aquellos y tenían sus cultos en algunos lugares del Pirineo en la época romana, de lo que es una prueba el ara que les estaba dedicada en Castillon-l'Arboust". Euskaldun izenak aiatzen ditu era onetakoak: Andre-Mari-iturri, Mari-iturri, Andre Iturri, Iturrisantu, Doneiturrieta, Sandali-iturria, Iturrutxaran (Araia. Bertan agertu zan Ninfa jainkosari arlosa) eta geiago.

UJUE'KO errian aurkituko degu, bertako elizan zegoen,
LACUBEGI izena.

Caelii Te Ujue'ko mendi-tontorraren oñetan dago iturri bat eta
Sphoros gaur ere Lacubegi deitzen diote barren arreri.
Et Festa LAKO udaska da eta BEGI, iturri. Jainkoari, boto
Et Telesi baten arrazoiz, arria Caeli Teoforos eta Festa
Nus. Lacu- eta Telesinus'ek. Tontor orren beste aldeko barre-
Begi Ex nean zegoen beste aldara bat Jupiter'eri eskeiña:
Voto. Caelii / Tespho / ros et / Festa / et Tele / sinus. Jo
 Vi Sacrum.

Euskal famili onek etxeko jainkoak gordetzen ditu; baña, baita ere kanpotarrak onartu. Bi arri auek Museo de Navarra'k gordetzen ditu.

MARTI Pirenee Garaiko Lourden vielle errian bi jainko
ARIXIONI alkartzen dira. Bata da MARTE kanpotarra eta
Erianus bestea ARITO-ON euskalduna.
Serionis. MARTE jainko aundia zan eta gerrarena izan
V. S. L. M. aurretik, ugaltasunarena zan ARITXO bezela.

Beste aldara bat ere aurkitzen da inguru aietan:

MARTI / DAHO / FANNAC / V. S. L. M. DAHO=DAKO, udaska da

LAKO bezela. Ugaltasuna eta Ura, biak alkarrekin ondo datoz. Au aurkitu zuten inguruan daude BASAERTE=BASATURDE eta ERGE'ren santutegiak. Ugaldatsuna bide guztietatik.

MITRA,

DEO MITR MITRA jainkoari eskeiñitako arri borobil bat
FAUSTUA D'Aure ballaran St. Lary-Soulan errian 1.288'tik
MODESTA. Gora. Koba baten atakan zegoen lurperatuta.
V. S. L. M. Koba-gañean gaur elizatxo bat dago. Tachi

Venturi idazleak onela dio bere Religio historia batean: "Los santuarios de Mitra, Deus Sol Invictus Mitras, tenían la forma de una gruta... En el fondo de la gruta estaba el altar, y sobre un muro la imagen de Mitras que mataba el toro..." Asia'tik etorritako jaikoa zan eta Erromako Enperadoreek mundu osoan zabaldu zuten gudarien bitartez eta Pireneetako artzaiak onartu eguzkiari begira zeudenak eta Mitras Eguzki Garaillea zan. Ura eta eguzkia, biak bear ditu artzaiak. Orrelako altura batean egoteko, itxurak ematen ditu gehiago ere egongo zirala.

AGEIO DEO ETA AGEIONI DEO.

Bagneres de Bigorre'en agertzen da arri au:

AGEIO DEO

Pagani Ferrarienses eta bigarrena NESTE ballarako Montagut errian:

AGEIONI / DEO / ANTONI / US VINDE / mialis ex voto.

Lenengoko idaztiari, bear ba'da, N bat falta zaio. Olagizon baserritarrena da (Pagani ferrarienses) eta bigarrena, Frutu-biltzallena (Vindemialis).

AGA-AGE bi gauza izan litezke: Makilla luze bat (Vindemialis'entzat) edo Porra bat (Olagizonentzat). Ona emen beste bi lanbide berriak: Olagizonak eta Frutu-bintzailleak.

ALAR – ALARDOSTO

Jainko au Secace jaunak dakar: arri borobil-luzea (cipo) 0'40 x 0'21.

ALAR / A FURIUS / FESTUS / v. s. l. m.

Garona goian, Larysse ballaran GAUD errian. Orren inguruan topa dituzte beste bi:

ALARDOSSI eta ALARDOSTO

ALAR jainkoaren ondoren, onela dio Sacace jaunak: "En este texto ALAR, palabra indeclinable, debe considerarse como un dativo; ella constituye la raíz o parte invariable de un nombre que lo alargan por el empleo de diversas terminaciones".

Euskeraz ere berdín gertatzen da: ALAR bakarka ez dator iztegieta; baña, bai beste itz batzuek erantsita:

ALAR-BE = Ezigabea.

ALAR-AZI = Artzaiaren lana, ezitako ganaduen.

ALAR – AZLE = Ezitzen duena.

Ezitzeak garrantzi handia du artzantzaz. Mendeko ganadua EZI egin bear da kortara ekartzeko. Gai onen inguruan jainko bat bear zan eta orra ALAR.

ALARDOSTO.

Bi izenez osatzen da jainko au: ALAR eta DOSTO.

ALAR badakigu zer dan: ezitzea.

DOSTOren D, R baten ondoren dator; beraz, T da: TOSTO. Orrela ALARTOSTO bear du izan. Idazle latiniari S ori, tokitik aldatzen zaio:

Aker-Belste idatzi zuen aurrerakoan, BELTSE idatzi bearrean. Emen ere era berara jokutzen du: TOTSO bear du. TOTXO izaten da olagizonen labetik aterratzen duen AGOaren erdia.

Era orretara ALARDOSTO izango litzake suaren bidez burnia EZITZEN laguntzen duen jainkoa.

N. 126

P. 506 ALARDOSTO DE(o) Alardostori
Taurus Zezen
Sosonis – F Sosonen Semeak.
V. S. L. M. Arri borobilla (cipo). 0´40 luze, 0´15 zabal.

Pique ibaiaren eskubi-detik, Estenos eta Cierp, bien artean. 1832´an aurkitu zuten.

N. 161

P. 512, ALARDOSSI / L- IVL-EUNV / V. S. L. M.

Luchon´en. Arri borobilla: 0´41 luze o´22 zabal.

N. 146

P. 509 FABIUS Cf / ONTANUS / R Dosis / I. m. .

Aldara handia: 1´15 luze. Bi aizkeneko arri auetan DOSTO Doss biurtu dute.

N. 170

P. 513 ISCITTO DEO Larbust ibarrean, Garin errian,
HUNNU Luchon´dik 8 kilometrora.
ULOXORIS

Fili

V. S. L. M.

N. 171

P. 514 ISCITTO / SABINUS / MANDATI / V. S. L. M.

Larboust ibarrean, Garin'go elizxaren ormetan. S eta C alkarrekin X edo TX dira. Euskeraz bada ITXITU itza – ezparru bat ganadua godetzeko.

“Danadua gordetzen zan ITXITU jainkoari.

LEKERA

LEHERENO DEO.

Jainko au MARTE'rekin alkartzen da. 14 aldara ditu: 1 Marte'ri bakarrik.

5. Lehereno'rekin alkartuta,

8. Lehereno'ri bakarrik. Guztiak marmolezkoak.

Toulouse'tik Dax'era dijoan bidean ARDIEGE'ko eliz-ormetan. ARDIEGE' k bi izen ditu: ARDEIA eta ARDI-EGIA eta au zer dan argi ikusten da.

LEHERENO MARTE'rekin eta MARTE ARIXO'rekin alkartzen dira. MARTE (gerraren jainkoa izan aurretik) eta ARIXO ugaltasunaren jainkoak ziran.

Lehereno'k ere izango du gai orrekin <er ikusirik. LEHERE-NO = LEKERE-ON. (H=K.). Euskal-iztegietan LEKERA eta LEKEDA antzekoak dira eta LIKIT eta LIKATSU da.

Eta ortik AZI edo SORTARAZI (LIKIZAK) ganaduerakin badu zer ikusirik..., eta Marte eta Arix'ren ugartasunarekin ar-emanik.

14 arri Ardiegieko eliza zaar batetik atera zituzten: Ber bada , an egongo zan bere santutegia ere.

LAHA DEA (h = k), LAKA.

N. 81

P. 497 LAHE / PRO SALUTE / dominorum / M. JULIUS / GEMINUS / V. S. L. M.

Arri borobilla 0'45 x 0'30 : patera eta epichysis aldamenetan. Marignac'eko Louge ballaratxoan bi errekatxo alkartzen dira, Bernex eta Hauride. Eskeintza egiten du M(arco) Julio Geminus'ek nagusien osasunerako.

N. 183

P. 516 LAHE / DEA-E/ consacrani. LAKE (dativo) jainkosari bere konsakratuek. Arri au ere Touch eta Louge ibaien gurutzean dago.

LAKA. Euskeraz, erreka eta kamiñoen gurutzea ere bada: gurutzeko zurrun-billoak. LAKA erreka-gurutzeak zaintzen duen jainkosari; Toki egokia jasotzen diote bere kondakratu-zaindareiek.

SEX ARBORIBUS

Aurretik GAR, Montes Numidi, Silvano eta Diana ezagunak dituguz. Arbola-gaia falta zan eta arbola-basoak Diana eiztarientzat bearrekoak...

SEI ARBOLEI.

n. 84

p. 497 SEXS / ARBORI / DEO / Pompeiu /canpanus.

SEI ARBOLA JAINKOARI... Sei Arbolak batera alkartuta egongo ziran eta taldea izanik, bat bezela idazten du eskribau latiñak.

Marmolezko aldara 0'70 luze, 0'20 zabal. Montespán'en (Garona ibaiean) urkitua. Beste bi aldara ere badaude izen orrekin.

FAGO DEO

N. 137

P. 508 FAGO DEO / ERPEMENIUS / ESDENCI-F

Fago eta Pago euskaldunak ere badira. Aurretik Arbolak, orain, berriz, arbola berezia. Comminges'en, Garona garaian. Iru arri ditu Pago jaikoak.

ARTE JAINKOA

P. 587 ARTEH esta ARTA jainkoa. ARTEA ikatz egiteko onena. Emen olagizonak daude. Comminges. En "Auñamendi..." k dionez. .

Aurretik Mendi eta Basoak; orain Pago eta Artea, ikatz egiteko aukerakoak; baita baso oparoak osatzeko ere eiztarien (Diana) serbitsurako.

Mari berbera ere, leize batetik bestera joateko, arbola itxura ere artzen du, su eta garratean. Leizeetako marrazkietan agetzen da arbola...

NINFAK (Lamiñak?)

Bagneres de Luchon. Ango urberuagatan (Termes) agertu da arri-sail bat Ninferi eskeiñiak... Baita Araia'n (Araba) Iturratzaran iturrin ere aukitu zuten orrelako arri bat.

MINERVA BLISANA (Palas edo Atenea)

Comminges inguruan. Artesaguen jainkoasa. Ango artisaguek olagizonak ziran. Metalezko tronpeta bat eskeintzen zitzaion eta metalezko tronpeta olagizenen lana zan, Iru arri ezagunak. AGEA, ALAR-TOTXOA, ARBOL-IKATZA eta orain, berriz, artisaguen jainkosa metalezko tronpetakin; guzti oiek olagizonen neurrira.

TUTELA LOCI: (okien tokiko zaindariari)

Tutera erria ere badegu gure artean

DII MANES. (Etxeko jainkoak: etxeko aurrekoek).

Alara pare bat Toulouse inguruan. Maiorazgoek eta ondasunak jasotzen zutenek urtero gurasoen alde elizkizunak egin bear izaten zituzten eta illeta-bazkariak ere ospatzen zituzten, Euskalerrian orintsu arte bezela.

HERCULES ANDOSO.

n. 185
p. 516, HERCUL / TOU ANDOSO. Bi aldara eder.
Batzuek esaten dute

n. 191 ANDOSO Anderetik
p. 520 HERCULI / ILLUNO ANDOSE. datorrela; baña. Hercules gizon indartsua izan... eta ez andere. Beste batzuek ANDI'tin datorrela. Onek itxura obea du, Hercules gizon aundia eta indarduna bait zan.

Bigarren aldara oneK Hercules ILLUNO... Illuno itza Beltxarana izan liteke; baña, aurretik esana daukagu ILLUNO Illargi-berria dala...

Irugarren aldara batek dio DEUS / HERCULES / INVICTUS... Illargi illuna, bera re, INVICTUS da, GARAILLE, illunetik berriro sortzen dalako... Hercules zan AUNDIA eta illargia bezela, bera ere GARAILLE.

ANDOSO GAIA ez da Hercules'ekin amaitzen.

n. 28
p. 488-89 DEO / BACEI / A / ANDOSO / ANDOXUS.

Zein zan Baceia jainko aundia? Aldara eskeintzen dio ANDOXUS'ek. Andoxus, Andotxo da, Aunditxo. Baceia jainko aundia zan ; bera, berriz, Aunditxo.

n. 111
p. 501 ANDOSTEN / Licini-F- Sibi / ET LEXEIE-om / BEXONIS-F-UXORI / G. JULIAE-I.

Andosten da arria egiten duena berarentzat eta Lexeie emaztea, Ombexonis'en alaba eta Julia Juliarena ildakoei.

Arri onetan dauzkagu, leendik ezagunak, ANDOS eta LEXE, LEZE dana.

ANDUS (Andutz, Deba'ko mendia Itziar'en).

n. 159
p. 511 ANDUS / BILAISIS / F-H-S-E.
Andus Bilaisorena emen eortzita dago. ANDUS, ANDOS'en antzeko

ANDERE

n. 121
p. 486 ANNIUS / DUNOHORSIS-F / Calva / Casilii-F / uxor ANDERE FILIA / Filii Ex. Test.

Annio, Durokorsiren semea, Calva Casiliren alaba, emaztea ANDERE, alaba eta semmek (egiten dute arria) Testamentua gaitik. Arri onetan di izen daude azpimarratzekoak: Andere eta Durokotz. Azken onek ere euskal kutsua dario.

ANDERESEN

n. 169

p. 513 SEVERUS / BERHASIS-F-S-V / exorata / CASTIA / F. UXOR ET. SEQUUNDO. F. E. / ANDERESENI / matri et / Silvanus. F. et SILVINA.

Sebero ildako Berkas´en semea, ber emazte Exorata, Castia´ren alaba, bere-tzako, bere anai Seberorentzat, bere ama ANDERESentzat, bere seme Silvino´k eta alaba Silvina´k.

Arria Bagneres de Luchon´goa eta bertan dau de ANDERE izena eta ildako Berkax.

CISON (GIZON).

N. 152

P. 510 D. M. CUNDUESE / m Filii CISON / SENHERNIS / Filius Pater.
Izena Cison = Gizon

LEX (LEXI DEO)

Aran ballarako aizken erria LEZ da eta an aurkitu zan arria Aita Fita´k dionez. LEZE zer dan argi dago.

LURGORRI

Aita Fita´k dakar bere lan batean. Auch´en inguruan. Jainko eta jainkosa sail onetan AMA LUR falta zan.

BIGARREN LABURPENA

Garona-aldean, Pirenee Mendiko euskaldunek erromatar biurtzen ari dira-nean, beuren izkuntza dan Euskera galtzen dute eta OC izkera jaio-erazten aren orde. Ala moduz jokatu zuten Ego-aldean Iber ibaiaren ertzeetan, Eus-kerak galduz, Gaztelera sortu.

Erromatarren kultura-gaiak artzaienak ziran; baña, arri auetan artzai ez diranak ere agertzen dira: olagizonak, frutu. jasotzailleak, egurkiñak, arrobie-tako argiñak, ikazkiñak, eiztariak, apaizak eta konsakratuek...

Arri auetan azaltzen dan mitolojiak gaur eguneko auskaldunenaren antza osoa du: Abereak dira, batez ere, mito-gaiak; bañan, ez eurok bakarrik, Abe-reak sortu eta azteko Euria, Eguzkia, Illargia bear dira or-goietan eta bee auetan Mendiak, Basoak, Arbolak (Pago eta Artea), Ura, Ur-askak eta Iturriak; sor-tzekoa dan Azia (Lekeda), Erditzea, Ezitzea (Alar>Alarbe, Ede>Ededun), Gor-detzea (Itxitu), Lan-gaiak (Aga...) eta abar.

Arri-berri-aroko Animismoa buruan, eta gauza guztiak, txikienak ere bai (beuren lanetarako bearrezkoak zirenak), guztiak zeukatzen, beuren barneko gidari, espiritu-anima bat, jainko bat...

Eta mundu ugari orreri jasotzen zioten aldarak eta arriak.

Jainkoen izenak euskeraz daude eta beste guztia laifnezko jokaera batean; orregaitik daude ainbeste jainkoen izenak I, E (A-E) eta O´rekin amaitzen


dirala, zeñeri arria eskeiñita dagoela adierazteko: esate baterako ASTO ILLUNO, ILLUNA esan bearrean, latiñez ILLUNA gramatikaz gaizki dagoelako...

Arri auetan jainko erromatarrak ere agertzen dira; batzuetan eurok bakarrik eta beste aldietan jainko euskaldunekin alakartuta...

Erroma'k bere lana aurrera daroa Akitania'n eta Euskera gal-bidean ipiñi du, Alaz ere, euskal itzak arriek gordeko dituzte gaurdaino; baña, orduko mitolojiak galdu ditu betirako, beuren eutsigarri zan Euskera, galtzean.

Ego-aldeko Euskalerrria'n, Euskera eta Mitologia, gureraño eldu dira, euskera orren tolesteetan. Erroma'k galdu zitun Garona-aldean euskera eta mitolojia; kristautasunak, gure artean, ez ditu ez bat eta ez bestea galdu. Joxe Miel Barandiaran'gok bere erritik (Ataun) asi zan mitoloji oien billa. Eta, Ataun ura euskalduna eta kristaua zan.

Anes Arrinda



*JAINKO EUSKALDUNAK
Akitania'n*



*Sr. BEAT
Bere inguruan
daude Jainkoak:
Baicorixo
Abel(i)on
ILLUMBERI
GAR...*



*GAR
mendiaren
aurrian:
EGUZKI-LOREA
MARIGNAC*



*GAR
mendia*

*GAR
jainkoa*



*LAY-RISSE
ballara*



*MARIGNAC
Kalea*



*COMMINGES
(St. Bertrand)
Lugdunum
Convenarum
Pirine-mendiak*



Pireneetarako ganadu - bideak. Udaran igo, neguan jetxi.



Udarako sarobe eta belardiak. Jainkua: ASTO ILLUNO



Bagneres de Luchon. Jainkoak: NINFAK eta ILLARGIA Balneum Lixonense.



Luchon = LUXON

Bañu etxeak dio Balneum Luxonense. Benetako izena diskoteka onek: LUXON (IL (argi) TXO-ON.

